

9

Soziologiazko Euskal Koadernoak Cuadernos Sociológicos Vascos

2002

Euskal eskolaren muin eta mamiaren bila:
ikerkuntza-prestakuntza prozesu bat

*Maite Arandia
Idoia Fernández
Pilar Ruiz de Gauna
José Luis Marañón
Juanjo Gómez*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

PRESIDENCIA

Euskal eskolaren muin eta mamiaren bila: ikerkuntza-prestakuntza prozesu bat

*Maite Arandia
Idoia Fernández
Pilar Ruiz de Gauna
José Luis Marañón
Juanjo Gómez*

2002

2001eko "Euskal Gizartearen Egoera" Sariaren akzesitaren irabazlea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritza
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

PRESIDENCIA
Dirección de Estudios y Régimen Jurídico
Gabinete de Prospección Sociológica

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2002

Esta investigación fue galardonada con el accésit del Premio “Realidad Social Vasca” de 2001. La presidencia del Gobierno ha considerado oportuna la publicación de este trabajo en virtud de su notable interés científico, si bien la responsabilidad del texto íntegro del mismo corresponde totalmente a los autores y autoras de la investigación.

Ikerlan honek 2001eko “Euskal Gizartearen Egoera” Sariaren akzesita irabazi zuen. Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak ikerlan hau argitaratzeari egoki deritzo, bere interes zientifikoa kontuan hartuta, hala ere, testu osoaren erantzukizuna erabat ikerketaren egileei dagokie.

Edición: 1ª. junio 2002
Tirada: 500 ejemplares
© Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
Presidencia
Edita: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Fotocomposición
e impresión: Flash Composition, S.L.
Alda. Rekalde, n.º 6 - 48009 Bilbao
I.S.S.N.: 1575-7005
D.L.: BI-2080-99

Ikerketa honetan azpimarratu behar da parte hartu duen ikastola bakoitzak izan dituen protagonismo eta garrantzia, eta bere egile-hezitzaileek egindako gogoeta sistematikoak eta ekarritako ahotsa. Bereziki, azpimarratu nahi ditugu zentroko ikerlariak eta laguntzako ikerlariak egin dituzten ahaleginak eta adierazi duten kemena; izan ere horien guztien esfortzu eta ongi egiterik gabe ez zen posible izango hau bezalako ikerketa-prestakuntza prozesu bat ikastoletan bideratzea eta garatzea.

Armentia Ikastola (Gasteiz):

M^a Carmen Burgoa

Agurtzane Hurtado

Irene Aldai

Assa Ikastola (La Puebla de Labarka)

Lucia Medrano

Aitor Urkiza

Amaia Mentxaka

Salbatore Mitxelena Ikastola (Zarautz)

Karmele Martiarena

Josepo Teres

San Benito Ikastola (Lazkao)

Belén Maiza

Idoia Altuna

Urretxu-Zumarraga Ikastola (Urretxu)

Mertxe Serna

Aitor Zubizarreta

AURKIBIDEA

	Orr.
1. SARRERA	9
2. AZTERLANAREN JUSTIFIKAZIOA	11
3. IKERLANAREN OINARRI TEORIKOAK	13
4. IKERKETAREN DISEINUA.....	17
4.1. Ikerketaren helburuak	17
4.2. Ikerketa mota	18
4.3. Engaiatutako ikastolak: lanarekiko konpromisoa	19
4.4. Ikerlariak: zeregin eta funtzioak	20
4.5. Partaide taldeak	22
4.6. Azterketa dimentsioak eta gaikako adierazleak	24
4.7. Informazioa jasotzeko teknika eta tresnak	25
4.8. Informazioaren tratamendua eta azterketa	27
4.9. Ikerketa faseak ikastola bakoitzaren testuinguruan	28
5. PROZESUA ERAIKIZ	33
5.1. Talde mistoa: ikerkuntza-prestakuntzarako behin behineko zirkulua	36
5.2. Ikerkuntza-prestakuntzarako bigarren zirkulua: ikerketa talde zabala	39
5.2.1. Talde zabalaren ikerlarien prestakuntza	41
5.2.2. Ikerketaren gainbegiratzea talde zabalean	42
5.2.3. Interpretazioa eta bere kontrastea	44
5.2.4. Ikerketa bere protagonistei komunikatu	46
5.2.4.1. Talde mistotik talde zabalera doan komunikazio prozesua	47
5.2.4.2. Talde zabaletik ikastoletara	47
5.3. Ikerkuntza-prestakuntzarako hirugarren zirkulua: partaide taldeen dinamizazioa	48
5.3.1. Lehenengo unea: ikerketa ulertzen	49
5.3.2. Bigarren unea: ikerketaren martxan jartze eta gizarteratzea	49
5.3.3. Hirugarren unea: ikerketa banatzen. Aurrera eginez.	50

	Orr.
6. INTERPRETAZIO TXOSTENA	51
6.1. Ikastola bere osotasunean, komunitateen garapena lagunduz	52
6.1.1. Hezkuntza eragile izatetik hezkuntza komunitate izatera ..	52
6.1.2. Ingurunean eta ingurunearekin eraikiz	62
6.2. Hezkuntza ekintza eta honek ikastolan duen eragina aztertuz	67
6.2.1. Hezkuntzaren kontzeptua eta bere asmoak	68
6.2.2. Hezkuntza praktika aztertuz eta hura estaltzen duten baloreak argituz	70
6.2.3. Hezkuntza ekintzari zentzua emanaz	74
6.3. Antolaketa, kudeaketa eta komunikaziotik horizontaltasuna edo binorantzasuna eraikiz	76
6.3.1. Hezkuntza plangintza, bi antolaketa profilen izateko arrazoa	77
6.3.2. Ibilbide desberdinak eta oztopo berdinak	79
6.3.2.1. Ikastetxearen ikuspegi orokorra oztopatzen duten arazoak	79
6.3.2.2. Zuzendaritza taldeei dagozkien arazoak	83
6.3.3. Informazioa ala komunikazioa?	85
6.4. Garapen pertsonal, profesional eta instituzionala erraztuz eta testuinguruak eraldatuz	89
6.4.1. Berriztatze prozesuak abian jartzeko arrazoiak	89
6.4.2. Berriztatze prozesuen eranstea, gizarteratzea, segimendua eta ebaluazioa	91
6.4.3. Pertsonen garapen pertsonal eta profesionalaren alde	94
7. ONDORIOAK	97
8. IKASTOLETAKO KOLEKTIBOEN PEDAGOGI PRESTAKUNTZA BEHARRAK	101
8.1. Hezkuntza komunitate dialogikoen garapenari dagozkion beharrak	101
8.1.1. Hezkuntza komunitate dialogikoen finkatzeari dagokion behar-gakoa	101
8.1.2. Ingurunearekiko harremanen eraikitzeari dagokion behar-gakoa	102
8.2. Hezkuntza ekintzaren eta honek ikastolan duen eraginari dagozkien beharrak	103
8.2.1. Hezkuntzaren teorizazioari dagokion behar-gakoa	103

	Orr.
8.2.2. Hezkuntza praktikari dagokion behar-gakoa	103
8.2.3. Ebaluazioari dagokion behar-gakoa	104
8.3. Antolaketa, kudeaketa eta komunikaziotik abiatutako horizontaltasuna edo binorantzasuna eraikitzeari dagozkion beharrak	104
8.3.1. Institutuzio klima ezartzeari dagokion behar-gakoa	104
8.3.2. Antolaketari dagokion behar-gakoa	105
8.3.3. Gizarteratzeari lotutako behar-gakoa. Orokortasun eta horizontaltasun ikuspegia	105
8.3.4. Komunikazioari dagokion behar-gakoa. Informaziotik komunikariora	105
8.4. Aldaketa eta garapen pertsonal, profesional eta instituzionalari dagozkien beharrak	106
8.4.1. Ikastolaren dinamizazioari dagokion behar-gakoa	106
8.4.2. Aldaketaren instituzionalizazioari dagokion behar-gakoa	107
9. IKASTOLETAN ETENGABEKO PRESTAKUNTZARAKO PROGRAMAK GARATZEKO ILDO NAGUSIAK	109
10. BIBLIOGRAFIA	115
11. ERANSKINAK	117
11.1. Ikastetxeetako testuinguruak ezagutu eta ulertzea helburu duen tresna: ikastetxeen autorretraturako gida	118
11.2. Ikastoletako ikerketa proiektuaren sortzearen eta gizarteratzearen azterketa helburu duen tresna: autotxostena	119
11.3. Talde zabalaren saioetan ikerketaren azterketa errazten duten tresnak: informazioaren biltze eta azterketarako koadroak	120
11.4. Diskurtsoaren aztertze eta eraikitze teorikoa laguntzeko materialak	121
11.4.1. Azterketa dimentsioak eta gaikako adierazleak	122
11.4.2. Diskurtso azterketa eta sortzerako galdera koadroa	124
11.5. Ikastola bakoitzaren kasu azterketaren interpretaziorako tresna: ikastola bakoitzaren kasu txostena eraikitzekeo pausuak	128
11.6. Ikerketa komunikatzeko material lagungarriak	129
Egileak	135

1. Sarrera

Ikerketa oro berezko izaera eta bizitza dituen eszenatoki batean kokatzen da, eta bertan hartzen du bere zentzua eta bere esanahia. Gurea ikastolen mundua da, iragana eta oraina dituen eta Euskal Herriaren eraikuntzan garrantzi handikoa dena. Beronek, baina, baditu berariazko helburu batzuk ere hezkuntzari, euskalduntzearen garapenari eta berriztatze prozesuei dagokienez. Herri ekimenak sortarazi zituen helburuok, eta euskal hizkuntza eta kultura ardatz izango zituen berezko eskola eredu ireki eta dinamikoa eraikitzen bideratu ziren.

Historiak eta denboran zehar gertatutakoek eraman dute mugimendu hori gaur egun dagoen puntura. Autogestioa, lankidetzak, herri izaera, gizartearenganako irekiztea, izaera berriztatzailea eta antzeko kontzeptuek eskola eredu berri horren sorrera eta itxuraketa ekarri dituzte. Une honetan, ordea, kontzeptuok ikastolen hezkuntza praktikan nola antolatzen ari diren aztertu nahi dugu, hala nola etorkizunerako aurrerabideak ezartzeko modua.

Aurkezten dugun ikerketa hau zehazki, ikastolen eguneroko bizitzatik sortu eta hezkuntza eragileek beren hezkuntza praktiken eta hauek garatzen diren instituzio testuinguruen hobekuntzaz agertu duten kezkatik bertatik abiatzen da.

Ikastolen Elkartea/Partaide-k, kezka hau jaso eta bere egiteaz gain, ikastolen kolektiboan (gurusoak, irakasleak, ez irakasleak eta zuzendaritza) prestakuntza pedagogikoko beharrak antzematea helburu duen prozesuari sarrera ematen dio. Beharren antzemate horren azken helmuga hezkuntza eragileen benetako beharrei erantzun egokia emango dien ekintza plana eratzea izango da. Kontutan hartu behar dugu gainera, aurrez egindako ebaluazioek adierazten dutenez, ikastolek beti ez dutela bere sentitzen eskaintzen zaien etengabeko prestakuntza, honek ez dituela asebetetzen; hori kontuan hartuta, aipatu planaren garrantzia begi bistakoa da.

Behin hona iritsita galdera asko sortzen dira. Nork burutu behar du azterketa?, nola jar daiteke abian?, nolako etorkizuna izango du?, nondik eutsi dakioko?... Sor-tutako galderak, beraz, asko dira eta urratsez urrats erantzuten joan beharko dugu.

Ibiltzen hasteko lehenik eta behin Ikastolen Elkartea/Partaide UPV-EHUko hiru irakaslerekin harremanetan jartzen da, irakasleen etengabeko prestakuntzan duten eskarmentuarengatik Ikastolen Elkartea/Partaidearen eta ikastolen eskakizunaren ardura har lezaketelakoan. Bilerak batzuk egin ondoren azterlana abian jartzea erabakitzen da, aurrez honako erabakiok hartuta:

- Ikerketa kualitatiboaren ikuspegitik lan egitea.
- Lan ikuspegi kritikoa hartzea, hezkuntza praktiken eraldaketan eta hauek garatzen diren testuinguruetan arreta jarriko duena, eta aldaketa, beti ere pertsonen eta erakundeen onerako, justizian eta elkartasunean oinarrituko duena.
- Ikerketa-prestakuntza prozesu batean kokatzea, honek zera esan nahi duelarik: ikerketa pertsonekin eta aztertu behar diren testuinguruekin elkarbanatzea eta batera egitea. Diseinuan eta prozesuan zehar ikusiko dugunez, «behetik» abiatzen den ikerketa da, ikastola bakoitzean zuzenean engaiatutako pertsonen eta pertsonentzat egina.

Eskutartean dugun lana erabaki horien eta jarraitu den ibilbidearen ondorio da, eta hezkuntza erakundeen garapenari eta hobetzeari, hezkuntza zentroen autoebalua-zioari, hezkuntza autogestioari eta dialogikotasunetik abiatuta sortutako komunitate demokratikoen eratzeari lotua dago. Gai guztiok oso garrantzitsuak eta esanguratsuak dira gaur egun hezkuntza munduan eta ikastolen eta irakaskuntzaren kalitate hobetzerazuzendutako zenbait lan bide abian jartzea eskatzen dute.

Jarraian aurkezten dugun azterlana hamaika kapitulutan egitaratuta dago. Hasierakoetan justifikazio teorikoa, ikerketaren diseinua eta jarraitu den prozesuaren azterketa azaltzen dira. Jarraian ikerketaren interpretazio txostena garatzen da, eta horrek beharren antzematea ondorio duen atal batera garamatza. Azkenik, ikastoletan jarraitu beharreko prestakuntza politikari dagozkion zenbait orientabide aurkezten dira, etorkizuneko ekintzetarako abiapuntu izan nahi dutenak, hain zuzen ere. Azterlanari erabili diren hainbat tresna eta laguntza material gehitu zaizkio eranskin moduan, ikerketa ulertzeko argigarri izan daitezkeelakoan.

Egindako bidea, zalantzarik gabe, luzea eta nekeza izan da. Bide horretan zehar, elkarrekin ikasteko ezezik, gure begien aurrean izan arren askotan erreparatzen ez ditugun gauzen alderdi asko ezagutzeko ere aukera izan dugu. Hitz egitetik elkarriketatara pasatu gara, saiatzetik baieztatzerara, susmatzetik proposatu eta eraikitzerara. Paulo Freirek dion bezala ate bat itxi hurrengo irekitzeko. Azkenik, geure eskerrik beroenak zentroko ikertzaile eta laguntzaile guztiei beren lan esker garengatik, hala nola ikastoletako partaide taldeen ahots guztiei ere. Haiek gabe lan hau ez zen sekula posible izango.

2. Azterlanaren justifikazioa

Informazio gizarteak, bere ezaugarriak direla eta (malgutasuna, sormena, elkarlana...), hainbat gaitasun eskatzen dizkie pertsona zein erakundeek. Testuinguru horretan, heziketak, etengabeko ikaste prozesu bezala ulertua, orain arte historian inoiz izan ez duen balioa hartzen du. Hezkuntza eragileek zein erakundeek birpentsatu behar dute egoera berri horren aurrean gizartearekiko duten eginkizuna.

Gizarte industrialak gizarte postindustrial edo informazioaren gizarte bihurtu diren une historiko honetan, gizartearen maila guztietan, eta, batez ere, hezkuntza mailan, aurre egin behar diegun erronka berriak azaldu dira. Bizi garen teknologi gizartea, informazio aroa edota jakintzaren gizartea den honek errealitatearekiko “elkar-hizketa” berri bat eskatzen digu. Aldi berean, zalantza, balore aldaketaz, erlatibitateaz, arriskuz, kausalitate anizkunaz... betetako egoera berriak sortzen direnez, gizarte honen barruan egoteko eta jarduteko jarreraren aldaketa ere badakar. Arazo horiei, giza nortasuna arriskuan jartzen duen erlatibitatearen menpe geldituko ez bagara, gizarte eta hezkuntza mailako edozein eremutatik egin behar diegu aurre, areago eraldaketa orok giza naturaren garapen positibora ez daramala kontutan hartuta.

Egungo gizarteak gehiago eskatzen digu, hiritarrei orokorrean eta hezkuntza eragileei bereziki, hausnarketa, malgutasun eta sormen mailetan. Horrek eskatzen du, alde batetik, ikaste eta berrikaste prozesuetan sartzea eta, bestetik, hezkuntzaren zentzua, erakundearen gizarte barruko funtzionamendua, prozesuotan parte hartzen duten eragile desberdinen hezkuntza ekintza eta pertsonen eta erakundearen garapenean lagunduko duten prestakuntza prozesuak birplanteatzea.

Banakako erantzunek ezin dute hezkuntzaren instituzioak egin behar duen ahalegin hori gauzatu. Aitzitik, eragile guztien (irakasleak, zuzendaritza, gurasoak, ez irakasleak, ikasleak) ekintza bateratu eta partehartzailea eskatzen du, ardurakidetasunetik artikulatutako ekintza programen bidez garatu ahal izango den kultur proiektu komuna eraikiko duten hezkuntza komunitateak sortuz edota sendotuz.

Zentzu horretan, azterlanaren azken xedea ikastoletan prestakuntza autogestiorako prozesuak sortaraziko dituzten hezkuntza komunitate dialogikoak eraikitzean datza. Bi erreferente teoriko nagusik gidatzen dute aipatu xedea: hezkuntza erakundearen demokratizazio prozesua eta prestakuntza autogestiorako prozesuak. Biok

honako ideiak azpimarratzen dituzte: harremanen horizontaltasuna, prozesuak hezkuntza eragileen partehartzetik eraiki beharra, eta, pertsonak eta erakundeek pentsatzeko eta egiteko garaian izan behar duten autonomia.

Ildo honetatik zertxobait gehitzeak merezi du, zeren hezkuntza erakundeen demokratizazio prozesuek, prozesu harmonikoak izan beharrean, adostasunak, desadostasunak eta eztabaidak hartzen baitituzte barne ezinbestean. Partehartze kritiko horretatik egindako lanak, hain zuzen, guztien proiektua eraikitzea ahalbidetzen du, asmoen, interesen... arteko distantzia horretatik abiatuta. Partehartze demokratikoa, gure aburuz, ezin da ez inprobisatu ez teoriarik ikasi, eta, prozesu bizia eta dinamikoa den heinean, ekintzan ikasten da. Zentzu horretan, hezkuntza erakundeek bertako kideek demokraziaren kontzeptua eta prozesua eraikitzeko espazioa izan behar dute, hori dela eta, ezarri behar dira beharrezkoak diren gune, denbora eta baliabideak, aipatu eragileek hezkuntza esperientzia ugaritan askatasun eta autonomi osoz parte hartzean hiritarrek gizarte demokratikoetan dituzten gizarte lotura eta erantzukizunak agerian jar ditzaten. (Kikiriki, 2000).

Horretarako hauek hartuko ditugu kontutan beste batzuen artean: hezkuntza instituzioaren antolaketa egokia garatzea, lanen burutzea erraztuko duen koordinazioa sustatzea eta instituzioen barruko partehartzea demokratikoago egingo duten informazio bideak ezartzea. Halaber, ikastetxearen kanpora begirako ikuspegitik, zentroa bere inguruan errotzeko estrategiak sustatu beharko dira. Hau hezkuntza elkarrearen hurbileko ingurunearen gizarteratze prozesuetan parte hartzen duten gizarte eragile adierazgarriak engaiatuz burutuko da, komunikazio mekanismoak eta guztien lan bateratua antolatuz hezkuntza garapenaren mesedetan.

Hezkuntza instituzioak, ikastolak, gure kasuan, mugiarazteko prozesu batean sartzeko bere prestakuntza ildoaren definizioari dagozkion erantzukizunak hartzeragaramatza ezinbestean. Horrek ikastolen prestakuntzaren autogestioa abiapuntutzat hartuko duen prozesua sortu eta eraikitzea suposatzen du.

Baina nola ekin prestakuntzaren autogestio horri? Gure ustez, prozesu hori abian jartzeko, ikastolen eragile desberdinek dituzten hezkuntza beharrak antzematea oso urrats garrantzitsua da. Antzemate hori, baina, ezin liteke inolaz ere banakako ikuspegi batetik eraiki, baizik eta hezkuntza instituzioa osotasun eta dinamikotasunaren ikuspegitik aztertuz. Beraz, beharrak aztertze orduan jauzi handi bat egin beharko litzateke ohituta gauden banakako mailetatik globaltasunaren mailara.

Beharren analisia, gainera, ez da gabeziak soilik aipatzen dituen egoera mehatxugarria bihurtu behar; instituzioak eta eragileek eraiki duten hezkuntza gaitasunaren berri emango duen prozesua behar du izan, hortik abiatuta, garapenean eta hobetzean aurreratzen den prestakuntza bide batean sartzeko.



3. *Ikerlanaren oinarri teorikoak*

Ikerlan guztiek ekintzaren norabide koherentea ziurtatuko duten zenbait oinarri teoriko dituzte euren baitan. Oinarri horiek ikerlariari ere laguntzen diote metodologi ikuspegiak, teknikak eta tresnak bereizten, pausu eta estrategia egokiak proposatzen, zentzuzko erabakiak hartzen...

Atal hau gako teoriko hauetatik abiatuta eratzen da.

Hezkuntza errealitateen inguruan orain arte egin diren ikerlanak aztertzean hauxe ikusten da: teoria generalistetan oinarritu direla, kausa-ondorio erlazioan, alegia, eta alde batera utzi dituztela hezkuntza errealitatea, bertan sortzen diren arazoak eta hau guztia gertatzen den berariazko testuingurua. Ikerketa horiek ezagutze instrumental hutsa ekarri dute, eta bertatik erantzun teknikoak eman zaizkie hezkuntza arazoei, arazo horiek sortzen diren testuinguruen balioak eta esangurak kontutan hartu gabe. Ikerketa mota horrek fenomenoari buruzko azalpenak eman dituen arren, ez da prozesu sozial eta historikoen ulerkuntzan barneratu, giza eta gizarte ekintzak eraiki, identifikatu eta berezko balioa hartzen duen prozesuen ulerkuntzan, hain zuzen ere.

Gure ikuspuntutik, ikerketa mota horrek zailtasunak azaltzen ditu ikergai duen fenomenoaren osotasuna ulertzeko garaian, eta beraz, berau sustatzen dutenen zerbitzuan egonda ere, hezkuntza prozesu eta proiektu baten historiaren eta eraikitzearen partaide diren eragile desberdinen interes eta balioetatik urruntzen da. Ondorioz, teoriaren eta praktikaren arteko aldeak, mundu akademikoaren eta mundu praktikoaren artekoak, alegia, hutsunea irekitzen du hezkuntzan eta ikerketan, eta horrek oztapatzen ditu hezkuntza fenomenoak ulertzea eta munduen eta kulturen arteko elkar onartze eta aditzea.

Hezkuntza prozesuak bere erraietatik ulertzeko beharra eta ikerkuntzatik hezkuntza praktiken ulertze eta eraldatzearen mesedetan lan egiteko beharrak hezkuntza errealitatea ikertzeko moduak bilatu eta gauzatzera eramanez du, errealitate horrek berak azaltzen duen izaera aldakor, dimentsioanitz eta sozialerako egokiagoak. Ikerketa ildo hori printzipio batzuetan oinarritzen da eta ikerlanaren errealitatean duen statusa justifikatzen du.

Aurreko premisetatik abiatuta, hezkuntza gizarte jarduera dela esan dezakegu, eta beraz, hezkuntza praktika pertsonen arteko gizarte praktikatzat hartzera garamatza.

Horregatik, ikerkuntzak, praktikaren hobetzean benetako eraginik izango badu, egiten ari garenari buruzko sinesmen multzo bat barne hartzen dituen gizarte jarduerara behar du izan; horrek ikerketa orientatzen duten asmoak argitzen laguntzen du, beti ere teoria eta praktika dialektikoki antolatuta dauden osagaiak direla kontutan hartuz (Ruiz de Gauna, 1997). Hortik ondorioztatzen da hezkuntza ikerkuntza, gizarte praktika den heinean, honako alderdiok hartu behar dituela kontutan:

- «Besteen» asmoak.
- Hezkuntza errealitatearen inguruko esangurak eraikitzen doazen elkarrekintza prozesuak.
- Hezkuntza praktikak gauzatzen diren testuinguruak.
- Giza ekintza oro gidatzen duen ideologia (Carr, 1990).

Hori guztiarengatik, hezkuntza ikerkuntza hezkuntza praktikaren gaineko ikerketa bide sistematiko eta autokritikoa dela uste dugu, hezkuntza eragileen iritzia eta, ondorioz, bere hobetzea eta autogestioa indartzen duena, hain zuzen ere. Ikerketa mota horrek ezagutza batez hornitzen ditu ekintza eta bertan parte hartzen duten eragileak, eta ezagutza horrek argudiatutako eskuhartzea burutzeko bidea irekitzen dio.

Gainera, ikerketa mota horretan «aditua»ren agintea bertan parte hartzen duten hezkuntza eragile desberdinenganantz mugitzen da eta, beraz, ikerketa demokratizatzen da, eta ikergai den fenomenoak, bere egileek eta errealitatearen ulertze eta hobetze prozesuen partaidetzak zentzu berri bat hartzen dute. Horrela, hezkuntza ikerkuntza lankidetzaren bitartez eraiki behar dela uste dugu, eta horretarako izazara dialogikoa, justizia, berdintasuna, sormena, askatasuna eta demokrazia nagusi diren guneak sortu behar dira (Freire, 1997).

Azkenik, hezkuntza ikerketa orok bertan parte hartzen duten guztiak hezi behar dituela baino ezin dugu pentsatu. Ikerketa mota horrek, pertsonen bizi duten errealitatea ulertzeko modu berriak lortzen lagundu ezezik, praktikaren zentzuari eta horrek dituen hobetzeko eta eraldatzeko posibilitateei buruzko bide berriak abian jartzen ere lagundu behar du, bide horiek beti ere partaidetza arduratsu eta konprometituan, hausnarketa autonomo eta lankidetzazkoan oinarrituko direla garbi utzita.

Azterlan horretarako aukeratu dugun ikerketa modu hori kontzeptu guneekin ere erlazionatua dago: teoria kritikoarekin, aldaketaren teoriarekin eta dialogikotasunarekin. Hiru abiapuntuok, jarraian labur azalduko ditugunak, ikerketaren oinarri teorikoak osatzen dituzte:

- a) Teoria kritikoaren arabera ekintza praktikoak edo praxiak dimentsio politiko eta moralak ditu, eta hauek osatzen duten adierazpen ideologikoa autonomia eta



erantzunkizuna bilatzeko prozesuan zehar eralda daiteke. Teoria kritikoak aldatetarekiko konpromisoa du, gure kasuan hezkuntza ekintzaren aldatetarekiko konpromisoa, prozesu soziohistoriko batean eta praxia garatzen ari den testuinguruetan sustraituak eta ezinbestekoak diren balio batzuk kontutan hartuz (Apple, 1996). Teoria eta praktikaren artean pertsonen eta egoeren ulerkuntzaren hobetzea azpimarratzen duen dialektika iraunkorra ezartzen dela uste du (Carr eta Kemmis, 1988). Eskuhartze sozialeko teoria baten aurrean gaude, beraz, eta hau hezkuntza testuinguruetan lan daiteke eta hezkuntza praktiken hobetze eta eraldatzearen hobetzearekin konprometitua dago (Ruiz de Gauna, 1996). Zentzu horretan, hezkuntza pertsonaren konpromiso kritiko bezala ulertzen da (Popkewittz, 1988).

Marko horrek hezkuntzaren zergatiak eta helburuak aztertzeo aukera ematen du, hezkuntza praktikaren analisia hezkuntza eta bere gizarte eginkizuna barne hartzen dituen marko zabalean kokatuz.

- b) Hautatu dugun bigarren osagai teorikoa aldatetaren teoria dugu. Aldaketa prozesuetara hurbiltzean kontutan hartu behar ditugu bai ikuspegi pertsonala eta profesionala bai testuinguru dimentsioa, instituzioek nola jarduten duten eta beren baitan aldatetak duen zentzua ulertzen ahalbidetzen diguten heinean. Hezkuntza aldatetak, beraz, ikuspegi dimentsioanitzak eskatzen du abiapuntutzat, aldateta zehazten duten faktore aniztasunaren eta ugaritasunaren eta bere garapen prozesuen konplexutasunaren berri emateko gauza izango dena (Aran dia, 1999).

Hezkuntza instituzioak, berezko kultura duen sistema den heinean, hezkuntza arazoak definitzeko eta haiei aurre egiteko modu bat zehazten du. Hezkuntza erakundeen ideia horretatik hezkuntza praktikaren autonomia, koordinazio beharra, erabakiak hartzeko prozesuen aldatetasuna eta konplexutasuna eta, azken batez, antolaketaren izaera ez erabateko arrazionala azpimarratzen dira.

Gainera, instituzioak kokatua dagoen testuinguru soziohistoriko eta geografikoaren arabera ezaugarriak ditu, eta horrek bereizgarri egiten du bere helburuei, egiturari, erlazioei eta funtzionamendu estratergiei dagokienez. Ondorioz, aldateta proposamenei eginiko erantzunak eta instituzioak garatzeko duen gaitasunak berak badituzte berariazko izaera bat kasu edo testuinguru bakoitzeko.

Beraz, aldatetaren «zer»az, bere «zertarako»ez, «nola»z eta bere funtzionaltasun sozio-politikoaz problematizatzen da. Irudi horren arabera, edozein aldateta eraldatze proiektu soziala da, ideologi eta kultur mailakoa eta politikoki zehaztua eta legitimatua. Aldaketaren ideia horrek lankidetzazko dinamika dialogiko batean sartzea eskatzen du, kultur aukeren aniztasunetik guztiontzat baliagarri diren proiektuak sortzea ahalbidetzen duena, hain zuzen ere. Freire-k (1997: 63) aipatzen duen aldatetaren aurreko jarrerarekin ere erlazionatua dago: «aldatzea

zaila baina posible da. Eragozpenak izan arren aldatzeko aukera hor dagoe-la errepikatu behar dugu. Kontua hauxe da: nola egin zailtasunak aukera bihurtzeko? Horregatik, aldatzeko borrokan, ezin gara ez pazientzia handi-koak ez pazientzia gutxiak izan, pazientzia ertainekoak baizik. Inoiz ere larritzen ez den pazientzia mugagabeak praktika eraldagarria geldiarazten du azken buruan. Antzeko zerbait gertatzen da pazientziarik eza bolunta-ristarekin, ekintza gauzatzen ari denean ere berehalako emaitza eskatzen du eta».

Premisotatik abiatuta, hezkuntza instituzioa aldaketaren unitaterik adierazgarri-na dela uste dugu, eta hezkuntza eragile desberdinak aldaketa prozesuak eraiki, bideratu, sendotu eta instituzionalizatzeko egokienak direla.

- c) Hori errealitate bihurtzeko beharrezkoa da hezkuntza komunitate kritikoak sor-tzen lagunduko duten prozesu dialogikoak garatzea. Hauek, kezka berdina iza-nik, gizarte eta heziketa praktikak eta barruan hartzen dituzten testuinguruak elkarre-ragin, landu, azaldu eta berreraikitzen dituzte, beti ere elkartasun, elkarre-kikotasun eta berdintasunezko printzipioen arabera.

Elkarrizketaren bidez sortzen den elkarrekintza hori partaidetzaren kontzeptua-ri lotua dago; hau, pertsonen, esanahien negoziatuetatik abiatuta, hezkuntza errea-litatea eraiki eta bertan parte hartzeko duten gaitasuna bezala definitzen dugu. Horrek eskatzen du gure esanahiak «besteekin» batera komunean jartzea, ezagu-tzaren eta errealitatearen eraldatze erantzun bat behar duten gure oinarritzko kontraesanak batera lantzearen. Hori guztiak gure «ziurtasun» guztiak zalantzan jartzea eskatzen du, pentsatzen eta egiten dugunaren tokia, zergatia eta zertara-koa ulertu eta argitzeko.



4. Ikerketaren diseinua

Azterlanaren arrazoiak gaur eguneko testuinguruan eta honek oinarritzat dituen premisa teorikoak azaldu eta gero, ikerketaren lehenengo diseinu agiria aurkezten dugu; bertan, erabaki eraginkorrak zehazten hasten dira.

Diseinu hori ikastoletan egin den ikerketaren sarrera dela azpimarratu behar dugu, eta bertan, oraindik ere gertatzeaz dagoen prozesu baten prospektiba osoa ematen da. Azpiatal ezberdinez osaturik dago, ondokoak hain zuzen:

- Ikerketaren helburuak*
- Ikerketa mota*
- Engaiatutako ikastolak: lanarekiko konpromisoa*
- Ikerlariak: zeregin eta funtzioak*
- Partaide taldeak*
- Azterketa dimentsioak eta gaikako adierazleak*
- Informazioa jasotzeko teknika eta tresnak*
- Informazioaren tratamendua eta azterketa*
- Ekintza faseak ikastola bakoitzaren testuinguruan*

Argi dago, diseinu hori idatzi zen momentuan aurreikusi ez ziren egoera ugari agertu direla; hauei, prozesuan zehar eman zaie erantzun teoriko eta metodologikoa. Hala ere, ikastoletako zuzendari eta ikerlariei aurkeztu zitzaien diseinu agiria bera aurkeztea erabaki dugu, aldaketa txiki batzuekin. Hona hemen, beraz.

4.1. Ikerketaren Helburuak

Hemen aurkezten dugun ikerketak ikastola bakoitzak bere pedagogi prestakuntza beharrak definitzea ahalbidetuko duen prozesua bultzatu nahi du, ikastola osatzen duten talde desberdinen ahotsak entzunez, geroago, testuinguru bakoitzari egokitu-

tako prestakuntza mekanismoak gauzatzeko asmoz. Beste modu batean esanda, ikastolen mugimenduaren idealen artean dagoen pedagogi autogestioa sendotzen lagunduko duen ikerkuntza-prestakuntza prozesua jarri nahi du abian. Horrek helburu horren mesedetan egongo diren prestakuntza politikak (instituzio estilokoak) piztu, sortu eta garatzea hartzen ditu barne.

Xede orokorra azaldu eta gero, hauexek dira prozesua gidatuko duten helburuak:

- Ikerkuntza izango diren berariazko testuinguruak eta beraietan lan egin eta laguntzen duten pertsonen hezkuntza praktikak ulertzea.
- Ikastoletan ikerkuntza-prestakuntza barne taldea osatzea. Horrek prestakuntzaren autogestioa helburu duten prozesu teoriko-praktikoak diseinatu eta jarriko ditu abian ikastoletan, garapen instituzional, profesional eta pertsonalaren alde.
- Taldekako gogoeta dinamika eraikitzea. Horrek ikastolen hezkuntza ekintza, bere instituzio estiloa eta prestakuntzaren autogestioaren alde lan egitea izango ditu ardaztat.
- Irakasleek, zuzendaritzakoek, administrazio eta zerbitzuetako langileek, irakasle laguntzaileek eta gurasoek osatzen dituzten taldeen prestakuntza beharrak eza-gutzea.

Ikerkuntza-prestakuntza prozesuaren azken emaitza hurrengo urteetarako prestakuntza ekintza plana sortzeko oinarri nagusia da. Hori bi mailatan zehazten da:

- a) Tokikoa, Ikastolaren beraren testuinguruari dagokiona. Bertan, berariazko beharrak antzematen dira, eta beraz, testuinguru bakoitzaren berezitasunak islatzen dira.
- b) Nazionala edo unibertso osoari dagokiona, parte hartzen duten ikastolen analisiak alderatzetik abiatuta prestakuntza joera orokor handien moduan eraikitzen dena.

4.2. Ikerketa mota

Azterlan kualitatibo honek, alde zehatzetik esan dugun bezala, zenbait ikastolen errealitatea ulertzeaz gain, hezkuntza komunitate bakoitza osatzen duten taldeek (irakasleak, gurasoak, zuzendaritza taldea, irakasleak ez diren langileak) dituzten prestakuntza beharrak antzeman, beraietan sakondu eta ikastoletan garatu beharreko prestakuntza ildoak eskaini nahi ditu. Planteamendu honek, beraz, kausa-ondo-



rio erlazioak bilatu beharrian, hezkuntza errealitate zehatz baten ulertze eta interpretazioan sartu nahi du. Ondorioz, diseinu horretan gauzatzen diren galderek eta tresnek, errealitatearen ezagutze sakonagoa izango badute, errealitate hori ondo aztertu behar dute.

Ikerketa honen tokiz tokiko kokapenak ikastola bakoitza “kasu azterketa” gisa tratatzen eramatean gaitu, zeren zentro bakoitza hartzen baitu aztergaitzat. Horrek zentro bakoitzeko errealitatea ulertu eta interpretatzea dakar, praktika eta hau garatzen den gizarte testuingurua eraldatzeko. Haatik, ikerketaren aztergaia «Euskal Herriko ikastolek taldeen pedagogi prestakuntza beharrak antzematea» da, eta horrek kasu orokorra osatzen du, horren barruan, ikastola bakoitzari dagokion testuingurua aztergai bakartzat hartzen da. Beraz, gurea bost testuinguru desberdinetan gauzatzen den ikerketa orokorra da.

Gure kasuan, zentroko ikerlariak eta ikerlagunek, ikerketa talde nagusian uztartuak, lekuan bertan jarduten dute eta ikastola bakoitzaren eta kasu orokorraren arteko bitartekariak dira. Bitartekariok ikerketaren garapenean betetzen duten eginkizun erabakigarriak ez ikerketaren diseinua soilik, baizik eta ikerketaren planteamendu teorikoa berarekin ere ados izatea derrigortzen du. Era berean, ikerketaren subjektu eta objektu bilakatzen dira.

4.3. Engaiatutako ikastolak: lanarekiko konpromisoa

Ikastolak hautatzeko Ikastolen Elkarte/Partaideko arduradunek proiektua aurkeztu diete zentroetako arduradunei. Lehenengo bilera orokorra egin eta zentroetan galdetu eta eztabaidatu eta gero, bost ikastolek erabaki dute beren borondatez ikerketan parte hartzea; hauek, ikerketak barne hartzen dituen ekintza guztien garapenerako konpromisoa hartu dute. Ikastola hauek bereizgarriak dituzte kokatuta dauden inguruneen, hartzen dituzten hezkuntza aroen eta familien eta ikasleen izaeraren arabera.

Une honetan, garatzen dituzten hezkuntza aroak ezezik, bertan dauden eta ikerketa honek mugiarazi dituen hezkuntza eragileen kopurua nabarmendu nahi ditugu. Hauexek dira, hain zuzen ere:

A Ikastola

- 2-12 urte bitarteko hezkuntza aroa garatzen du.
- 306 pertsonako ikasle kopurua hartzen du.

- 18 irakasle eta irakasle ez diren 18 pertsona ditu plantilan (hauetatik 16 azpikontratatuak dira).

B Ikastola

- 2-18 urte bitarteko hezkuntza aroa garatzen du.
- 288 pertsonako ikasle kopurua hartzen du.
- 29 irakasle eta irakasle ez diren 4 pertsona ditu plantilan.

C Ikastola

- 0-18 urte bitarteko hezkuntza aroa garatzen du.
- 756 pertsonako ikasle kopurua hartzen du.
- 56 irakasle eta irakasle ez diren 7 pertsona ditu plantilan (denak azpikontratatuak).

D Ikastola

- 0-18 urte bitarteko hezkuntza aroa garatzen du.
- 1000 pertsonako ikasle kopurua hartzen du.
- 73 irakasle eta irakasle ez diren 5 pertsona ditu plantilan.

E Ikastola

- 2-16 urte bitarteko hezkuntza aroa garatzen du.
- 959 pertsonako ikasle kopurua hartzen du.
- 68 irakasle eta irakasle ez diren 4 pertsona ditu plantilan.

4.4. Ikerlariak: zeregin eta funtzioak

Ikerketa honetan parte hartzen duten ikerlariak hezkuntza testuinguru eta lanbide kultur desberdinetan jarduten dute eta, era berean, funtzio desberdinak betetzen dituzte azterlanaren barruan. Horrela, talde mistoa dugu (Ikastolen Elkarte/Partaideko hiru ikerlari eta Euskal Herriko Unibertsitateko hiru ikerlari), zentroko bost



ikerlari (azterlanarekin engaiatutako ikastoletakoak) eta bost ikerlagun (ikastoletatik eta beste lan hezkuntza testuinguru batzuetatik datozenak). Diseinuaren lehenengo maila egitea talde mistoari dagokio; hau, parte hartzen duten ikastolekin harremanetan jartzean, ikerlari talde berri batekin (zentrokoak eta laguntzaileak) hasten da ikerketa prozesua garatzen. Zentroko ikerlariak eta ikerlari laguntzaileak aldi berean jarduten dute ikastoletan eta ikerketa talde zabalean (hamasei ikerlariz osatua).

Gradualki irekitzen doan egituraketa horrek, alde batetik, ikastola bakoitzaren kasu azterketa eraiki du, beti ere ikastola guztien ingurunean egiaztatuz; bestetik, talde mistoari metodologi prozesuaz eta kasu azterketaren beraren analisisiaz gogoeta egin eta teorizatzeko aukera eman dio.

Jarraian zehazten ditugu ikerlariak, kasu azterketa espezifikoen eta globalaren eraikitzeari dagokionez, bete beharreko zereginik adierazgarrienak.

Talde mistoaren funtzioak

- Ikerketaren diseinuaren lehenengo maila egitea.
- Zentroko ikerlariak eta ikerlari laguntzaileak trebatzea.
- Hamabost egunean behin zentroko ikerlari eta ikerlari laguntzaileekin lanaren jarraipen eta kontraste/trukaketa saioak burutzea.
- Zentroko ikerlarien txostenen analisitik abiatuta txosten partzialak landu eta kontrastatzea.
- Informazio globala aztertu eta interpretatzea.
- Azken txostena landu, kontrastatu eta komunikatzea.

Zentroko ikerlarien funtzioak

- Proiektua partaide taldeei aurkeztea.
- Partaide taldeak osatzea.
- Eztabaida taldeak dinamizatzea.
- Lehenengo oharren analisitik abiatuta txosten partzialak egitea.
- Segimendu bileretan parte hartzea.
- Kasu azterketa espezifikoa aztertu eta interpretatzea.

- Partaide talde guztien ordezkariekin hitz egin eta gero, zentroaren beharrak antzemateko azken txostena egitea.
- Hezkuntza Komunitateari azken txostenaren ondorioen berri ematea.

Ikerlari laguntzaileen funtzioak

- Kanpo oharrak jasotzea.
- Kanpo oharrak antolatzea.
- Zentroko ikerlariekin kanpo oharrak kontrastatzea.
- Zentroko ikerlariekin batera txosten partzialak eta ikastolako azken txostena egitea.
- Segimendu bileretan parte hartzea.

4.5. Partaide taldeak

Kolektibo hauek osatzen dituzte partaide taldeak: ikasleek, gurasoek, ez irakasleek, irakasleek eta zuzendaritza taldea.

Nola aukeratu dira partaide talde bakoitzaren berriemaileak?

— Irakasleei dagokienez

Zentroaren ordezkapen erreal izatearren etapa bakoitzeko berriemaileak hautatzen dira. Hauek Klaustroaren barruan aukeratzen dira, irizpide hauen arabera: Haurtzaroa %20, Lehen Hezkuntza %40, Bigarren Hezkuntza %25, Batxilergoa %15 (zientziak eta letrak barne), orientadorea (1) eta irakasle laguntzailea (1). Zentro batek etapa guztiak izan ezean, soberako ehunekoa besteen artean banatzen da irizpide horren arabera.

Eztabaida taldeetan parte hartzen duten irakasleentzat azterlana gehiegizko lana izan ez dadin, barne mekanismoak bilatu dira beraietan parte hartzea errazteko. Partaide talde horrek lau lan saiotan hartzen du parte. Bakoitzaren iraupena, gutxi gorabehera, bi ordukoa izan da.

— Gurasoei dagokienez

Zentro bakoitzak hautatzen du talde honen partaideak aukeratzeko irizpidea. Batzuk Gurasoen Elkartearekin jartzen dira harremanetan, beste batzuk



gutun pertsonala bidaltzen diete gurasoei beren borondatez eztabaida taldeetan parte har dezaten, beste batzuetan zentroan bilera antolatzen dute gurasoei proiektuaren berri eman eta beren partaidetza eskatzeko. Nolanahi ere, hasierako irizpidea da talde bakoitzean, gutxienez, hezkuntza maila bakoitzeko aita-ama batek parte hartzea. Aurreko partaide taldean bezala gurasoak lau aldiz biltzen dira. Saio bakoitzaren iraupena, gutxi gorabehera, ordu eta erdikoa izan da.

— Zuzendaritza taldeari dagokionez

Zuzendaritza taldeko kide guztiek osatzen dute partaide talde hau, eta ikastola bakoitzak zeregin hau burutzeko une egokia aukeratzen du. Zuzendaritza taldeak lau aldiz biltzen dira eta saio bakoitzak, gutxi gorabehera, bi ordu irauten du.

— Administrazioa eta zerbitzuetako langileei eta irakasle laguntzaileei dagokienez

Zuzendari kolektibo honi egindako gonbidapenetik abiatuta osatzen da partaide talde hau. Sektore bakoitzeko partaide bana aukeratzen da. Hauek izan daitezke, orintabide gisa, sektoreak: jangela eta eguerdiko jolastorduak, 0-2 urtekoei laguntza, hezkuntza behar berezikoei laguntza, administrazioa, atezainak, garbiketarak, eskolaz kanpokoak (musika, adierazpena, kirolak, eleaniztasuna, bertsolaritza...).

Edozein modutan, talde honen konplexutasun maila kontutan hartuta (ikastolarekiko duten lan erlazio mota, alegia), bere osatzea oso berezia gertatzen da testuinguru bakoitzean, eta zentro bakoitzak bere egoera zehatzari begira egokituko ditu hemen porposatutako irizpidea. Entzule talde hau lau aldiz biltzen da saio bakoitzaren iraupena ordu eta erdikoa dela, gutxi gorabehera.

— Ikasleak kontraste talde gisa

Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko maila bakoitzeko ordezkariak eta ordezkariordeak osatzen dute partaide talde hau. Hiru aldiz biltzen dira eta bilera bakoitzak ordu eta erdi irauten du, gutxi gorabehera.

Aurreko proposamenetik ondorioztzen denez, bost ikastoletako eztabaida taldeetan 230 hezkuntza eragilek hartu dute parte guztira, eta beraien eztabaidatik sortutako azterketak izango dira ikerketa orokorraren langaiak.

4.6. Azterketa dimentsioak eta gaikako adierazleak

Azterketa dimentsioak partaide taldeek beren praktika aztertzearen gogoetagai izan dituzten gaikako gida handiak dira, hala nola praktika hau sortu eta garatzen den testuingurua.

Dimentsioak hezkuntza erreferente baten oinarri diren puntu teoriko garrantzitsuei dagozkie; erreferente honek errealitatearen analisia zirriborratzea ahalbidetzen du, “izatea”, “izan behar izatea” eta “bien arteko aldea” islatuz, irizpide arrazoitu eta argudiatuz prestakuntza beharrak taxutzeko asmoz.

Ikerketa honetan, eztabaida sortu asmoz¹, azterketa dimentsio eta gaikako adierazle hauek erabili ditugu:

- *Ikastola-gizartea fluxua*: urruneko eta gertuko inguruarekiko erlazio mota, ingurunearekiko hezkuntza potentzialtasuna, ingurunearekin harremana duten proiektuak hasi eta sendotzea eta ingurunearekiko erlazioak ikastolan duen eragina.
- *Hezkuntza-berriztapen prozesuak*: berriztapen proiektuak sortzea, berriztapen prozesuen eragina, berriztapen proiektuen gizarteratzea eta etengabeko prestakuntza prozesuak.
- *Hezkuntza Komunitatea*: hezkuntza proiektuaren eraikitzea, hezkuntza proiektuaren ezagupena komunitatean, ikastetxeko kolektibo bakoitzetik hezkuntza proiektuan eragiten duten ekintzak.
- *Kudeaketa eta antolaketa*: ikastolaren antolaketa eredia, instituzio giroa, kudeaketa administratibo-ekonomikoaren eta pedagogikoaren ezaugarriak, ikastola bakoitzaren funtzionamendua.
- *Komunikazio prozesuak*: erabakiak hartzeko prozesua, komunikazio fluxua, komunikazio gune eta egiturak, komunikazio prozesuen gidaritzalidergoa.
- *Hezkuntza Ekintza*: hezkuntza ekintzaren kontzeptua, kolektibo bakoitzaren eskuhartze prozesuak eta kolektibo bakoitzaren hezkuntza ekintzaren ebaluazioa.

¹ Aintzat har dezagun eztabaida taldeetan partaide eta ikertzaileen arteko elkarrekintza ahozkoa dela eta ikastetxe horretako kideek, horko partaide zuzen zuzenak diren heinean, beraien errealitateaz duten ideiak azalaztea eta eztabaidatzea dela helburu nagusia. Beraz, ikertzaileen ekinbidea partaideon diskurtsoa ahalik eta zehatzen eta oparoen, ahalik eta zentratuen, ahalik eta sortzaileen izan dadin zuzenduko da.



4.7. Informazioa jasotzeko teknikak eta tresnak

Prozesuan zehar informazio iturri desberdinak erabili dira, une eta funtzio desberdinen arabera. Hona hemen:

- *Dokumentu erregistroa.* Prestakuntza beharrak ikastolen mugimenduaren hezkuntza filosofiaren arabera planteatu behar direnez, bai talde mistoak bai ikerketa talde zabalak egiten duten lanek mugimendu honek bere historian zehar eraiki eta azaldu duena etengabe gogoratzea eskatzen du. Pedagogi Plan Nazionala, Euskal Eskola bezalako dokumentuak, ikastolen antolaketa eta funtzionamenduari buruzko liburua eta testuinguru bakoitzaren (IHP, IIP²...) dokumentu markoak, hala nola landu diren eta egun lantzen ari diren berriztapen proiektuen txostenak, denak aztergaiak dira eta haietara jotzen da behin eta berriz; gainera, haien gainean eraikitzen da azterlanaren egitura teorikoa³.
- *Ikastolen autorretratu.* Ikastolako zuzendariak eta ikerlariek erabiltzen dute tresna hau beste ikastoletako eta talde mistoaren ikerlariekin egiten duten lehenengo bileran. Zentroen errealitatea sakonkiago ezagutzea du xede, proiektuaren aurrean duten abiapuntua eta funtzionamendua; horrela, aukerak, sentimenduak eta balizko berriemaileak zeintzuk diren jakin dezakegu. Era berean, baliagarria da ere eztabaida taldeak eratzeko eta gauzatzen goazen txostenak itzuli eta komunikatzeko lan ordutegiaren barruan une egokienak zeintzuk diren jakiteko.
- *Autotxostenak.* Tresna hau proiektuaren hartzaileei eta proiektua ikastolako kolektibo desberdinei aurkeztu behar dien pertsoneri (zentroko ikerlariei eta zuzendariari) dagokie. Bere helburua da proiektua nola aurkeztu den, ikastola bakoitzean komunikazio prozesua nola burutu den eta horrek talde bakoitzean duen harrera ezagutzea.
- *Testuinguruaren analisirako gida.* Zentroko ikerlariek erabiltzen dute tresna hau ikerketa talde zabalarekin batera. Ikastolaren ezaugarriak eta beste ikastolekiko bereizgarriak ezagutu nahi ditu. Galdera honi erantzuten dio: nortzuk gara? eta, zein da gure nortasuna?

² Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua eta Ikastetxearen Ikasketa Proiektua.

³ Kasu honetan ikastoletan eginiko ikerketa den neurrian, haiei dagozkien dokumentuak erabili ditugu, jakina. Dena den tresna honen barruan datzana beste zera da: edozein ikerketa lanak bere oinarrian testuinguru jakin batean eraiki den hori hartu behar duela kontuan, hau da, ezin dela ezer eraiki aurretik eginiko bideari so egin eta horretaz baliatu gabe. Hezkuntza errealitate guztiak badute, izan, historia bat, metatutako esperientzia bat, zenbait dokumentu garrantzitsutan jaso ohi dena. Hori aztertzea eta egin beharreko bidearen mugari izatea ezinbestekoa du ikerketa planteamentuak.

- *Eztabaida taldeak*. Gure aukera teorikoan adierazi dugun bezala, ikerketa hau paradigma kritiko batean kokatzen dugu; honek komunikazio ekintza du oinarrian, hau da, guztien ongia lortzearren banakako eta talde hausnarketaren garapena. Planteamendu honen arabera, partaide taldeek ikerketaren «objektuak» izatetik «subjektuak» izatera igaro behar dute, eta metodologi prozesuak berak printzipio honekiko koherentziaz jokatu behar du. Horregatik eztabaida taldea aukeratu dugu partaide taldeekin lan egiteko teknika gisa. Zentroko ikerlariak eta ikerlari laguntzaileak «lagunduko» diete talde horiei azterketa dimentsioei buruzko gogoetan. Eztabaida taldeok, gaiari buruz eztabaidatzeaz gain, adostutako ondorioak atera behar dituzte, hala nola saio bakoitzean egindako analisitik ondorioztatzen diren beharrak azaldu.
- *Kanpo oharrak*. Lan jardueren jasoketa idatzia da. Gure kasuan honakoetan erabili izan da: talde mistoaren asteroko lan saioetan eta partaide taldeekiko lan saio guztietan (ikerlari laguntzaileak jasotzen dituzte proiektua partaide taldeei aurkeztean, eztabaida taldeetan eta itzultze saioetan).

Kanpo oharrak lan taldeek ematen dutenaren harian biltzen dira, eta gero berriz irakurri eta aztertzen dira, berreraiki asmoz. Kanpo oharrak, beraz, diskurtsoetik sortzen doazen irizpide analitiko edo teorikoetatik abiatuta berregiten dira; irizpideok, gainera, dagokien errealitatearen analisisan hausnartu eta sakontzeko gakoak ematen dizkigute. Beraz, kanpo oharrak tokian tokiko datu gordinak diren bitartean, berreraikuntzak lan saio batean gertatutakoaren azterketa sistematikoagoa izango lirateke.

Azkenik, esan beharra dago kanpo oharren berreraikitzeak, sorburu duten taldean egiaztatu eta gero, ikerketaren dokumentu bihurtzen direla. Hau dagokie bai talde mistoari bai ikastoletako ikerlariari; lehenengoak prozesuari buruzko ohar gisa erabiltzen ditu, ikastoletako ikerlariak ikerketaren txosten partzial bihurtzen dituzten bitartean.

- *Grabazioak audioan*. Partaide taldeekin egiten diren lan saio guztiak audioan grabatzen dira beren ondorengo analisia erraztearren.
- *Txosten partzialak*, zentroko ikerlarien eta ikerlari laguntzaileek eginak. Ikastola bakoitzak eztabaida taldeen saioen txosten narratiboa egin behar du, azterketa dimentsio bakoitzari dagokionez. Horretarako kanpo oharrez eta horien sistematizazioaz baliatzen dira⁴.

⁴ Gure praktikan kanpo oharren berreraikuntzak txosten partzialak izan dira, nahiz eta hasierako asmoan azkenengo honi diskurtsoaren analisisaz gain eztabaida taldeen abantail, zailtasun eta ekarpenak bildu nahi izan genuen. Zergatik? Gure helburuak ikerkuntzari bai, baina prestakuntzari ere arreta jarri nahi diolako, eta eztabaida taldearen “gidariak”, hau da zentroko ikertzailea eta iker lagunak, ikertzen ari eta ikertzen ikasten ari diren pertsonak direlako. Ikertzen ikasteari, kasu honetan eztabaida taldearen prozedurari, arreta jartzeak prestakuntzari begirako balio handia du ikasten dagoenari “ohartzen” eta bide berriak begiztatzen laguntzen baitio.



- *Itzultze txosten partzialak*, talde mistoak eginak. Dimentsio bakoitzari buruz ikastola bakoitzean egiten diren txosten partzialak, itzuli egiten dira egin ahala, prozesuari feedback eman eta informazioaren kodifikazioari hasiera emateko.

Itzultze txosten partzialok eskema honen arabera egiten dira:

- Txosten narratiboaren edukien kodifikazioa, azterketa dimentsioen adierazleen irizpidetik abiatuta.
- Aztertu gabe gelditu diren adierazleak adieraztea.
- Argitzeko galderak. Narrazioan tarte nahasiak, ulergaitzak, edota inplizituak ezkututzen dituztenak agertzen direnean, horiek argitu nahi dituzten galderak dira. Ilun agertzen diren narrazio puntuak argitu nahi dituzte, beraz.
- Teorizazio galderak. Narrazioaren harian, galdera horiek eztabaidagaiari buruzko hezkuntza teoria hausnartu eta eraikitzea dute xede. Heziketa tresna nahi dute izan, bai ikerlariei ikerketaren eztabaida taldeen gidaritzan bai etorkizuneko ikastolaren prestakuntza ekintzarako langai gisa lagunduz.
- Narrazio testuaren irakurketatik ondorioztatu diren behar esplizitu eta ez-esplizituak.
- Prozedurak.

4.8. Informazioaren tratamendua eta azterketa

Informazioa aztertzeke prozesua oso dinamiko eta sortzailea da eta ziklikoki eta sistematikoki garatzen da. Gainera, ikerketaren objektuari dagozkion zenbait datu aukeratu, kategorizatu, alderatu, sintetizatu eta interpretatzea dakar berekin. Azterketan zehar iker-objektuaren ulerkuntza sakonago bat lortzen ahalegintzen gara.

Informazioa biltzeko tresnak aipatzean aurrez azaldu dugun bezala, behin ikastola bakoitzak eztabaida talde bakoitzaren kanpo oharren berreraikitzea idatzi duenean, talde mistoak ikastola bakoitzari itzultze txosten partzialak egiten dizkio aztertzen doazen dimentsio guztietan. Horretarako erabiltzen duen protokoloa baliagarria da bai dimentsioen eta gaikako adierazleen irizpidearen arabera lehenengo kodifikazioa egiteko, bai zentroko ikerlariak eta ikerlari laguntzaileak berrelikatzeke.

Eztabaida taldeei dagozkien lan urrats guztiak amaitzen direnean, hau da, landa lana amaitu eta gero, talde mistoak erabiltzen ditu itzultze txosten partzialak edukia lehenbiziko aldiz moldeatzeko (edukiaren lehenengo hustuketa). Horretarako, dimentsio eta ikastola guztietako informazio kodifikatu osoaz eta beren behar esplizitu eta inplizitu guztiez landugabeko dokumentu handiak prestatzen dira. Interpretazio irakurketa egiten da dimentsio bakoitza partaide talde eta ikastola guztiak agertzen diren unitatetzat aztertuz.

Eduki kodifikatuaren irakurketa hori ikerketa prozesuan landutako marko teoriko baten arabera egiten da. Marko horretan hezkuntza, prestakuntza, ikastola, hezkuntza eragileak eta antzeko kontzeptuak zehazten dira; gainera, beharrak helburuaren arabera zehazteko bidea ematen digu, hau da, hezkuntza beharrak dira, argi eta garbi definitu eta adierazi den hezkuntza proiektu baten barruan⁵.

Dinamika analitiko hau abian jartzeko subjektuen eta tresnen triangulaketa teknikak erabiltzen ditugu; hauek azterketaren sinesgarritasuna bermatzen dute.

Interpretazio lanaren zama talde mistoaren esku gelditzen da, interpretazio txosten orokorrean gauzatuz, eta hau talde zabalean egiaztatzen da onartu edota osatzeko, behinbetiko interpretazio dokumentua lortu arte.

4.9. Ikerketa faseak ikastola bakoitzaren testuinguruan

Ikastoletako taldeen prestakuntza beharren diagnostikoa egiteak kasu partikular bakoitza orokorrarekin etengabe uztartzea eskatzen du. Beraz, bi elementuok elkarri lotuta eta erlazionatuta agertzen dira beti, bai diseinu mailan bai diseinuaren garapen mailan. Puntu honetan ikerketak ikastola bakoitzean garatzen dituen lau faseak deskribatuko ditugu.

⁵ Hau funtsezkoa da ikerketaren koherentziari begira. Izan ere, nahiko ohikoa izaten da gure inguruetan prestakuntza beharrak definitzea zeren arabera definitzen diren argitu gabe, hau da, hezkuntzaren zein kontzeptuk gidatzen duen behar hori, eta honek benetako garapena galarazten duelakoan gaude gu. Hezkuntza intentziosko ekintza da, balioek zeharkatua, beraz politikoa; beste modu batez esanda, hezi dezakegu balio batzuen alde eta beste batzuen aurka, eta zilegia da, baina baldin eta esplizitatzen bada. Argiztapen hori ez dagoenean, hezkuntzan hau eta beste egin baina helmugak argi ikusi gabe, aktibismoaren aurrean gaudela esan genezake... eta guk irakasle-ikertzaile gogoetatsu eta autonomoen alde egiten dugu, pedagogia kritikoak proposatu bezala.



Lehenengo fasea: ikerketa taldea zabaldu (talde zabala) eta taldeekin (partaide taldeak) harremanetan jarri

- a) Zuzendariei, zentroko ikerlariei eta ikerlari laguntzaileei azterlana aurkeztu. Aurkezpenaren bidez ikerketa talde mistoa azterlanarekin engaiatutako ikastoletan prozesua abian jarri behar duten gainontzeko ikerlariekin harremanetan jarri nahi dugu.

Ikastoletako zuzendariak lehenengo bilera honetan egon behar dute proiektua sakonean ezagutzeko, eta modu horretan ikerlariak zentroetan garatu beharreko lanean lagundu ahal izateko. Arrazoia taktikoa da, zuzendaritzaren ageriko konpromisua baitakar, beraz legitimotasuna eta ikerketan laguntzeko inplikazioa.

- b) Zentroko ikerlarien eta ikerlari laguntzaileen prestakuntza. Ikerlariak proiektua ikastoletan martxan jarri baino lehenago bi prestakuntza saio burutuko dira, eta haietan ekintzara pasatzeko trebatuko zaie, lan taldea finkatzen dugun bitartean. Hau da guk “ikerketa taldearen zabaltzea” edo ikerketa talde zabalaren prestakuntza moduan ezagutzen duguna.
- c) Hasierako prestakuntzarekin batera proiektua garatzeko giro egokia bilatuko da. Zentzu horretan, zentroko ikerlariak eta zuzendariak proiektua aurkeztu behar diete partaide talde guztiei.

Nola deitzen zaie partaide taldeei?

- Irakasleei klaustroaren bidez.
- Zuzendaritza taldearen kasuan, aparteko bilera baten bidez.
- Gurasoei dagokienez, ikastola bakoitzean zehaztuko da.
- Administrazio eta zerbitzuetako langileekin, taldearen aniztasuna kontutan hartuta, bilerarako unea adostuko da.
- Ikasleek osatzen dute egiaztatze/kontraste taldea, eta kasu horretan zuzendariak eta zentroko ikerlariak derrigorrezko bigarren hezkuntzako tutore, ordezkari eta ordezkariordeei aurkezten diete proiektua. Ondoren, ordezkariak eta ordezkariordeak lan horren berri ematen diete gainontzeko ikaskideei, eta haiengandik behar dena azaldu.

Bigarren fasea: partaide talde bakoitzaren berriemaileen hautaketa

Gehienez hogeit hamar pertsonaz osatuta daude eztabaida taldeak. Berriemailearen soslai ikastolaren errealitatea maila guztietan ondo ezagutu behar duen eta errealitate horren aniztasuna ondo adierazten duen pertsonarena da.

Hirugarren fasea: Eztabaida taldeen sortzea eta dinamika

Eztabaida taldea aurrez aipatu ditugun azterketa dimentsio hauen gainean eratzen da: ikastola-gizartea fluxua; hezkuntza berriztapen proiektuak; hezkuntza komunitatea; talde bakoitzaren kudeaketa eta antolaketa; komunikazio prozesuak eta hezkuntza ekintza.

Eztabaida taldeetan jarraitu beharreko estrategia honela antolatu da:

- Dimentsioei buruzko azterketa irekia.
- Ikerlari laguntzaileak azterketaren ondorioak ateratzen ditu.
- Ondorio bakoitzetik prestakuntza beharrak eta haiei aurre egiteko prestakuntza modalitateak.

Saio bakoitzean bi dimentsio lantzen dira, lau plano desberdinetatik aztertuta:

- Nola ikusten dut geure kolektiboa (izatearen azterketa)
- Nola ikusten ditut beste kolektiboak?
- Nola ikusi nahi nuke geure kolektiboak?
- Nola ikusi nahi nituzke besteak?

Protokolo horren arabera dimentsio guztiak aztertu eta gero, itzultze saioa burutzen da, eta bertan, aurreko saioetan antzeman dena oinarritzat hartuta, beharrak lehenesten dira.

Laugarren fasea: Txosten partzialak lantzea

Prozesuaren berreraikuntzak dira partaide talde desberdinei dagozkien txosten partzialen muina. Berreraikuntza horiek deskribatutako tresnen bidez jasotako informazioaz egiten dira. Ikerlari laguntzaileari dagokio kanpo ohar horiek erregistratzea; oharrak zentroko ikerlariarekin batera egiaztatu eta berreraikitzeari begira idazten dira.

Txosten partzial hauek, ekoiztu ahala, talde mistoaren eskuetara heltzen doaz. Behin talde mistoan daudela, azterketa dimentsio eta gaikako adierazleen arabera ko kategori sistemari jarraituz ikuskatu, aztertu eta kodifikatu egiten dira, itzultze txosten partzialak gauzatuz.

Itzultze txosten partzial hauek, lehenago esan bezala, datutzat hartzen dira, bai zentroko ikertzaileek kasu bakoitzaren azterketa egiteko bai kasu globalaren interpretazioa formulatu ahal izateko.



Bostgarren fasea: ikerketaren komunikazioa partaide taldeei

Ikerkuntza kualitatiboaren planteamentuak behinbetiko txostena egitearekin ez da amaitzen, zeren haruntzako joan eta ikerketaren komunikazio horizontalerako espazioak eraitzea bilazten baitu. Komunikazio estrategiak dira, beraz, ikerkuntza partehartzaitetik koherentzia gauzatzeko modua, baina baita etorkizuneko prestakuntza prozesuei ekiteko ezinbesteko urratsa ere.



5. Prozesua eraikiz

Ikerketaren diseinuak ikastoletan praktikan jartzeko aurreikusten den metodologi estrategia osoa azaltzen duen bitartean, jarraian aurkezten dugun atalak bere konplexutasunean xehatzen du prozesua, oraingo honetan bere azken momentutik begiratuta.

*Modu horretan, ikerkuntza-prestakuntza maila guztiak (zirkulu zentruki-deak) garatuko ditugu; haiek, eraikitzen joan diren eta elkarri lotuta dauden ekintzak ulertarazteaz gain, binomio horren indarraren eta esanahia-
ren berri ematen digute.*

Aurrekoan bezala, atal ezberdinez osaturik dago:

- *Talde mistoa: ikerkuntza-prestakuntzarako behin behineko zirkulua*
- *Ikerkuntza-prestakuntzarako bigarren zirkulua: ikerketa talde zabala*
 - *Talde zabalaren ikerlarien prestakuntza*
 - *Ikerketaren gainbegiratzea talde zabalean*
 - *Interpretazioa eta bere kontrastea*
 - *Ikerketa bere protagonistei itzuli edo komunikatu*
 - *Talde mistotik zabalera doan komunikazio prozesua*
 - *Talde zabaletik ikastoletara*
- *Ikerkuntza-prestakuntzarako hirugarren zirkulua: partaide taldeen dinamizazioa*
 - *Lehenengo unea: ikerketa ulertzen*
 - *Bigarren unea: ikerketaren martxan jartze eta gizarteratzea.*
 - *Hirugarren unea: ikerketa banatzen. Aurrera eginez.*

Ikerketa hau egiteko hautatu dugun metodologiak ideia hauxe du oinarrian: ikastola bakoitzak, duen giza eta materialazko potentzialaz baliatuta, prestakuntza beharrak antzemateko berezko ildo iraunkorra eraiki behar du, eta haiei aurre egiteko modurik egokiena kudeatu. Zalantzarik gabe, prestakuntzaren autogestioa sendotzen lagunduko duen ikerkuntza-prestakuntza prozesua hautatzea da planteamendu honek duen alderik azpimarragarriena. Baieztapen honek, laburra izanda ere, beharrak antzemateko prozesua burutzeko orduan eragin nabariak, izan, baditu.

Tradizio enpiristenaren arabera, ikerketa adituen lana da; haiek bere iker-objektura hurbildu -ikastoletara, gure kasuan-, aktoreei galdetu eta eskuratutako datuen argitan ondorioak atera eta azaltzen dituzte. Gu kokatzen garen hautu kritikoak, aldiz, historikoki kokatutako errealitatetzat hartzen ditu hezkuntza eta bere adierazpen guztiak, in situ pentsatu, ikertu eta teorizatu behar diren errealitatetzat, hain zuzen ere, ikuspegi estatikoetatik urruti. Hautu kritikoaren arabera, gainera, hezkuntza eragileek berek ikertu behar dute beren errealitatea, errealitate hori ondoen ezagutzen dutenak direlakoan. Teoriaren eta praktikaren arteko dialektikaren eta ikerketaren horizontaltasun zentzuaren ideietatik abiatuta, azterlanaren «objektuak» subjektu bihurtzen dira, eta haiek autoaztertzen dira elkar hobeto ezagutu eta eraldatzeko. Subjektuak, beraz, ikertu ahala prestatzen dira, eta prestatu ahala ikertzen jarraitu behar dute.

Kezka hori dela eta, prozesua denboran luzetara sortzen diren ikerkuntza-prestakuntza zirkulu zentrukidez eraiki da. Zirkuluak gune zehatzak dira, zeintzuetan ikerkuntza-prestakuntza maila jakin baten itxuratzea gertatzen baita; maila horiek elkarri lotzen dira prozesuan aurrera joan ahala. Mailakako planteamendu horrek ikerketaren demokratizazioranzko irekiera etengabea ikustea ahalbidetzen digu: talde mistotik talde zabalerako eta partaide taldeetarako sekuentzia. Zirkuluok, gainera, irudi bikoitza ematen digute: finko bat, une bakoitzean burutzen diren ekintza guztiak islatzen dituen eta, aldi berean, beste bat mugimenduan, ekintzak, uneak eta pertsonak elkarren artean lotzetik prozesu orokorra (ikerketari berari eta testuinguruei dagokienez) ulertzen joateko aukera ematen diguna. Horri guztiari esker, instituzio garapenaz hitz egin dezakegu.

Zeintzuk dira zirkulu horiek?

Sortzen den lehenengo zirkulua talde mistoari dagokio eta, lehenago aipatu bezala, X Erakundeko hiru kidek eta UPV/EHUko hiru irakaslek osatzen dute. Ikerketaren lehenengo eragilea da eta abian jartzen da ikastolen eguneko errealitatea eta planteatutako ikuspegi teoriko eta metodologikoa uztartuko dituen diseinu bat gauzatzeko. Proiektuaren lehenengo fasean, diseinuko hasierako fasean, talde gisa finkatzen dira, baina beren ikerkuntza-prestakuntza lanak norabide berria hartzen du zuzenean ikastoletako ikerlariekin lanean hasten direnean.



Bigarren zirkuluak ikerketa talde zabala biltzen du, eta talde mistoak eta ikastola bakoitzeko zentroko ikerlariak eta ikerlari laguntzaileak osatzen dute; horiek guztiek, beste zenbait funtzioaren artean, landa lana burutzen dute. Hamasei pertsonaz osatutako bigarren zirkulu horrek hasierako diseinua errealitate jakinetan kokatzen du eta horregatik ematen dio aberastasun eta zentzua. Zirkulukideek aldatetako eta egokitzapenak ekartzen dituzte, eta horrela ikerketa bere egin eta ikastola barruan onartzen dute.


Lau multzo handitan labur daitezke ikerketa talde zabal horrek burutzen dituen ekintzak:

- Zentroko ikerlarien eta ikerlari laguntzaileen prestakuntza.
- Ikastola guztietan ikerketa prozesuaren martxan jartzeari eta garapenari buruzko gainbegiraketa edo talde lana.
- Azken interpretazioaren eta beharren lehentasunen kontrastea.
- Ikerketa ikastolei itzultzearen prestatzea; hau da, ikerketa, aztertua eta berrinterpretatua, bere benetako jabeak itzultzeko prozesua prestatzea; haiek egiazta-tu eta ondoren gizarteratzeko bidean jar dezaten.

Azken zirkulu handiak eztabaida taldeetan jarduten duten ikastoletako talde guztien partehartzaileak hartzen ditu barne, zentroko ikerlari eta ikerlari laguntzaileak gidatuta eta dinamizatuta. Ikerketak, une honetan, batz besteko ikastolako berrogeita hamar partehartzaile duenez, bere dimentsiorik handiena lortzen du. Partehartzaile horietako bakoitzak zortzi orduz eztabaidatzen du, batz beste, dagokion taldean. Sarea zabaldu eta honek berezko ahotsa eta pentsamendua hartzen duen unea da, beraz.

Argi dago zirkuluak estu lotuta daudela, eta ikerketa osoan zehar ideiei eta proposamenei buruzko etengabeko gogoeta eta berradieraztea ahalbidetu dutela. Prozesu konplexu, dimentsioanitzak dira, nolabait esateko, testu idatzian nekez azal daitezkeenak. Haatik, txosten horretan luzetara aztertuko ditugu. Hau da jarraituko dugun ordena: lehenbizi, talde mistoaren lana aztertu; ondoren, ikerketa talde zabalaren lanari heldu eta, azkenik, txostenari. Horren atzean azken zirkulua dago: ikastolei buruz mintzatzen diren eta beraz partaide taldeei dagokien ahotsena. Prozesua ulertzen lagundu asmoz, irudi honen bidez irudikatzen dugu.

1. Grafikoa: *Ikerkuntza-prestakuntza estrategia: zirkulu zentrukideak*



5.1. Talde mistoa: ikerkuntza-prestakuntzarako behin behineko zirkulua

Aurrez azaldu dugun bezala, UPV/EHUko eta Ikastolen Elkarte/Partaideko pertsonak osatzen duten talde mistoa ikerketa horri zuzenean ekiten dion lehenengo lan taldea da. Ikerketa zehazki definitzea proposatzen dio bere buruari, parametro orokor batzuen barruan. Ikerketa hau Hobetuz-en aurkeztu zen, enpresaren munduari zuzendutako etengabeko prestakuntza deialdi baten barruan, eta bertan ezarri ziren parametro horiek.



Talde mistoak asteko saioetan lan egin zuen. Horietan kanpo oharrak hartu ziren, eta haiek oinarri moduan erabili, bai jarraitutako prozesuaren berreraikitzeako bai ikerketaren euskarriak diren lan material teorikoak egiteko. Talde mistoak lehenengo fase honetan egindako materialaren azterketak beren lanak izan zituen bi ardatzen berri ematen digute: ikerketaren testuinguruarekiko hurbiltzea eta guztien hizkuntza komuna bilatzea. Biek ikerketaren eta bere eraikitzearen kontzeptuzko eta prozedurazko definizioa errazten dute. Talde mistoaren barruan ematen den gogoeta gero eta partituagoa eta elkartuagoa den heinean, bi ardatz horiek, nahiz eta jatorri desberdinekoak izan, bat egiten dute pixkanaka.

Ikerketaren testuinguruarekiko hurbiltzeari dagokionez, ikastoletako partaideen ekarpena eta gogoetak funtsezkoak gertatu ziren. Taldeak ikerketa demandaren, ikerketa sustatzen zuten kezken, bai ikastolei bai beren prestakuntza teknikariei eskatzen zizkien konpromisoen, harengatik espero zenaren... horien guztien atzean sakondu beharra zuen. Beharrezkoa zen ideia guzti horiek aztertu eta argitzea murgildu behar ginen esparrua hobeto ulertzearen. Informazioaren gizarteratzea, konpromiso etiko esplizitu batekin batera, aurrerapauso aberasgarri eta erabakigarria izan zen une horretan. Gainera, testuingurura hurbiltzeak ikerketaren diseinuari buruzko erabaki pensatu eta neurtuak hartzea ahalbidetu zion talde mistoari; erabakiok, gainera, bai hezkuntzaren teoriaren bai ikastolen errealitatearen hurbileko eta esperientziako ezagutza zutenen pertzepzio eta intuizioen argitan baloratu ziren.

Horrekin batera, guztien hizkuntza komuna bilatzea erabaki genuen, lan zaila benetan, ikerketa kualitatiboak zein konplexuak diren kontutan hartzen badugu; izan ere, hauek honako helburuok dituen galderazko bide batean sartzea eskatzen dute: ideiak eta jarrerak argitzea eta taldearen barruan komunikazio prozesua erraztea. Beraz, balizko urrats metodologiko guztiak, beren zentzua, beren alde on eta txarrak aztertzeari eta, batez ere, ideologia argitzeari ekin genion. Ideologi mailako argitze hori beharrezkoa zen, bai hezkuntzaren teoriari bai ikastolek beren beharrak definitu aurretik kontutan hartu behar dituzten hautu teorikoei begira.

Ideologia argitzea, egin diren dokumentuen arabera, talde mistoaren lanaren mugarria da. Beharren diagnostikoak zera eskatzen du: zergatik sentitzen dugun zerbaiten beharra erabakitzea, behar horiek dugun eta eraiki nahi dugun ikastola ereduarekin bateratzea eta behar horiek ikastola bakoitzaren eta ikastolen mugimenduen pretakuntza politikaren bidez antolatzea. Ikerketaren sostengu teorikoen bilatze horretan, talde mistoak Ikastolaren Mugimenduaren beraren honako dokumentuon azterketari ekin zion hasiera batean: «Ikastolaren kudeaketa eta funtzionamendua» (1985), «Ikastola, Izaera eta egitura» (1987-88), «Euskal Eskola» (1991) eta «Pedagogia Plan Nazionala» (1997).

Dokumentuen azterketak, ordea, zenbait ideia ekarri arren, ez zuen lagundu ikastolek duten hezkuntzaren kontzeptua argitzen. Guk, gainera, aurrera joan ahala, ezinbestekoa genuen kontzeptu hori zehaztea. Egoera horretan, talde mistoak, lanaren zailtasuna onartuta, kontzeptu teoriko horien eraikitzeari eta definitzeari heltzea

erabaki zuen. Une honetan, ikerketaren amaierak ematen digun ikuspegitik, pauso egokia izan zela uste dugu.

Guztien hizkuntza komuna bilatzea eta proiektuaren ideologiaren argitzea lan nekezak bihurtu ziren. Alde batetik testu teorikoetan (W.Carr, S. Grundy, J. Contreras) sakontzea eskatu zuen, eta ondoren, testuon sintesia ikastolen dokumentu publikoetatik ateratako ondorioen aldean jarri. Azken emaitza zenbait kontzepturen definizioa da. Jarraian aurkezten ditugu, irakurleari buruturiko metodologi prozesuaren hainbat gako ulertzeko modua emango diotelakoan.

- **HEZKUNTZA:** Pertsonaren garapen eta hobetze prozesua, besteekiko elkarrekintzan, zeinak bere autoerrealizazioa eta euskal gizartearekiko eta kulturarekiko, eta beste hainbat gizarte eta kulturekiko, bere konpromiso kritikoa, eraginkor eta arduratsua errazten duen⁶.
- **IKASTOLA:** Heziketa instituzio euskalduna da, herri mugimendu sozial batetik sortua, autogestio maila handia duena eta euskararen eta euskal kulturaren garapenarekin konprometitua; bertan parte hartzen dute, ardurakidetsuki, bere kide guztiek hala nola berak aintzakotzat hartzen dituen beste pertsonen zein entitateek.

Hezkuntza eta ikastola kontzeptuak zutabe nagusiak izan ziren ikastolan parte hartzen duten eragileen definizioak eraikitze bidean. Metodologi prozesuen partaide taldeak diren eragile horien definizioak beraiek bai teori mailan bai ikertze praktikan kokatzea ahalbidetu zigun, modu horretan hezkuntza fenomenoarekiko duten erlazioa agerian utziz. Honako definiziook adostu ziren.

- **IKASLEAK:** Ikasleak bere hezkuntza prozesuaren protagonistak dira, eta prozesu hori itxuratzeko ardura dute, hezkuntza eta gizarte elkartearen gainontzeko eragileekin batera.
- **GURASOAK:** Gurasoek, beren seme-alabentzat hezkuntza prozesu koherentea erraztu ezezik, ikastolaren hezkuntza proiektuaren garapena lagundu behar dute, beren partehartze eraginkor eta konstruktiboaren bidez.
- **EZ-IRAKASLEAK:** Hezkuntza eragileok, egiten dituzten lanen ezaugarriak direla eta (administrazioa eta zerbitzuak, irakasleen laguntzaileak) ikastolaren hezkuntza proiektuaren garapena laguntzen dute.
- **IRAKASLEAK:** Eragileok gela barruko hezkuntza ekintzaren zuzeneko ardura-dunak dira, eta, hezkuntza elkartearen beste partaideekin batera, ikastolaren hezkuntza proiektuaren garapenaren ardura dute.

Azken definizio multzoak ikerketaren adierazpen orokorra eman nahi zuen, guztien hizkuntza komuna eraikitzearen mesedetan.

- **BEHARRAK:** Beharra banaka edota taldeka sumatzen den kezka da, berekin, alor pertsonal, profesional eta instituzionalei dagokienez, eraikitze eta hobetze dimentsioak ekartzen dituena.



- **PEDAGOGI BEHARRAK:** Hobetzeko gai diren eta hezkuntza proiektuaren garapenaren aldeko prestakuntza ekintzak eskatzen dituzten hezkuntzaren zenbait alderdi dira.
- **BEHARRREN ANTZEMATEA:** Gakoa da behar errealak antzematea, hau da, zentroen errealitatearen barruan aurrera eramán daitezkeela aurreikusten diren beharrak antzematea. Beharrak zentroko beharrei lotuta daude, eta hori guztia ikastola ereduari lotua.
- **PRESTAKUNTZA:** Pertsonen hazkunde eta garapen prozesu batean sartu, trebakuntza eta komunikazioaren bitartez. Horrek taldeen arteko lankidetzak eta berdinen arteko ikastea eskatzen du. Prestakuntza prozesuek ikastolen garapenaren alde lan egitea eskatzen dute, beren kalitatearen hobekuntza lagunduz.
- **PEDAGOGI PRESTAKUNTZA:** Ikastolen eta ikastola bera osatzen duten pertsonen hezkuntza gaitasuna garatzen ezezik, gizarte aldaketak eta gizarte zuzenagoak sortzen laguntzen duten jarduerak guztiak.
- **KOMUNIKAZIOA:** Elkarrekintzan burutzen den eta oinarritzat elkarriketa eta eztabaida dituen ekintza da; era berean, ekintza praktikoen zergatiak eta zertarakoak aztertzen dituen prozesu eta prozedura da.
- **GARAPEN PROFESIONALA:** Lanbidearen barruan etengabeko hazkundera eta eboluzioa kontzeptuei garapena kontzeptua lotzea, alegia, antolaketa eta gizarte mailako testuinguru zehatz baten barruko eguneroko zeregina eta hobetzearekiko konpromisoa.

Egitura teoriko hori planteatzeak koherenteagoa eta sendoagoa izateko baldintza egokiak sortzen lagundu zion talde mistoari ikerketaren ondorengo garapenari begira; horrezaz gain, taldea eratzen zihuan heinean, testuinguruaren ezagutza eza-gupen teoriko eta metodologikoarekin uztartzea ahalbidetu zuen, etengabeko mugimendu dinamikoan. Talde mistoak abiatutako ikerkuntza-prestakuntza zirkuluak definizio horietara eta ikastola partehartzaileei aurkeztu zitzaizkien ikerketaren diseinura garamatza. Horrela, lehenengo zirkulua itxi eta eszenategi berri baterantz abiatzen da, ikerketa talde zabalerantz, hain zuzen ere.

5.2. Ikerkuntza-prestakuntzarako bigarren zirkulua: ikerketa talde zabala

Hasiera batean talde mistoaren zeregin nagusia ikastoletako taldeen prestakuntza beharrak antzemateko diseinua zehaztea zen. Talde zabalaren sortzeak, ordea, ikerketa plan hori errealitate bihurtzea du helburu, landa lana deitzen dena abian jartzea, alegia.

Aurrez aipatu dugun moduan, gure teori eta metodologi planteamenduak hezkuntza fenomenoak «beren barrutik» eta beraietan zuzenean parte hartzen dutenen bidez ikertzea eskatzen du. Zentzu horretan, ikerketa taldea zabaltzeak, ikastoletan jarduten duten pertsonak (zentroko ikerlariak eta ikerlari laguntzaileak) sartuz, errealitatearekiko zuzeneko lotura hori gauzatu nahi du. Bere helburua ez da instrumentalizazioa, egunero testuinguru hauetan bizi direnek ezagutza eragile moduan, eta ondorioz, ikerketaren subjektu gisa autoikusi eta autoeraikitzea baizik. Hori guztiak lan prozesu bat abian jartzea eskatu du; prozesu horretan, ikerlari «adituari» dagokion lana banatu, sozializatu eta demokratizatzen da, eta, aurreko zirkuluan bezala, prestakuntza galdera eta azterketa jarrerren eta trebetasunen garapenari begira dago. Ikerketa ikaste trinkoa bihurtzen da.

Ikerketaren talde zabalean burutu diren prestakuntza eta gainbegiratzea aztertzen hasi baino lehenago, eta prozesuaren ulertzea errazteko asmoz, honako hauek hartu behar ditugu gogoan:

Talde zabalaren sortzeak, bertan ikastoletan ikerlana zuzenean burutzen dutenek eta prozesua modu diferituan bizi dutenek (talde mistoa) bat egiten dutenez, ikerkuntza-prestakuntza gune berri garrantzitsu baten sorrera dakar.

Bigarren zirkulu horren sortzeak, ordea, ez du iluntzen talde mistoaren berariazko lana; horrek bere berezko lan dinamikarekin aurrera segitzen du (asteko bi bilerak), eta prozesuaren bilakaera etengabe aztertzeaz gain proposamenak (arakatze tresnak, argitze teorikoak, prozedurei buruzko gogoetak, itzultze txosten partzialak...) prestatzen ditu. Talde zabalak bere saioetan erabiliko ditu ondoren horiek guztiak eta, era berean, bere errealitatera berregokitu ezezik behin eta berriz eramango ditu praktikara.

Talde zabalaren sortzeak, ezinbestean, ikastoletako kolektiboen eztabaida taldeen sortzea eta dinamizatzea dakar. Bigarren eta hirugarren zirkuluak oso denbora tarte txikian agertzen dira, beraz, eta batera jarduten dute landa lanak irauten duen bitartean. Esan beharra dago ere denborari dagozkion kanpo baldintzek (Hobetuz-en deialdirako epeek) oso modu bizi eta kontzentratuan lan egitea eragin dutela, eta horrek askotan zailtasunak sortarazi dituela.

Hiru zirkuluetan lana batera egiten da. Talde zabala hamabost egunean behin biltzen da. Ikastola bakoitzak bere berezko prozesutik (eztabaida talde bakoitzak idatzitako txosten idatziak eta kezka orokorrak) «ekartzen» duena eta talde mistoak denboraldi berdinean landu duena oinarritzat hartuta, gertatzen ari dena aztertu, baloratu, eztabaidatu eta egiaztatu egiten da bileretan. Topaketa hauetan sortzen den elkarrizketa, bost ordu ingurukoa, bizi eta aberasgarria da, eta ikerketa orokorraren eta kasu bakoitzaren prozesuen garapena nola dagoen jakitea eta horren araberak ekitea ahalbidetzen du zuzenean.

Behin argitze horiek eginda, galdera horiek sortzen dira, nola jartzen da abian talde zabala? nola garatzen du bere lana?



Bigarren zirkulu (talde zabala) horren barruan bi momentu bereizi behar dira. Lehenengo prozesuaren sortze eta kanpo lanaren jarraipenari dagokio, eta bigarrena, interpretazioaren kontrasteari eta prozesua partaide taldeei itzultzeari. Bi momentuen arteko muga ikastolen errealitateari buruzko azterketaren –eztabaida taldeetan garatu dena, hain zuzen ere– bukaeran dago. Puntu horretatik abiatuta, bai interpretazioa (talde mistoaren esku) bai ondorengo egiaztatze eta itzultzea eragiten ditu orokorrean.

Talde zabalaren lehenengo momentuak bi ekintza handi hartzen ditu barne: prestakuntza eta gainbegiratzea. Bi ekintza horien arteko mugak ez daude oso garbi: sortzea talde zabalak landa lana abian jarri baino lehenago egiten duenari dagokio, eta gainbegiratzea landa lanean zehar egiten denari. Jarraian aztertuko ditugu bi ekintza horiek.

5.2.1. Talde zabalaren ikerlarien prestakuntza

Zentroko ikerlarien eta ikerlari laguntzaileen prestakuntzak helburu bikoitza du testuinguru berri honetan: alde batetik, talde mistoan hausnartu eta diseinatu den hautu teorikoa hala nola honek hezkuntzaren eta ikastolaren kontzeptualizazioan dituen inplikazioak ulertu eta onartzea; bestetik, eta bere martxan jartzea errazterren, metodologi prozesua ulertu eta barneratzea. Beste era batera esanda, talde zabala ikerketaren diseinuan jada gauzatu den ereduaren printzipio teoriko eta praktikoez ohartzea, blaitzea bilatzen da.

Bi helburu orokor horiek lortzea, gainera, komunikazioan oinarritutako prozesuaren bidez gauzatzen da. Horrek esan nahi du, beti ere gure hautu teorikoaren arabera, berdinen arteko elkarrizketa laguntzea, etorkizuneko ekintzak arrazoiz argudiatu eta adostea, errealitatearen eta ikerketaren asmoaren ezagutzan sakontzea ahalbidetuko duten galderak egitea, aukera desberdinak aztertzea eta batera hautatzea. Testuinguru orokor horrek, prestakuntzaren eta gainbegiratzearen erreferente gisa, forma zehatzak hartzen ditu prozesuan, alde batetik informazioa biltzeko (Ikastolen autorretraturako gida eta Testuinguruaren azterketarako gida) eta autoazterketarako (Autotxostena)⁶ tresna eta estrategiak, eta bestetik aztergaiak (artikuluen irakurketa...) sortzera bultzatzen gaituzten ekintzak, denboran korapilatzen diren erabakien egitura konplexua osatzen dutenak, hain zuzen ere. Ideia hori azpimarratzea garrantzitsua da gure ustez, prozesuaren indarrak hain zuzen ere ikerketaren eragileek berek eragileenganako azaldu behar duten galderak egiteko eta erantzuz

⁶ Jarraitu dugun prozesuaren ibilbidea desitxura genezakeelakoan, ez gara sail honetan tresna guzti horien esanahi eta asmoaz gehiegi luzatu. Haatik, esanguratsuen iruditu zaizkigun materialak hautatu ditugu eta, bakoitza argibide txiki batez lagundurik, txostenaren azkeneko zatian sartu. Eranskinak saillean ikus: Ikastoletako testuinguruak ezagutu eta ulertzea helburu duten tresnak eta ikastoletako ikerketaren proiektuaren sortzearen eta gizarteratzearen azterketa helburu duten tresnak.

nak bilatzeko jarrera horretan datzala uste baitugu. Sortu ditugun tresna eta prozeduren kopurua handia izanik ere, funtsezkoena zera da, alegia, prozesuaren benetako protagonistak direnak «beraiengandik» eta «beraiantzat» galdetu eta bilatzea.

Gure kasuan zenbait material sortu ditugu, eta haien ganean antolatu da talde zabalaren gogoeta bateratua, eta ondorioz, bere prestakuntza eta garapenerako prozesua. Ikastolei aurkezpen gutuna, adibidez, ikerketaren izaera ulertzeko baina, era berean, ikastoletako partaide taldeentzat ikerketaren aurkezpen eredu gisa izateko erabili zen. Zentzu horretan ere diseinu dokumentua erabili zen, zeinarekin azterketarako proposamen zehatz osoa, alegia, egin beharreko pauso guztien alde on eta txarrak, hala nola talde egiaztatzetik ondorioztatutako aldaketak sakondu eta kontrastatu ziren.

Landa lanean hasi baino lehenagoko dinamika horretan, talde mistoa ikerkuntza-prestakuntza zirkulu horretan beharrezkoak diren tresna eta euskarrien egilea den heinean, alderdi ezberdin biren arteko oreka mantentzen saiatu da une oro: batetik, partaideek defizitariotzat jo edo sentitzen zituzten alderdiak aintzat hartu eta hobetzeari begirako erantzunak eman eta bestetik bai ikerketaren testuinguru zehatzetan bai ikastolen giza taldeetan sumatu diren aukera eta gaitasunei arreta berezia jarri eta eginbeharen alde erabili eta bultzatu. Hautu honi eskolaren testuinguru profesionaletan behintzat funtsezkoa deritzogu, zeren erakundetik kanpoko beste “adituen” menpeko izaten ohituegi baikaude, eta kanporako begiratze zorrotz horretan inguru gertuko potentzialtasunak lausotu eta ilundu egiten dira. Gure ikuspuntutik, ebaluazioak positiboa dena azpimarratu, baloratu eta adierazi egin behar du, prozesuak erraztu baino beroriek oztopa litzaketan gabezietan arreta gehiegi jarri gabe. Ez dugu metodologi mailako trikimailurik bilatzen; aitzitik, honelako proiektu batek aurrera egin badu, tamaina eta denbora mailan izan dituen baldintzetan lan egiteak suposatzen duen porrot arriskuaz ongi jabetuta gaudelarik, ikastola horietako giza taldeen hezkuntza gaitasun izugarriari esker izan delako uste osoa dugu, eta uste horretatik abiatzen da gure lana.

5.2.2. Ikerketaren gainbegiratzea talde zabalean

Aurrez aipatu dugun bezala, zaila gertatzen da ikerketan prestakuntza eta gainbegiratzea bereiztea, bi osagai horiek talde zabalaren prozesu osoan zehar estu loturik eta nahasturik egon dira eta. Haatik, ikastoletan ikerketa proiektua ezagutzeko eta ulertzeko momentuak –talde zabalean prestakuntzarako eta ikastola bakoitzean ikerketaren plangintzarako aroarekin batera gertatzen direnak– eta proiektua gauzatzen duteneko aldiak, ikerketa eta landa lana jada abian jarri dutenetakoak, alegia, argi eta garbi bereiz daitezke. Momentu bakoitzak bere bereizgarriak ditu, bai taldearen psikologi egoerari bai garatzen ari diren zereginari dagozkienean. Gainbegiratzea diseinua abian jartzen den unean bertan hasten da, eta ondorioz, talde zabalaren jarduerak honakoetara helburuok ditu:



- a) Ikerketaren diseinuak ikastoletako partaide talde bakoitzaren errealitatearekiko duen egokitzapena baloratzea.
- b) Informazioaren analisi orekatua egiten laguntzea; bertan, zailtasunak, zailtasun horiek gainditzeko estrategiak, bikaintasunak eta ikastola bakoitzak jarrera eta ezagutza mailan ikerketara ekar ditzakeen guztiak biltzen dira. Modu erreza batean esateko, talde zabala bildu zen aurreko saiotik gertatu denaz hitz egiten da beraz, baina prozesuaren ulertzea erraztuko duten irizpide analitikoak ekarriz. Analisi dinamika hori taldekoa izateak eragin bikoitza dauka: bata, nolabait esateko, terapeutikoa da sentimenduen eta emozio edukien komunikazio eta arrazionalizazioa ahalbidetzen duen heinean; bestea, kognitiboa, ikerketaren eraikitze eta berreraikitze teorikoa ugaltzen du eta.
- c) Txostenak burutzeko ereduak abian jarri eta adostea. Ezin dugu ahaztu partaide taldeekiko lana ez zela eztabaidekin amaitzen; bertan eztabaidatzen zen gutzia, ordea, txosten partzial batean jaso beharra zegoen dimentsio eta partaide talde bakoitzeko. Gainera, guztien ondorioak eta beharrak adierazi behar ziren ere, zegozkien prestakuntza modalitateen arabera. Gainbegiratze saioek kontutan hartu dituzte txosten partzial horiek eta beraietan oinarritu dituzte kasu orokorraren azterketa eta interpretazioa, taldekako prestakuntza beharren diagnostikora daramatzatenak, hain zuzen ere.
- d) Prozesua itzultze txosten partzialen bidez berrelikatzea; beraietan, talde mistoak, ikastolek dimentsio eta partaide taldeko burutzen dituzten txostenetatik abiatuta, irudia itzultzen du sekuentzi honi jarraituz: hitz egin dena, alde batera utzi dena, argitze eta teorizatze galderak, behar esplizitu eta implizituak, eta erabilitako prozedurei dagozkien oharrak.

Prestakuntzan bezala, lan honen ildo nagusia galdera-erantzunen talde-bilaketan oinarritzen da. Sortu diren materialak ikerketaren behar zehatz bati egindako kanpo adierazpentzat hartu behar dira soilik. Haien artean, "Informazioaren biltze eta azterketarako koadroa"⁷, talde zabalaren saioetan adierazitakoa antolatu eta sailkatzeko duena, eta, batez ere, "Azterketarako dimentsio dokumentua"⁸, bere gaikako adierazleetan eta eztabaida taldeen dinamizazioa gida lezaketen eztabaidarako galderetan xehatua. Hau da informazio biltze eta dimentsioen kodifikazio eta interpretaziorako gakoaren sailkapena lotzen dituen tresna teorikoa, itzultze txosten partzialak burutzeko oinarria, alegia. Era horretan, zirkulu zentrukidearen bigarren momentu nagusian sartzen gara.

Baina, zertan datza fase berri hau?

⁷ Talde zabalaren saioetan ikerketaren azterketa laguntzen duten tresnak.

⁸ Diskurtsoaren azterketa eta eraikitze teorikoa laguntzeko materialak.


Ikastoletan landa lana amaitzen den momentutik bi ekintza nagusi bereizten dira talde zabalaren barruan. Alde batean interpretazioa eta bere kontrastea daude, eta bestean, ikerketaren itzultze eta komunikazioa.

5.2.3. Interpretazioa eta bere kontrastea

Aurrez adierazi dugun bezala, ikerketa hau bost kasu azterketatik abiatuta eraikitzen da orokorrean, eta horrek bi azterketa maila horiek prozesu osoan zehar zentzuz eta sendotasunez etengabe uztartzea eskatzen du. Bereizgarri horrek interpretazioari heltzeko modu desberdinak bultzatu ditu. Alde batetik, talde mistoak, ikastoletako prestakuntza beharrak antzemateko kasu orokorra ulertzeko kasu partikularrak gainditu behar ditu; eta bestetik, zentroko ikerlariak eta ikerlari laguntzaileak bere kasura hurbiltzeko unea da, berau aztertu, osotasunean interpretatu eta, azken finean, uler dezaten.

Hortik ondorioztatzen da interpretazio prozesu guztiek, aldi berean gertatzen badira ere, bide analitiko desberdinei jarraitzen dietela. Baina bereizketa horrek ez du oztopatzen interpretaziorako estrategia horiek interpretazio egiaztatzearen unean bat egitea. Kontraste horren helburu nagusia interpretazioak triangelatzea da, eta bigarrena, kasu partikular bakoitzaren ulertzea ikerketaren marko orokorrean.

2. Grafikoa. Interpretazio eta kontrastearen ibilbidea





Zeintzuk dira interpretazioaren bide horiek?

Lehenengo interpretazio bidea zentroko ikerlariak eta ikerlari laguntzaileak ikastola bakoitzean burutzen duten azterketa kasua da. Izan ere, eztabaida taldeen saioak amaituta eta itzultze txosten guztiak mahai gainean ditugula, ikastola bakoitzeko ikerlariak kasuaren ulertze orokorrean murgiltzeko prest daude, partaide taldeen eta dimentsioen alderatutako irakurketaren bidez. Irakurketa horrek bi norabide dauzka; bata, luzerakoak, partaide talde bakoitzak bere gaikako dimentsio guztietan zehar duen ikuspuntuaren berri ematen digu, eta besteak, zeharkakoak, dimentsio bakoitza partaide talde ezberdin guztietan irakurtzea ahalbidetzen du.

Kasu azterketaren sakontze hori erraztearren, tresna⁹ bat prestatu zen honako alderdiok barne hartzen zituena, alegia: konstanteen bilatzea, bereizgarriak, ikastolak aurkezten dituen baloreak, behar errepikarien gakoak eta ikerketa partaide taldeei eta orokorrean ikastolari itzultzeko gakoak.

Bigarren interpretazio bidea talde mistoari dagokio; hori, itzultze txosten partzialetatik abiatuta, kasu orokorraren interpretazioan barneratzen da. Horretarako prozedura hau gauzatzen da:

— *Informazioaren kategorizazio eta kodifikazioa.* Prozesu osoan zehar kodifikatu den informazio osoa biltzen duten itzultze txosten partzialetan egin diren kategorizazioetatik bi dokumentu «gordin» egiten dira dimentsioen eta gaikako adierazleen arabera. Dokumentuak eztabaida taldeen edukien luzerako (partaide talde bakoitza dimentsio guztietan) eta zeharkako (dimentsio bakoitza talde guztietan) irakurketei dagozkie hurrenez hurren.

Behin bi dokumentu orokor horiek sortuta, irakurketa zehatza egin zen eta horrek edukien lehenengo triangelaketak egitea ahalbidetu zuen.

— *Interpretaziorako galdera teorikoen bilatzea.* Talde mistoaren baterako hausnarketa batean, dimentsio bakoitzaren erreferente teorikoak adierazi eta zerrendatzearekin batera, interpretazioan lanean hasteko gida-galderak egiteari ekin zioten.

— *Berkodifikazioa, adierazitakoaren eta erreferente teorikoen arteko kontrastea oinarritzat hartuta.* Prozedura horrek dimentsioaren interpretazio ildo orokorra definitzea eskatzen du, bai eztabaidaren bateratze eta asetze puntuak bai planteatutako gaiak ulertzeko garrantzitsuak direnak kontutan hartuz. Interpretazio ildoak berkodifikaziorantz doa, eta ez dio jadanik dimentsio/adierazle

⁹ Ikus eranskina: Ikastola bakoitzaren kasu azterketa interpretatzeko tresna.

irizpideari jarraitzen, interpretazio esanahi gisa indarra hartu duten irizpideei baizik. Modu apalean esanda, bere errealitateari buruz esaten digutena eta hautu teorikoak ezartzen dituen aukeretarantz mugitzeko bide posibleak aurrez aurre jartzea.

- *Interpretazioa.* Azaleratu diren interpretazio esanahiak berkodifikatu eta berri-rakurri eta gero kasu orokorraren interpretazio orokorra lantzen hasten da; horrekin batera ondorioak ateratzen dira eta azterketa orokor horretatik ondorioztatzen diren hezkuntza
- *Prestakuntza beharrak antzemateko azken txostenaren idaztea.* Interpretazioa argi eta garbi moldatu eta komunikatuko da, bai produktuaren bai prozesuaren ikuspuntutik; izan ere, bi alderdi horiek garrantzitsuak dira bai egiaztatzeari bai ikastolei itzultzeari dagokienez. Gure ikerlan zehatzean interpretazioa eta azterketa dimentsioen berreraikitzea lau ardatzen arabera berregin dira; horiek, azken finean, aztergaia ulertzeko garaian sendotasun gehien hartu dutenak dira eta erreferente zuzentzat ikastolei egindako ikerketaren komunikazio prozesua dutela gauzatu dira.

Aurreratu dugun bezala, interpretazioaren azken pausoa egiaztatzea da, hau da, azaldu ditugun bi bide analitikoek bat egiten duteneko ekintza. Zentroko ikerlariak eta ikerlari laguntzaileak eginiko kasu txostena eta talde mistoaren azken txostena talde zabalean alderatu eta egiaztatzen dira, ikerketaren emaitzak berrestearren. Hortik aurrera, partaide taldeei eta ikastoletako hezkuntza komunitate osoari ikerketaren itzultzearengatik kezka nagusitzen da.

5.2.4. Ikerketa bere protagonistei komunikatu

Ikerketaren itzultzea edo komunikazioa aipatzean zera esan nahi dugu, alegia, ikerketaren bidez sortutako ezagutza pertsonari itzultzen dien prozesua; pertsona horiek partaide taldeak eta hezkuntza komunitatea osatzen dute gure kasuan, eta ikerketaren benetako egileak dira. Hori dela eta, alde guztien (talde mistoa, talde zabala, partaide taldeak eta ikastolak) izaera gogotsu eta aktiboa azpimarratu beharra dago.

Ikerketaren komunikazioaren helburu nagusia prozesua eta prozesu horren bidez sortu den ezagutza banatzea izan da, aztertutako ikastoletan aldaketa prozesuak gauzatu badira eman beharreko lehenengo pausoa da eta.

Argi dago beraz, talde mistoaren eta ikastoletako ikerlarien erantzukizunak garrantzitsuak direla, biek –bakoitzak bere erabaki maila desberdinean– prozesuaren eta bere emaitzen komunikazioa argitu eta erraztuko duten prozedurak sortu behar dituzten heinean. Gainera, ikerlariak hori guztiak ikastolentzat eta beren eragileentzat dituen ondorioez hala nola hurrengo urteetarako



prestakuntza lan ildoak zehazteaz gogoeta egin eta erabakiak hartu behar dituzte.

Itzultze edo komunikazioan ondoren deskribatuko ditugun bi momentu bereiztuko ditugu, alegia, talde mistotik talde zabalera doan komunikazio prozesua, eta, bigarren, talde zabaletik ikastoletara daramana.

5.2.4.1. Talde mistotik talde zabalera doan komunikazio prozesua

Ikerketa banatzearen ideiatik abiatuta, talde mistoa azterlana talde zabalari komunikatzeko saioan erabili behar duen prozedura diseinatzen hasten da; horrek badu bere garrantzia, ikastoletako ikerketa taldeak estrategia hori bere komunikazio plana sortzeko eredu gisa har dezakeela ongi dakigu eta. Horregatik, interesgarria litzateke erabili beharreko hizkuntzaz, ideien adierazpen grafikoaz, komunikazioaren sekuentziaz eta adierazitako ideia guztiak txostenean antolatzeke moduz hausnarketa egitea. Talde mistoak, gogoeta hori egin eta gero, komunikatu behar dituen alderdiez eta komunikatu behar ez dituenek, hala nola komunikazio hori gauzatzeko moduz erabaki egin behar du. Horrela, aurkezten den txostena ulertuko bada, taldeak eraman duen azterketa eta interpretazio prozesua kokatu eta argitu beharra dagoela uste du. Azalpen horrek, gainera, prestakuntza helburu berria du, alegia, zentroko ikerlari eta ikerlari laguntzaile guztiak ikerkuntza kualitatiboan erabiltzen diren azterketa eta interpretazio teknikak ulertu eta haien aurrean kokatzea. Prozesu analitikoaren argiztetik abiatuta, txostenaren azalpena grafikoki¹⁰ antolatzen da, lau ardatzetan egitaratuta; haiek, sostengu duten euskarri teorikoei, haietatik atera diren ondorioei eta ardatz bakoitzetik ondorioztatzen diren behar gakoei dagozkie.

5.2.4.2. Talde zabaletik ikastoletara

Talde zabalari ikerketa komunikatzen zaion unetik bertatik, zentroko ikerlariak eta ikerlari laguntzaileak oso kezkatuta agertzen dira prozesua ikastolei aurkezteko moduari dagokionez. Une horretan bertan, kasu bakoitzaren nortasunak duen garrantzia nabarmentzen da berriz. Kasu bakoitza berezkoa da, eta hori dela eta ikastola bakoitzak oso estilo zehatza agertzen du ikerketa prozesuari ekiteko garaian. Hori eta nortasun horienganako begirunea aberastasun eta sormen (prozedurei, estrategiaei eta abarrei dagokienez) iturri izan dira ikastolentzat. Itzultzearen uneak, beraz, eredu berdinari jarraitzen dion arren, ikastola bakoitzak bere estrategia erabakitzen du.

¹⁰ Ikus eranskina: Ikerketa itzuli edo komunikatzeko material lagungarriak.

Bereizgarriak izanda ere, guztien eskema bat dagoela esan daiteke. Lehenik, adostasuna dago ikerketa prozesua eta bertatik ondorioztatu diren ondorio eta behar gakoak barne hartzen dituen idazki xaloa egokitzeko ideiarri dagokionez. Pauso hori ezinbestekoa da, hortik abiatuta eztabaida talde desberdinak parte hartzen duten ikerketaren ulertzen ezezik talde bakoitzari dagozkion behar lehentasunak zehazten hasiko dira eta. Dokumentu hori aurrez ematen zaie taldeetan parte hartzen dutenei eta testuaren eta leheneste prozesuaren aurrean kokatzen lagunduko dieten galdera batzuek gidatzen dute. Dokumentuarekin batera euskarri grafiko batzuk erabili dira; horiek balio handikoak dira erabiltzen diren prozedurak orientatzen dituzten taldeen komunikazio trebetasunetara egokitu behar direlako ideia azpimarratzen duten heinean (Fals Bord, 1986). Hurrengo pausoa hezkuntza komunitate osoarekiko lana da, ikerketaren egilea den neurrian.

Azkenik nabarmendu behar dugu itzultze prozesu osoan zehar bai egiaztatzearen eraikitzea –bategite, ulertze eta sozializatzeko maila altuak lortzearren– bai prozesutik ondorioztatzen den balio formatiboa kontutan hartu direla. Gainera, kontu handiz erabili eta errespetatu dira prestakuntza beharren diagnostikorako kasu orokorren eta ikastola bakoitzaren kasu partikularren arteko harremana eta antolatzeko. Kasu orokorra ulertzea garrantzitsua da baina ikastola bakoitzaren bereizgarriak kontutan hartzeari ere funtsezkoa deritzogu. Hori dela eta, talde mistoa/talde zabala elkarrekintzan kasu orokorretik kasu partikularreara abiatzen gara, zentroko eta laguntza taldea/ikastolak elkarrekintzan kasu partikularretik kasu orokorrera igarotzen garen bitartean.

Ikuspegi horretatik hezkuntza komunitateak bere presentzia mantentzen du eta talde zabalaren ekintzak hura erreferentziatzen dutela gauzatzen dira. Modu horretan, hirugarren zirkulu zentrukidea osatzen dugu, protagonistatzen hezkuntza komunitatea eta bere eragile desberdinak dituen, hain zuzen ere.

5.3. Ikerkuntza-prestakuntzarako hirugarren zirkulua: partaide taldeen dinamizazioa

Bigarren zirkuluaren barruan, talde zabalaren ekintza prestakuntza, gainbegirtzea, interpretazioa eta itzultzea osatzen duten lau zutabeen gainean sostengatu da, eta landa lana, emaitzen azterketa eta interpretazioa eta ikerketa ikastolei komunikatzea hartu ditu barne. Dena den, behin eta berriz esan dugu azterlana partaide taldeei dagokiela batik bat, informazioaren bidaltzean ezezik beharren egiaztatze eta lehenestean ere duten eginkizun garrantzitsua dela eta; behar horiei hurrengo urteetan antolatuko diren prestakuntza planen bidez



aurre egin behar zaie, hain zuzen ere. Ikerketaren hirugarren zirkuluan gaude beraz, alegia, azterlanean zehar garatzen joan diren partaide taldeen dinamizazio prozesuetan.

Zirkulu horrek denboran duen esanahia ulertzearen, hiru une esanguratsu aztertu-ko ditugu; horietan partaide taldeen dinamizazio prozesuak ñabardura eta konnotazio desberdinak aurkezten ditu. Hona hemen.

5.3.1. Lehenengo unea: ikerketa ulertzen

Zentroko ikerlariak eta ikerlari laguntzaileak, lehenik eta behin, hezkuntza komunitateari –ikastolak ordezkatzan dituzten barne egitura desberdinen bidez– azaldu behar izan zioten zer suposatzen zuen ikastolentzat lan prozesu horretan sartzeak. Une horretan garrantzitsua zen proiektuaren zertarakoa, hura abian jartzearen ondorioak, hala nola bertan eztabaida talde desberdinen bidez zuzenean parte hartu behar zuten pertsonari eskatzen zitzaizkien konpromisoak. Ikerlariak ikerketa sostengatu behar zuten oinarriak aurkeztu eta zabaltzeko modua pentsatu behar izan zuten lehenengo dinamizazio maila horretan; horrezaz gain, ikerketa hori prestakuntzaren autogestioa, eta ondorioz, zentro bakoitzaren prestakuntza ildo diseinatzeko erantzukizunaren onartzea lortzeko mesedegarria zela azpimarratu behar zuten.

Hezkuntza komunitateak ulertu behar zuen proiektuaren beharra, eta hura aurrera ateratzeko guztion konpromisoa ezinbestekoa zela. Behin horretaz jabeturik, proiektua garatzen hasi zen.

5.3.2. Bigarren unea: ikerketaren martxan jartze eta gizarteratzea

Eztabaida taldeek antolatutako landa lanaren bidez ikerketa zentroetan sartzen den neurrian, partehartzaileen eta hezkuntza komunitatearen gainontzeko partaideen arteko harremanak berebiziko garrantzia hartzen du. Haiak, proiektuak zentroan eragiten duen jakin-minaren aurrean, dagozkien taldeekin harremanetan jarri eta galdetzen diete: zer egiten da talde horietan?, nolakoa da egitura?... Komunitatea ikastolan zentzua eta orokortasuna eraikitzeke duen garrantzia ulertzen hasten da. Ikerketaren lehertze eta hedatzea gertatzen da, eta ikastolen errealitatean zirrara egiten du.

Landa lana amaitzean, aldi baterako dilatazioa gertatzen da ikerketa elkarteari itzuli bitartean. Zer gertatzen ari den eta ikastolentan jasotako informazio guztia nola lantzen ari den inork ez dakenez, ikusmina eta batzuetan ezinegon nagusitzen dira une honetan. Partaide taldeek egin denaren esanahia jakin eta hura ideia zehatzetan gauzatu ikusi nahi dute, prozesu osoa eta harengandik ondorioztatutako beharrak islatzen dituen dokumentu batean, alegia.

5.3.3. Hirugarren unea: ikerketa banatzen. Aurrera eginez

Hirugarren une hau oso berezia da ikerketaren itzultze prozesua eztabaida taldeetan parte hartu duten pertsonengandik ikastola osora zabaltzen delako. Prozesu osoa eta bere emaitzak azterlanaren benetako egileak diren komunitatearen hezkuntza eragile desberdinei komunikatzeko eta beraiekin banatzeko unea da. Ikastola bakoitzaren kasuaren eta beharrak antzemateko kasu orokorraren arteko hurbiltasun edo urruntasun harremana ere banatzen da.

Prozesu garrantzitsu eta interesgarri horrek ikastolak hurrengo urteetarako abian jarri behar dituen aurrerabideak azaltzen ditu, berariazko prestakuntza ekintzetan zehaztuak. Etorkizuneko prestakuntza politika horren bidez, bada, talde bakoitzaren baloreen eta komunitatearen baloreen arteko oreka bermatu nahi da, guztien nahiak eta ikastola bakoitzaren hezkuntza komunitatea osatzen duen talde bakoitzak dituenak bilduko dituen prestakuntza bide bat jorratu eta ziurtatzeko.

6. Interpretazio txostena

Azterlanaren bigarren zati honetan, alde batetik, talde zabalari aurkeztutako itzulketa txosten partzialetatik abiatuta egin den kasuaren interpretazioan murgiltzen gara. Hau lau interpretazio ardatzen gainean eratzen da, parte hartzen duten bost ikastolen heziketa errealitate desberdinak azaltzen dituztenak, hain zuzen ere. Hauexek dira aipatu lau ardatz horiek:

1. Ikastola bere osotasunean, komunitateen garapena lagunduz.

Ardatz honetan, hezkuntza komunitatearen eta inguruarekiko bere erlazioaren alde egiten dugun ekarpenaren berri ematen da.

2. Hezkuntza ekintza eta honek ikastolan duen eragina aztertuz.

Honetan, hezkuntzaren kontzeptua eta hezkuntza praktika gidatzen duten asmoak azaltzen dira. Hezkuntza praktika hori sostengatzen duten baloreak eta hezkuntza teoria eta praktika ebaluatzeko modua ere dira aztergai.

3. Antolaketa, kudeaketa eta komunikaziotik abiatuta horizontaltasuna edo binorantzatasuna eraikiz.

Ardatz honen bidez, ikastoletan beren hezkuntza ekintza garatzearen ezartzen diren antolaketa estiloa eta komunikazio mota aztertzen dira.

4. Garapen pertsonala, profesionala, instituzionala erraztuz eta testuinguruak eraldatuz.

Azken ardatz honetan, berriztatze proiektuek eta hezkuntza eragile desberdinen pretakuntzak hezkuntza komunitatearen aldaketa eta garapen prozesuak laguntzeko hartzen duten zentzua aztertzen da.

Interpretazio azterketatik abiatuta ondorioak ateratzen dira eta beraietatik beharren azterketa eta prestakuntzarako orientabideak ondorioztatu.

6.1. Ikastola bere osotasunean, komunitateen garapena lagunduz

Ikastola, bere egituren eta dinamikaren konplexutasuna barne hartzen dituen ikuspegi holistiko batetik ulertu eta mantentzea, bere prozesuaren eragile gisa.

Ikastolaren Mugimenduaren berezko dokumentuen azterketatik, ikastolek berek azterlan honi begira landu dituztenetik, hala nola eztabaida taldeetan entzundakoetatik, ideia nagusi bat ondorioztatzen da, alegia, ikastola, bere egituren eta bere dinamikaren konplexutasuna barne hartzen dituen ikuspegi holistiko batetik ulertu eta mantentzea, bere prozesuaren eragile gisa. Bertan norabide guztietan jokatzeko da, beti ere osotasun ideia hori erreferentziatzen hartuta, eta honek, azken finean, hezkuntza ahalegin guztiekin guztien helburu bat antolatzea ahalbidetzen du, hezkuntza proiektuan zehaztua gelditzen dena, hain zuzen ere. Bere garapenak, azterketak eta egiaztatzeak etengabe laguntzen dute pertsonen, eragileen, ikastolaren beraren eta txertatuta dagoen komunitatearen garapena, komunitate honen eraikitzean ere bere bultzada sozialaz laguntzen baitu.

Ikastolen nahien aipamen laburra egitea beharrezkoa izan da osotasun zentzu horren garapenerako lagungarri diren bi alderdiak sartzeko. Alde batetik, eraikitzen den eta irauten duen hezkuntza komunitate baten finkatzea, beti ere berau zuzentzen duen hezkuntza proiektuari begira. Bestetik, komunitatearen eraikitzeak maila desberdinetako bi norantzako erlazioa du oinarritzat. Guri orain dagokigun maila ikastola-gizarte elkarrizketarena da, hain zuzen ere «hezkuntza testuinguru aberastuak» sortarazten dituen, bai barnean (ikastolaren beraren barruan) bai kanpoan (berarekin harremanetan sartzen diren testuinguruak). Bi dimentsiook garatuko ditugu jarraian.

6.1.1. Hezkuntza eragile izatetik hezkuntza komunitate izatera

Azterlan hau egiteko honako ideia hau hartu dugu erreferentzia nagusitzat: ikastola hezkuntza instituzio euskalduna da, herri mugimendu sozial batetik sortua, autogestio maila handia duena eta euskararen eta euskal kulturaren garapenarekin konprometitua dagoena; bertan, bere partaide guztiek hala nola berak hautatzen dituen beste pertsonak eta entitateek hartzen dute parte erantzukizun komunaz (ardurakidetasunaz). Definizio honetan azpimarragarria da ardurakidetasunaren ideia, ikastola barruan engaiatutako talde guztiek (zuzendaritza taldeak, irakasleak, gurasoak, irakasleak ez

Ikastolako eragile guztien ardurakidetasuna, xede komun baten alde.



diren langileek eta ikasleek), hezkuntza komunitatearen ideiatik abiatuta, guztien helburu baten alde jarduten dutela, alegia. Hezkuntza komunitateak zentroaren hezkuntza proiektuan adierazi eta adostu den hezkuntza xede komun baten alde lan egiten duten talde guztiak hartzen ditu barne; hori dela eta talde guztiok hezkuntza eragileztat hartzen ditugu. Komunitate zentzu honek eragile guztiak beren hezkuntza ekintza osotasun zentzuaz garatzea eragiten du, eta gainera, taldearen osoko hezkuntza ahalmena azpimarratzen du.

Idea honetatik abiatuta, hezkuntza proiektuaren eraikitzea, zeina hezkuntza praktikaren oinarrian dauden asmoei, baloreei eta erlazioei buruzko gogoeten bidez gauzatzen baita, hezkuntza komunitatea sortu eta finkatzeko elementu garrantzitsua dela uste dugu. Azterketarako plataforma da, beraz, komunitatearen ezagutzaren eta hezkuntza ekintzaren oinarria.

Baina... nola gauzatzen ari da gaur egun, ikastetxeen errealitatean, ikastolen mugimenduak bere hastapenetatik ardatz gisa izan duen komunitate zentzu hori?

Hezkuntza komunitatearen analisia egiten hasteko, aurrez hezkuntza-eragile zentzua ikastolak osatzen dituzten talde desberdinetan nola gauzatu den aztertu behar dugu. Nola sentitzen dira?, beren ustetan, zein eginkizun dituzte eta nola garatzen dituzte?, nola daude ikusita talde desberdinak?, zein hezkuntza asmo dute? Zein hezkuntza asmok zuzentzen du beren ekintza?, ikastolaren barruan, denok al gara hezkuntza eragile? Honelako galderek ikastolatan eraiki den komunitate zentzua ulertzen laguntzen digute.

Horrela, talde guztiak ez dute garbi ikusten ikastolan dituzten eginkizunak zeintzuk diren. Gurasoak eta irakasleak hezkuntza eragile gisa nabarmenen azaltzen direnak direla dirudi; dena den, oraindik ez dira komunitateztat hartzen, eta une honetan, errealitate bat baino, gauzatu gabe dauden teoria mailako nahiak dira. Batzuk argi eta garbi ematen dute ideia honen berri: *«gurasook hezkuntza eginkizuna dugu eta irakasleek hezkuntzan garrantzi handia izanik ere, gurea ere funtsezkoa da. Geure ustez, biok –irakasleek eta familiarek– funtzio osagarriak betetzen ditugu. Baina hezkuntza familian hasten da, eta familia bakoitza giro eta arazo desberdinak dituen mundua da» eta «irakasleek ikasleak hezi behar dituzte; batzuetan, hala ere, eta goi mailako ikasleekin jarduten dugunean batez ere, ez dakigu zehazki zeri ematen diogun garrantzi gehiago: instrukzioari eta transmisioari*

Hezkuntza proiektuaren eraikitzeak hezkuntza komunitatearen sortzea eta finkatzea laguntzen du.

Hezkuntza eragileak izateak duen zentzuaren azterketa.

Taldeek beren hezkuntza funtzioa ulertzeko moduen arteko desberdintasuna.

ala hezkuntzari berari». Nabaria da, beraz, hezkuntza asmoak eta haiei buruzko gogoetak bi talde hauetan agertzen direla, eta ikastolen barruko analisirako oinarrizko zenbait alderdi nabarmentzen dira, eragileok lan proiektu komun baten garapenean duten eginkizunari, erantzukizun eta delegatze mailei... dagozkienak, hain zuzen ere. Gainera, alderdiok zeintzuk garen, zer nahi dugun eta «zer» hori nola garatzen dugun argitzen laguntzen digute.

Beste zentzu batean, zuzendaritza taldeek eta ez-irakasleek bete ditzaketen hezkuntza funtzioak ez dira hain argi azaldu. Zuzendaritza taldeek antolaketaren barruan duten funtzioa egituren eta taldeen arteko lotura zubi gisa ulertzen dute. Horrela diote: *«zuzendaritza taldeak zubi moduan jardutearen funtzioa onartzen du»*. Ez-irakasleei dagokienez, bi iritzi daude, ikasleekiko duten harreman eta elkarrekintza mailaren arabera. Ikasleekin harremana dutenek (jangeletako langileek...), ikastolak dituen helburuekin bat datorren jarrera mailako lana garatzen duten heinean, hezkuntza funtzioa betetzen dutela uste dute, eta haiek, hezkuntza gunehorietan izaten eta egoten, helburu horiek landu eta transmititzen dituztela. Honelako iritziak jaso dira: *«jangelan, bertan hezkuntzari dagozkion ohiturak, egoteko moduak, jarrerak... gertatzen diren heinean, hezkuntza funtzioa betetzen dugu»*. Familiak ere honela mintzo dira gai honi buruz: *«jangelako eta autobuseko langileek baloreei eta jarrerei dagokien hezkuntza eginkizuna dutela deritzogu»*. Hala ere, ikasleekin zeharkako harremana baizik ez duten ez-irakasleak hezkuntzatik kanpokoak bailiran hartzen dira, antolaketaren barruko informazioaren fluxuari dagokionez berebiziko garrantzia dutela onartzen bada ere: *«ez-irakasleen taldea pedagogi mailatik urruti dago. Hala ere, barrutik kanporako nahiz kanpotik barrurako informazio askoren igorle direnez, garrantzi handia dute ikastolaren barruan, eta, beraz, eragina dute komunikazioan»*.

Horrela, gogoeta batzuk sortzen dira, hezkuntza mailan dugun nor-tasuna argitu eta definitu ez ezik, pertsonen eta instituzioaren garapenean laguntzeko modua erakuts diezaguketanak, hain zuzen ere.

Beraien aburuz, talde guztiek hezkuntzaren alde lan egiteko helburua dutela dirudi, garatzen ari diren eginkizuna zein den zehazki ez badakite ere. Izan ere, oraindik ez dute ez kontzeptu horrek duen edukia ez talde bakoitzak eta komunitateak berak hezkuntza mailan dituzten betebeharrak zeintzuk diren azaldu. Horregatik, hezkuntza asmoei buruzko gogoeta eta taldeek gogoeta horretan betetzen duten funtzioa oso aurrerabide garrantzitsuaren antzera ager-

*Aurrerabidea:
hezkuntza mailako
asmoei eta
hezkuntza eragileen
eginkizunei buruz
gogoeta egitea.*



tzen zaigu ikastolen etorkizunari begira. Honek ikastola antolatze-ko moduei buruz pentsatzera garamatza, hezkuntza proiektuaren eraikitzea komunitatearen lokarri gisa ulertzea, ikastolaren ekintza osoa eta bere partaideen hezkuntza eta garapena gidatu eta antolaten dituen, alegia. Erabateko eraldaketa eman behar da, beraz, komunitatekide moduan ez baina bakarka dabilen hezkuntza eragile izatetik lankidetzako hezkuntza mugimendua sortarazten duen komunitatea sortzera, praktikarekiko etengabeko dialektikaren bidez definitu eta birdefinitzen den proiektu baten alde.

Gurasoek, gehienetan, eta zuzendaritza taldeen eta irakasleen esanetan baita zentruen barne funtzionamendu moduek adierazten digutenaren arabera, hezkuntza komunitatearen eragile bezala baino, gizarte partaidetzat ikusten dute beren burua, eta honek zailagotzen du zentroetan hezkuntza komunitatearen ideia onartu eta lantzea. Irakasleek diotenez, seme-alabak hazi ahala gurasoak ikastolatik urrutiratzen joaten dira, eta, ondorioz, konpromiso gutxiago hartzen dute. Ez-irakasleek ideia hori berretsi eta honela gaineratzen dute: *«gurasoak ez dira ikastolako hezkuntza komunitatean engaiatzen eta gero eta pasiboagoak dira»*. Baina, zergatik gertatzen da hori? Gurasoek uste dute komunitatearen partaide izan behar dutela, baina ez dakite ez nola jardun behar duten ez zein funtzio bete dezaketen komunitatearen eraikitzean hala nola zentroaren hezkuntza-proiektuaren zehaztean eta garapenean. Beraz, batzuetan baino ez dute parte hartzen, eta, gehienetan, irakasleen profesionaltasunaren esku uzten dute prozesuaren erantzukizun gehiena.

Gurasoek berek honelako baieztapenak egiten dituzte ideia horren inguruan: *«ikastolan dugun partehartzea noizbehinkakoa eta laguntza mailakoa da»*, *«irakasleak dira profesionalak, eta geure konfiantza ematen diegu geure seme-alabei hezteko eta irakasteko garaian»*. Haien artean ere, banaka batzuk soilik sentitzen dira benetan hezkuntza komunitatearen partehartzaile, besteek ikastola zerbitzutzat hartzen duten bitartean, heziketa mailakoa baino instrukzio mailakoa, hain zuzen ere. Irakasleek berek leporatzen dizkiete beren gurasoei ikastolako hezkuntza proiektuaren garapenarekin eta bere bilakaera eta hobetzearekin ez konprometitzea.

Dena dela, nahiz eta oraindik gurasoak komunitatearen partaide sentitu ez, hezkuntza eragiletzat ulertzen dute beren burua, beren hezkuntza funtzioa irakasleen funtzioaren osagarritzat jotzen duten heinean. Baina norberak bere esparrua duela uste dute: ira-

Hezkuntza komunitatea eta honek dakarren heziketa lana onartzeko zailtasunak.

Komunitate zentzurik eza.

Heziketa eragile izatearen zentzua.

kasleek ikastola eta gurasoek familia. «Gurasook geure seme-ala-bentzat eredia gara, batzuetan noraezean eta laguntzarik gabe egoten bagara ere». Gurasoek beren burua hezkuntza-eragileztat jotzen badute, nork lagundu behar die familiei eginkizun horretan?, zer eman dezake ikastolak zentzu horretan?, zer ekar dezakete haiek ikastolara?

Lagungarri al dira guraso-eskolak gurasoak komunitatearen partade gisa finkatu eta ikastoletako hezkuntza proiektua garatzeko xedean?

Aztertu ditugun zenbait ikastolatan guraso-eskolak antolatu dira, beraiek beren heziketa eginkizunean gidatzearen. Baina... lagungarri al dira benetan eskola hauek gurasoak komunitatearen partaide gisa finkatu eta ikastoletako hezkuntza-proiektua garatzeko xedean? eta, errazten al dute gurasoen taldeak ikastolen dinamika orokorrean gogoz parte hartzea? nola hartzen dituzte eskola hauek hezkuntza komunitatearen gainontzeko taldeek, ikastolaren dinamikaren partaide den eta ikastola aberasten duen egituratzat ala hezkuntza-proiektuaren garapenetik kanpo dagoen gehigarritzat? Honelako galderak azterlanaren abiapuntua izan daitezke komunitatea teoria mailatik errealitate bat izatera igarotzearen; hemendik aurrera komunitateak bere helburuak zehaztu eta duen heziketa ahalmen guztia beraien zerbitzuan jarriko du.

Zein da ikasleek hezkuntza komunitatean duten funtzioa eta nola sartzen da beren ahotsa instituzioaren dinamikan?

Beste kasu batzuetan, zuzendaritza taldearen pisua oso handia denean, alegia, ikasleak ere hezkuntza komunitatetik kanpoko elementutzat hartzen dira, eta beraiek ikastola barruan garrantzi gutxi ematen zaiela sentitzen dute. Hori dela eta, ikasleek komunitatean betetzen duten funtzioaz eta beren ahotsa instituzioaren dinamikan sartzeko moduz hausnarketa egiteak lagunduko digu lankidetzazko komunitate erreal hori osatzen.

Taldeak hezkuntza komunitatearen ideia kontutan hartu gabe osatzen direnean, nor bere aldetik dabilen egituratzat hartzen dute elkar.

Taldeak hezkuntza komunitatearen ideia kontutan hartu gabe osatuta daudenez, ikerlan honetan parte hartu duten ikastetxeekin gertatu den legez, taldeok nor bere aldetik dabilen egituratzat hartzen dute elkar. «nor bere erara ibiltzen da», «taldeen artean, indarrak biltzeko erlazio gutxi dago». Xede komun bat lortzeko koordinazio eza sumatzen dute. Ez-irakasleen taldea ere, egoera horretaz jabeturik, adierazten du: «beste taldeek nork bere aldetik jarduten du eta ez dute guztien hezkuntza proiektu baten alde batera lan egiten».

Aztertutako ikastoletan antzeman dugun kolektibo ezberdinen banakako edo, areago, funtzionamendu ia isolatua zer dela eta gertatzen da? Zergatik nor bere aldetik ibili hezkuntza proiektua garatzeko orduan? Alde batetik, bizi dugun heziketa tradizioa dago, espezializazio alorren ideia azpimarratzean hezkuntzaren aurrean



jarrera indibidualisten sorburu dena. Horrek zentroak eta hauen barruko ekintza esparruak zatituta daudelako pertzepzioa dakar, eta talde guztien ideiak, proiektuak eta ekintzak osotasun/globaltasun zentzuaz antolatzea galarazten du. Bestetik, taldeek ez dute batera lan egiteko ez beharra ez motibazioa azaldu, alegia, ikastolen dinamika demokratikoa garatuko lukeen lankidetzeta eta koordinazio ideiaz ez dira baliatu.

Zentro bateko irakasleen adierazpenek aipatu dugun behar eza hori islatzen dute: *«administraziokoekin eta atezainarekin harreman gutxi dute, eta gehiago izateko beharrik ez dutela sentitzen dute»*. Beste ikastola batean, ez-irakasleak bere mailako langiletzat hartzen ote dituzten ez dakite. Gurasoek ere uste dute bere taldeak ez duela ez-irakasleen taldearen funtzioa aintzat hartzen. Eta azkenik, ez-irakasleen beren pertzepzioa iritzi horrekin bat dator, hauek beren lana ikastoletan ez dela aintzat hartzen uste baitute.

Gurasoek beren burua hezkuntza komunitatean integratua ez dagoen taldetzat hartzen badute ere, *«modu eraginkor eta konstruktibo batez»* parte hartzeko gogoia azaltzen dute aho batez. Hau errealitate bihurtzeko, *«parte hartzeko informazioa eta, ikastolak irekiago eta demokratikoago bihurtu asmotan, taldeen arteko komunikazio kanalak irekitzea»* eskatzen dute. Aurrerabide berri bat agertzen da, hasiera batean, komunitatea ez direla egiazta-tzetik eta komunitate hori eraikitzeatik abiatzen dela. Ondoren, eta aurreko hausnarketatik abiatuta, eragileen arteko komunikazioaren eta bere hobetzearen analisisan sartu beharra dago. Zentzu honetan, kolektiboak berez antola daitezzen lagundu eta erreztu ez ezik, hezkuntza proiektuaren barruan dituzten funtzioak definitzeko eta harremanetan sartzeko eta xede komun baten alde lan egiteko orientabideak zehaztu beharra legoke. Dagoeneko zentroetan antzeman daitekeen mugimendu horrek lehenengo pausuak eman ditu ideia eta proiektu berriztatzaileak pentsatu, zehaztu eta garatzen dituzten hezkuntza komunitateak finkatzeko bidean, Ikastolen Mugimenduaren beraren jatorrizko izpirituarekin bat eginez. Zentzu horretan ez da ahatzi behar mugimenduaren zentzua eta norabidea euskalduntzearen eta euskal kulturaren garapena hezkuntza-berriztapenarekin lotzen den heinean garatu dela historikoki, beraz, berariazotasun horri lotzean datzala aurrerabidetako bat.

Zer gertatzen ari da, orduan zentroetan? Zentroetako taldeek, aurrera egiteko ildoan bidez azaldu dugun bezala, xede komun batzuen alde lan egiteko beharra ikusten badute ere, ez dakite lankidetzaz

Taldeek beren jokabidean azaltzen duten indibidualismoaren arrazoiak.

Aurrerabide bat: eragileen arteko komunikazioaren eta bere hobetzearen azterketa, kolektibo akberez antola daitezzen, taldeok hezkuntza proiektuaren barruan dituzten funtzioak defini ditzaten eta hezkuntza komunitateak finkatzearen elkarren arteko harremanak izan ditzaten lagunduz.

Batera lan egin beharra dago baina ez da asmatu nola egin.

nola jokatu. Zentroetan nagusi den kontraesan hau talde batzuk beste batzuei leporatzen dizkieten demanden atzean egon daiteke.

Ikastetxeetan lan egiten duten kontaesan hau izan daiteke kolekti-boen artean agertzen zaizkigun salaketan sorburua. Batez ere zuzendaritza taldeek eta irakasleek gurasoei, ez-irakasleei eta ikasleei hezkuntza proiektua eraiki eta garatzeko konpromiso eza leporatzen dietenean.

Guztien hezkuntza proiektua... zentroetan bizitzen da, egunetik egunera, ala errealitatetik urruti dagoen idazki hutsa da?

Orain arte talde desberdinek hezkuntza komunitatearen kontzeptuaren aurrean hartzen duten jarrera aztertu dugu eta dirudenez, denok datoz bat ikastolaren garapenari begira hezkuntza proiektua duen garrantzia azpimarratzeko garaian. Haatik, eta aipatu dugun bezala, zuzendaritza taldeek gurasoak, eta batzuetan ikasleak eta ez-irakasleak ere, hezkuntza komunitatetik kanpo daudela irizten badiote, zer adierazi nahi dute hezkuntza proiektua aipatzean?, guztien hezkuntza proiektua, zentroen egunetik egunerakoan bizitzen da ala errealitatetik urruti dagoen idazki bat besterik ez da? eta, zein da hezkuntza proiektuaren balioa ikastolentzat eta haietan engaiatuta dauden hezkuntza eragileentzat?

Hezkuntza proiektua: ikaste prozesua da, zeinak eragile guztien elkarrizketa eta parte hartzerako bideak zabaltzen dituen, ikastolan jarraitu beharreko hezkuntza ildoari eta instituzio dinamika osoaren oinarrian egon behar duten balore eta printzipioei dagokienez.

Hezkuntza proiektua diogunean ez dugu idazki hutsa adierazi nahi, ikastolako partaide gutxi batzuk burokrazi izapideak betetzearren landua, alegia. Aitzitik, hezkuntza proiektuak elkarrizketarako eta eragile guztien partehartzerako –zuzeneko eta zeharkako– bideak zabaltzen dituen ikaste prozesua behar du izan; gainera, aipatu eragileek ikastolan jarraitu beharreko hezkuntza ildoari, bere asmoei eta instituzio dinamika osoaren oinarrian dauden balore eta printzipioei buruz dituzten ideiak ere hartzen ditu barne. Elkarrizketak sustatu behar du ikaste prozesu luze hau eta eragile guztien arteko elkarguneak aurkitu, talde bakoitzaren helburuak komunitate osoak dituenekin bat egiteko asmotan. Gauzak horrela, proiektuak gogoeta prozesu batera garamatza, eta bertan komunitate osoak hartzen du parte eta topaguneak aurkitzen laguntzen du. Gainera, praktikaren analisirako ere beharrezkoa da, eta ondorioz, prestakuntzarako zein pertsonal-, lanbide-, instituzio-, eta komunitate garapenerako funtsezko tresna.

Zentzu honetan, bi ikastetxe mota aurkituko ditugu: alde batetik, ikastola «gazteak» deituko ditugunak, azterlan honetan hizkuntza normalizazio maila baxua duten testuinguruetan kokaturik daudenak, hain zuzen ere; eta, ikastola «finkatuak», urte askotako eskarmentua dutenak, alegia, eta normalizazio maila altuagoko testuinguruetan kokatzen direnak. Edonola ere, kasu batean zein bestean,



hezkuntza proiektu bat sortzeak soilik emango dio zentzua hezkuntza komunitateari, berriztatze, ikerketa, prestakuntza eta garapen prozesuen abiapuntua den heinean. Honela adierazten dute hezkuntza prozesuak komunitaterako duen balioa: *«komunitate gisa eraikitzeak zentroko hezkuntza proiektua eraiki eta gartztea dakar»* eta *«zentroko hezkuntza proiektua eraikitzeak talde guztiek beren hezkuntza jardueran zentzuz jardutea lagunduko luke. Era berean, irakasle berrientzat ere lagungarri litzateke, proiektuaren ulertzeari eta onartzeari dagokienez».*

Bi profil: ikastola “gazteak” eta ikastola “finkatuak”.

Ikastola «gazteen» ustez, hezkuntza proiektua hezkuntza komunitate osoak eraiki eta adostu beharreko tresna da, talde guztiak barne hartu eta hezkuntza komunitatearen ikuspuntu orokorra lantzea ahalbidetzen duena. Hau, gainera, pedagogi plan nazionalaren arabera gauzatu beharko litzateke, mugimendu osoaren abiapuntua den heinean. Zentzu honetan, *«hezkuntza proiektuak ikastolen mugimenduak dituen helburu orokor hauekin, ikastolak beste zentroetatik bereizten dituztenak, alegia, bat egiten du: euskara eta euskal kultura bultzatzeko konpromisoa, herri izaera eta gizarte mailako konpromisoa».*

Ikastola “gazteen” ustez, hezkuntza proiektua hezkuntza komunitate osoak eraiki eta adostu beharreko tresna da.

Beraz, zenbait proiektu inplizitu dituztela jarduten dute, eguneroko helburu motak zeintzuk diren gehiegi argitu gabe. Zuzendaritzak eta irakasleek hezkuntza proiektuaren eraikitze prozesua bultzatu beharra azpimarratzen dute, zentroaren hezkuntza alderdi askoren hobetzea ekarriko duelakoan. Esate baterako, erabakiak hartzeko garaian lagungarri izan liteke, gaur egun erabakiok abiapuntu argirik gabe hartzen direla kontutan hartzen badugu. Gainera, irakasleek uste dute hezkuntza proiektuak kontraesanak argitzen eta koherentzia gehiagoz lan egiten lagunduko lukeela.

Hezkuntza proiektua eraikitzeak kontraesanak argitzen eta koherentzia gehiagoz lan egiten lagunduko luke.

Proiektua, beraz, hezkuntza helburua da ikastola «gazteentzat» eta hortik abiatuta *«talde guztiek balore berdinetan oinarrituko luke hezkuntza eta, modu horretan, hobeto beteko lituzkete beren funtzioak, une honetan ematen ari diren kontraesanak saihestuz».* Gauzak horrela, aurrera egiteko ildo baterako lana ahalbidetuko duen hezkuntza proiektua adierazi eta adostea da. Baina bide hau zailtasunez bete dago. Hauexek dira kolektiboek, irakasleek, bereziki, sumatzen dituztenetako batzuk: denbora eza, egunerokotasunaren murrizketak eragindako ohikeria, ikastolaren berezko modu bat eragin duena, hain zuzen ere, aldaketan aurreko jarrera aurkakoak...

Aurrerabidea: baterako lana ahalbidetuko duen hezkuntza proiektua adierazi eta adostea.

Hezkuntza eragile guztiek ez dituzte proiektuaren zentzua eta honen aurrean dituzten erantzukizun maila desberdinak eta parte-

Hezkuntza proiektua eraikitzeak dituen zailtasunez.

Hezkuntza eragileen artean desberdintasunak daude proiektuaren zentzua eta honen aurrean dituzten erantzukizun maila desberdinak eta partehartzea ulertzeko moduan.

hartzera modu berean ulertzen. Ildo honetan, eta azaldu duten interesagatik, ez-irakasleen taldea nabarmendu beharra dago. Hauen ustez, proiektuak, beren lan esparrua zein den argitzeaz gain, baterako lanean jarduteko aukera zuzena emango lieke. Era berean, irakasleak jotzen dituzte hezkuntza proiektua abian jartzeko ardura-dun nagusitzat: *«irakasleak hezkuntza proiektuaren eragileak dira, bere grabitate zentroa. Zentzu honetan, proiektua garatuko bada, talde honek kohesio maila altua azaldu behar du»*. Ikasleek ere, erantzukizun gehiena irakasleek eta zuzendaritza taldeak dutela onartu arren, proiektua gauzatzeko garaian lagungarri izan litezkeela uste dute. Zentzu honetan, *«ez dakigu zer egin genezakeen ikastolaren hezkuntza proiektuan parte hartzeko, baina zenbait funtzio bete genitzakeela uste dugu»*. Dena den, zuzendaritza taldea eta irakasleak dira hezkuntza proiektua zehaztu beharra behin eta berriz aipatzen dutenak. Eta ez hori bakarrik: proiekturik ezak zuzendaritzarengan erabakiak hartzeko prozesuan dituen ondorioak ez ezik proiektua eraikitzea duen premia ere azpimarratzen dute.

Ikastola “finkatuek” hezkuntza proiektuan idatzi denaren, utopikoa, batzuren ustez, eta zentroetan egunero egiten denaren arteko aldea nabarmentzen dute.

Beste aldean, «finkatuak» deitzen ditugun ikastolak daude. Hauek dagoeneko aurkeztua dute beren hezkuntza proiektua, eta hau, teoria mailan behintzat, zentroaren hezkuntza ekintza osoaren abiapuntua da. Ikastola hauetako zuzendaritza taldeen ustez, hezkuntza proiektua dokumentu bat da, eta hura lantzeak, curriculumean gauzatzek eta irakasleek bertan dituzten betebeharrak erabakitzeak beren erantzukizun handia eskatu dute. Hala ere, hezkuntza proiektuan idatzi denaren, utopikoa, batzuen ustez, eta zentroetan egunero egiten denaren arteko aldea nabarmentzen da. Zenbait kasutan, zuzendaritza taldeek berek gainontzeko kolektiboak ez direla proiektuaren garapenean engaiatzen adierazten dute, eta honen arrazoi gisa haiek proiektuaren eraikitzean parte hartu ez izana eta proiektua modu egokian gizarteratu ez izana aipatzen dituzte. Ondoren datozenak dira zentro hauetan bizi denaren adierazgarri: *“hezkuntza proiektua oso urruti ikusten da, eta hau berraztertzea eta bertan aldaketak sartzera oso zaila da»* eta *“hezkuntza proiektua tresna estatiko eta utopikotzat hartzen da, batzuetan egunero egiten denetik urruntzen dena»*.

Beraz, eta hezkuntza proiektua ekintzarekin etengabe egiaztatu beharra dagoen elementua denez, definitu denari buruz batasun zentzuaz berrezartzea eskatzen duena, alegia, non eta zergatik galdu da hezkuntza proiektu orok komunitatearekiko izan behar duen zentzu dialogikoa?



Zenbait arrazoi ematen dira proiektuaren eta hezkuntza ekintzaren arteko urruntze hori ulertzeko. Alde batetik, denbora ezak berraztertze analitikorik eta proiektuaren eguneratzerik ez izatea ekar lezake. Horrekin batera, gogoeta egiteko gune komunak eskasiak kolektibo bakoitzak bere eguneroko lanean baizik ez jardutea dakar, eta ondorioz, orokortasun ikuspuntua galtzeaz gain, ikastolaren hezkuntza proiektuan ezarria dagoen xede komuna urrutiratzeko da.

Baina benetan azaldu beharra dagoena proiektua hezkuntza komunitatearen barruan gizarteratzeko modua da, alegia, sentsibiltate desberdinak sartzeko, ekintzarako batasun puntua eta abiapuntua izan behar duen proiektuaren gakoak ezagutzeko erabili diren moduak eta hartu diren edo hartu ez diren erantzukizun maila desberdinak. Zentzu honetan, gurasoen kolektiboak proiektuaren kontzeptuen ez ezagutzea eta bere konplexutasunak dakartzan ulertzeko arazoak aipatzen dituzte, eta ez ezagutzeak familiaren eta ikastolaren hezkuntza ekintzen arteko kontraesanak ekar litzakeela uste dute. Horregatik, hezkuntza proiektua ezagutu behar dute eta bere garapenean bete behar duten funtzioari buruz hausnartu.

Gurasoen kolektibo honek egiten duen ekarpena noizbehinkakoa da eta gehienbat kirol jardueren antolaketari eta martxan jartzeari dagokie. Hauek hezkuntza mailako balio eta gaitasun handiko kultur jardueratzat hartzen dira eta ikastolak derrigorrezkotzat jo behar lituzke, *«pertsonek garapenean hezkuntza dimentsio osagarriak ekartzen dituztelako, hala nola, laguntasuna, adiskidetasuna, diziplina, etab»*. Dimentsiook hezkuntza proiektuaren printzipioekin eta ikastolen taldeak gidatu behar dituzten helburu komunekin bat ez datozela uste dute.

Ez-irakasleen taldeak ere hezkuntza proiektuari dagokionez duten ezjakintasuna azpimarratzen du, eta beraz bere garapenean konprometitzeko duten zailtasuna. Nolanahi ere, erantzukizun maila desberdinak ongi bereizten dituzte, beti ere proiektuaren gizarteratze mailaren arabera. Proiektua hedatzeari dagokionez, adibidez, zuzendaritza taldeari esleitzen diote erantzukizunik altuena. Ikasleek ere ez dakite ez hezkuntza proiektua zer den, ez hura garatzeko bete behar dituzten funtzioak zeintzuk diren.

Aurrez esan dugun bezala, «finkatuta» dauden ikastolek hezkuntza proiektua eta antolamendu eta jarduera-araudia landu dituzte jadanik; ikastola hauetako zuzendaritza talde gehienak, talde batzuek hezkuntza proiektua ezagutzen ez dutela oharturik, gurasoei doku-

Landutako proiektuaren eta ekintzaren arteko aldea ulertzeko arrazoiak: denbora eza, gogoeta egiteko gune komunak eskasia eta proiektua komunitatean gizarteratze erak.

Zenbait aurrerapauso hezkuntza proiektua gizarteratzeko prozesuetan.

mentu hauek ezagutarazten saiatu dira, matrikula garaian emanez zein posta bidez bidaliz. Hala ere, eta erosotasuna dela eta ikastolako beste dokumentu batzuekin egin ohi dutenez, gurasoen taldeak ez du uste familiek dokumentua irakurri dutenik.

Aurrerabideak: hezkuntza proiektuaren berrirakurtzea eta hau gizarteratzeko lanarekin laguntzea, komunitatearen partaide sentitu eta batasun zentzuaz lan egiteko asmoz.

Dena den, eta gizarteratze modu berriak erabiltzeak komunitatean eragin eskasa izan duela nabaria denez, aurrerabideak bilatu beharrean gaude. Lehenengoa ikastetxearen hezkuntza proiektuaren berrirakurtzean talde guztien ahotsek parte hartzea da, eta bigarrena gizarteratze lanari dagokio; azken honen ondorioak komunitatearen partaide sentitzea eta proiektuan zehaztutako helburuei dagokienez batasun zentzuz lan egitea lirateke. Azken finean, haiek duten ametsa errealitate bihurtzea: *«ikastolako talde guztiak guztien abiapuntua izango den proiektu zehatz baten alde lanean ikusi nahi genituzke, mimetismoak saihestuz eta, taldearen indarrak eta ahalmenaz baliaturik, osoko hezkuntza baten aldeko apustu eginez»*. Hau gauzatzeko, beharrezkoa da informazioa hobetzea eta taldeen arteko komunikazio guneak zabaltzea, beren ezagutza eta elkar ezagutza indartzeko asmoz. Lankidetzaren eta konpromisoaren ateak zabaltzea behar dira, beraz, eta, azken finean, jorratzen ari den bidea etengabe aztertu eta proiektuaren eta hezkuntza ekin-tzaren arteko bat etortzea bilatzeko bideak ezarri.

6.1.2. Ingurunean eta ingurunearekin eraikiz

Komunitate zentzua garenaren, nazioari eta inguruneari dagokienez dugun funtzioaren eta hori guztia hezkuntza mailan eraikitzen dugun moduaren ideia baten arabera eraikitzen da. Ikuspuntu honetatik abiatuta, ikastola-gizartea komunikazio edo fluxuari buruzko azterketa adieraziko da hezkuntza proiektuan. Era berean, komunikazio hau zehaztu beharko da ere sortuko diren baterako proiektu eta ekintza guztietan, talde guztiak barne hartzen dituztenak eta helburutzat komunitatearen eta horrekin batera ikastolaren beraren eta bere partaideen eraikitzea eta garapena dituztenak, hain zuzen ere. Honek guztiak "hezkuntza mailan gero eta aberatsagoak diren" testuinguruak garatzera darama. Emango den fluxu motak hala nola honek lortuko duen arrakastak, ikastolak inguruarekiko eraikitzen duen elkarrekintza motan ez ezik ikastolaren beraren funtzionamenduan ere eragina dauka. Hori dela eta azterketa hau oso garrantzitsua da.

Komunitate zentzua garenaren, nazioari eta inguruneari dagokienez dugun funtzioaren eta hori guztia hezkuntza mailan eraikitzen dugun moduaren ideia baten arabera eraikitzen da.

Baina, nolako harremana dute eta eraikitzen ari dira aztertutako ikastolek beren inguruarekiko?



Inguruarekiko duen harremana aipatzean honelako ezaugarrien berri izan nahi dugu, alegia, bi norantzakoa eta lankidetzak mailakoa den, fluxua sustraituta dagoen ala soilik noizbehinka gertatzen den... Harreman horri dagokionez, erantzukizunak nola banatzen diren, nortzuk gidatzen duten eta ikastolarako, ingurunerako eta bertan dauden pertsonentzako dituen ondorioak ulertzea ere beharrezkoa da. Hau guztiaren garrantzia ez dagokio soilik ikastola denari eta ikastolak eraikitzen duenari buruz ondorioztatzen den eta kanpora ateratzen den irudiari; eraiki den eta eraikitzen ari den hezkuntza proiektuaren izaerari dagokion aztarnen berri ematen digulako da garrantzitsua batik bat. Proiektuaren barruan, ingurunearen eta bere hezkuntza boterearen ulertzeak hezkuntza ulertzeko modu baten aurrean jartzen gaitu; hau irekiagoa ala itxiagoa izango da, motelago ala dinamikoagoa edota sare sozio-hezitzailean gehiago ala gutxiago sartuta. Beraz, nola aurkezten da inguru eta ikastolaren arteko elkarrekintza hau?

Ikastolak ingurunearekiko duen harremana ulertzeak eraiki den eta eraikitzen ari den hezkuntza proiektuaren izaera ulertzen laguntzen digu.

Lehenbizi, ikastola-gizartea fluxuak azterlan honetan duen esanahia zehaztea komeni da. Ikastolaren eta bere hurbileko zein ertaineko ingurunearen artean sortzen den harreman multzoa da; hau gauzatzen da parte hartzeko modu batean, material-, azpiegitura- eta giza baliabideen erabilera ulertzeko modu batean eta bi muturren arteko ezagutzan eta onartzean.

Nola ulertzen dugu ikastola-gizartea fluxua?

Horrela, ikastola guztiak bat datoz inguruarekiko harremana lantzeko orduan abiapuntutzat izan duten helburu nagusia aipatzean, hau da: euskalduntzea eta euskal kulturaren garapena. Helburu hau guztietan nabarmentzen da, baina bere zabaltze maila desberdina izango da ingurunearen arabera. Zentzu honetan, zabaltze maila handiagoa izango da inguruneak ere (taldeek, instituzioek, jarduera zehatzek...) bere ahaleginak euskalduntzearen eta euskal kulturaren sustatzearen alde ezartzen dituen heinean. Gainera, eraikitze sozial eta nazionalaren ideia ere aipatzen da, hezkuntza komunitatearen garapena ez ezik, komunitate garapena ere barne hartzen duena, alegia. Honela adierazten dute ikastoletako zuzendaritza taldeek: *«Hurbileko inguruarekiko bi norantzako harreman irekia dago, helburu komuna den euskalduntzeak eta euskal kulturak sustatzeak loturik, eta modu honetan herria eraikitzen laguntzen da» eta «ikastolak bere ekintzez laguntzen du herriaren eraikitze sozialean».* Ikastolako beste taldeek ez dute nabarmentzen zuzendaritza taldeek azpimarratzen duten ideia hori.

Euskalduntzea eta Euskal Kulturaren garapena izan dira ingurunearekiko harremana lantzeko garaian ikastolak gidatu dituzten helburu nagusiak.

Baina, nola erantzuten dio ingurune honek euskalduntzearen eta euskal kulturaren garapenerako helburu honi?

Ingurunearen erantzuna ikastolak kokatzen diren testuinguruetan dauden hizkuntza normalizazio maila desberdinei lotua dago.

Hizkuntz normalizazio maila baxuko testuinguruetan, ikastolek ingurunearekiko elkarrizketa sustatu nahi dute, zabaltze horretarako eta ardurakidetasunerako gune aproposak aurkitzea nekeza geratzen ari zaien arren.

Erantzuna ikastolak kokatzen diren testuinguruari dagozkien hizkuntz normalizazio maila desberdinei lotua dago. Aztertu ditugun kasuetan bi egoera desberdin azaltzen dira: alde batetik, hizkuntza normalizazio maila baxuagoa duten testuinguruetan kokatzen diren ikastolak. Hauek zailtasun gehiago dituzte inguruarekiko elkarrekin-tza eraikitze orduan, euskararen presentzia oso urria dela kontutan hartzen badugu. Horregatik, ikastolak, hutsune hori betetzearren, hurbileko ingurunearen barruko kultur dinamizatzaile gisa jarduten du batzuetan. Hona beren adierazpenetako batzuk: *«ikastolak bere inguruneak betetzen ez dituen beharrak betetzen ditu» eta «ikastola ikusmiran dago, beste inor ez dagoenez berak egin behar du dena, eta kalitatezkoa dela frogatu behar du gainera»*. Testuinguruotan, beraz, gehiegizko erantzukizuna agertzen da, eta ondorioz desorekak sortzen dira harremanetan, inguruneako entitate eta talde askorekiko harreman finkoen ezartzea oztopatuz. Irakasleek ere, testuinguru horietan euskarak dituen ordezkari bakarrak izanik, egundoko esfortzua egin behar dute euskal ingurunea eraikitze, eta honek frustrazioa eta desgastea ekartzen du. Irakasleen adierazpen hau testuinguru horietan bizi den egoeraren adierazgarri izan daiteke: *«Irakasleok dugu ikastolaren, eta beraz, euskalduntzearen proiektuaren ardura osoa. Egoera honetan, jabetza soziala garelako sentitzen dugu, beti zerbait egin beharrean dauden morroiak»*.

Testuinguru hauetan, ikastolak ezagunagoak dira *«ikastetxe onak»* (berriztatze proiektu batzuk garatzen dituztenak) direlako zentro euskaldunak direlako baino. Laburbilduz, ikastolek ingurunearekiko elkarrizketa sustatu nahi dutela esan dezakegu, baina horretarako eta ardurakidetasunerako gune egokiak ez dituztela aurkitzen. Ondorioz, elkarrekin-tza eraiki beharrean, ikastolek sustatu nahi dituzten proiektu sozio-hezitzaileak bideragarri egingo dituzten baliabideak lortzea izango da helburua. Honela diote: *«ikastola herrian burutzen diren jarduera eta ekintza guztien epizentroa da gaur egun. Ingurunearekiko dituen harremanak jarduera horiek abian jartzeko beharrezkoak diren baliabideak lortzera zuzentzen ditu. Gainera, ikastolek antolatzen dituzte euskaraz beste inork ezer antolatzen ez duelako»*. Egoera honek ikasleengan ere eragin handia du. Haien zat, beren gizarte inguruneak ikastolarekin eta euskararekin zerikusirik ez duela ohartzean, euskaraz lan egiteak zailtasunak suposatzen ditu gizarte ingurune horrekin harremanetan sartzeko orduan. Honelaxe adierazten dute: *«ikastolatik kanpo euskararik ez dagoenez, eta guk inguruarekin bizi eta harremanetan sartu behar dugunez, ikasleek biziki sentitzen dute hizkuntz gutxiengoa garen ingurune batean bizitzeak suposatzen duen kontraesana»*.



Zentzu honetan, galdera hau sortzen da: nola eragiten du egoera horrek gizarte eta hezkuntza mailan hizkuntza normalizazio maila baxuko testuinguruetan dauden ikastoletan?

Aztertu ditugun gainontzeko ikastolei erreparatu ezkerko hizkuntza normalizazio maila altuagoa duten testuinguruetan kokatzen direla oharitzen gara. Hauek tradizio luzeko ikastetxeak dira, euskararen munduan garrantzi handikoak izan direnak, alegia. Gaur egun, ordea, euskal eskola publikoaren legeak eta ikastolak publiko egin ala ez egiteko prozesuak sortu duten testuinguru berri honetan orientazio euskalduna duten beste proiektu batzuk indarra hartu eta gizartean tokia hartu duten heinean, ikastolek beren ingurunea birdefinitu eta beren nortasun ezaugarriak berraztertu behar dituzte. Bizirik irauteko, beraz, proiektu sozio-hezitzaile bereizgarri bat sortu beharrean aurkitzen dituzte beren buruak. Zenbait proiektu euskaldun batera bizi diren testuinguruetan lehia eta ingurunearen aurreko itxikeriarako joera sortzen dira bizirauteko tresna gisa. Honela diote: *«Nahiz eta duen balio sinbolikoa bizirik egon, ikastolak, euskararen inguruan dabilzan eragile ugariaren pisua dela eta, gizarte mailako garrantzia galdu du, eta honek bere barnean biltzera eramán du»*.

Egoera honek, talde guztietan eta haiek inguruarekiko dituzten harremanetan ez ezik, garatzen diren proiektuetan ere ondorioak ditu. Zentzu honetan, zuzendaritza taldeak ingurunekeo beste ikastetxe batzuekiko elkarrekintza eta elkarlan eza sumatzen du; hau ez da gertatzen, ordea, euskarari eta euskal kulturari dagozkien proiektuak garatzen dituzten beste entitate batzuekin. Irakasleek ere, testuingururik lehiakorretan zentroen artean agertzen diren errezeloak sentitu eta ezagutzen ditu, eta ez dute haietan parte hartu nahi.

Ikusten dugunez, ikastola hauek gizarte eragile bakarria izatetik zenbait testuingurutan esparru sozio-hezitzailea banatu behar izatera pasatu dira. Ondorioz, ingurunearekiko eraiki nahi eta behar dituen harremanen izaera birdefinitu eta birgauzatu behar du, honek era berean hezkuntza proiektua garatzeko unean lagun diezaion. Ez dugu ahaztu behar ikastolen ezaugarri nagusia euskarari eta euskal kulturari eman dioten bultzada izan dela, eta honek beren barruan burutu diren eta era berean beren nortasunaren ezaugarri diren hezkuntza berriztatze proiektuak estali ditu neurri handi batean.

Irakasleek atsekabez hartu dute egoera berri hau, alde batetik, ikastolen mugimenduak merezi duen gizarte mailako onarpen eza sentitzen duelako eta, bestetik, egoera berri honetan botere publikoek ikastolen helburu bikoitza bere egin dutelako; honek dramatzatza

Normalizazio maila altuko hizkuntza testuinguruetan kokatzen diren ikastolek beren gizarte-eginkizuna argituko badute, beren espazioa birdefinitu eta beren nortasun ezaugarriak berraztertu beharrean daude.

Gizarte mailan protagonismoa galtzeak kolektibo guztietan eta haiek ingurunearekiko dituzten harremanetan ez ezik, garatzen diren proiektuetan ere ondorioak ditu.

Ikastoletan estalia geratu da hezkuntza berriztatzearen dimentsioa, ikastolen mugimenduaren barruan indar handiko bereizgarria izan arren.

Non gelditu da hasierako pertzepzioa, hau da, ikastolek beren burua hezkuntza eragile berriztailetzat hartzea? egun, zer suposatzen du ikastolentzat gizarte ingurunearen barnean birkokatuz beren berezitasuna mantentzea?

Ikastola-gizartea fluxuan nabarmendu beharreko alderdiak.

Ikastolek parte hartzen duten gizarte mailako proiektuak hezkuntza ekintzaren barruan uztartzeko zailtasunak.

ikastolak, ezinbestean, direnari eta gizarte mailako egoera berri honetan hartu behar duten norabideari buruzko birplanteamendu batera. Ziurgabetasuna nagusi izango da hemendik aurrera instituzio mailan, eta denok dakigu egoera horretan bizitzea zein zaila den. Ziurgabetasuna matrikulazio garaian, garatu beharreko proiektuen aurrean, hori guztiaren onarpen eta harrena sozialaren aurrean, instituzio babesaren aurrean... Bai instituzioek bai profesionalak jasaten dute gainkargatzat hartzen dute. Hainbat galdera sortzen dira egoera honetan, gaur egun bete beharreko funtzioari buruz gogoeta egitean lagungarri izan daitezkeenak, alegia: non gelditu da hasierako autopertzepzioa, hau da, beren burua hezkuntza eragile berriztailetzat hartzea?, egun, zer suposatzen du ikastolentzat gizarte ingurunearen barruan birkokatuz beren berezitasuna mantentzea?, zein da ikastolaren funtzioa normalizazio egoera berri honetan? eta nola eraikiko dugu ingurunearekiko harremana ikastolaren proiektua gaur eguneko baldintza sozialetan garatzen jarraitzeko?

Gauzak horrela, ikastola-gizartea fluxuan ondo baloratutako eta nabarmendu beharreko zenbait alderdi positibo daudela uste dugu, harreman hau baloratzeko orduan talde bakoitzaren iritzia desberdina den arren. Ez-irakasleek, esate baterako, ikastola entitate irekitzat jotzen dute, beren egiturak gizarteratzen dituen heinean (testuinguruarekin banatzen du bere azpiegitura eta bere ateak herriko beste entitate eta jardunetara irekitzen ditu); gainera, ikastolaren ahalegin hori ez dela aintzakotzat hartzen uste dute, kanpoan bere hezkuntza gaitasun guztia ez baita ez ezagutzen ez behar den moduan baloratzen. Bere hezkuntza ahalmena eta gaitasuna kanpora ateratzeko zailtasuna izan liteke ezjakintasun honen arrazoietakoa bat. Gurasoek ere ikastola erlazionatzen den instituzioen eta kanpora begira garatzen dituzten proiektuen ez ezagutzea adierazten dute. Gainera, harremanetan sartuko diren instituzioei buruz gogoeta egin beharra dagoela uste dute.

Gizartearekiko fluxu harremana ulertzean gertatzen den distantzia hori harremanaren ardatza izan diren proiektuetan eman da bereziki, hezkuntza ikuspuntutik kanpoko izaera dutenetan, hain zuzen ere. Irakasleek berek ikastolan garatzen diren hezkuntza prozesu guztiei buruz testuinguruak duen ez ezagutzea azpimarratzen dute. Bestalde, parte hartzen duten gizarte mailako proiektuak eta ikastolaren eta gelako hezkuntza ekintzaren dinamika ez dira behar bezala uztartzen. Hori dela eta, proiektuotan partehartzea ikastola barruko eguneroko ekintzaren gizarte mailako gehigarritzat hartzen da, luzean gastatu, nekatu, frustratu egiten duen lan gehigarritzat, alegia.



Beraz, zer ari da gertatzen?, zergatik ez dituzte irakasleek gelaren errealitatea eta ingurunearena uztartzen?, zer dela eta ezin dute gizarte mailako ekintza hezkuntza mailakoan sartu, honi zentzu berria emanez? zerk oztopatzen du ingurunearekiko hezkuntza-elkarrizketa ezartzea, ingurunea eta ikastola bera hezkuntza mailan aberastuko lukeena, hain zuzen ere? Horrelako galderak sortu zaizkigu ikastoletan agertzen den errealitatea ikusita.

Burutzen ari garen gizarte mailako dimentsioari buruzko azterketa-tik eredu ezkorra ondorioztatzen da, eraiki den errealitateari eta gaur egun zentroek duten egoerari dagokienez. Hala eta guztiz ere, eta beste zentro batzuetan egin duten bezala, mugak abantailatzat edo aurrera egiteko aukeratzat hartu nahi ditugu. Zer esan nahi dugu horrekin?

Ikastola-gizartea elkarrekintzan berrikusi beharreko zenbait alderdi daude, hala nola: harreman horren helburuak birdefinitzea, erreferentziatzat zentroko proiektua hartuz, eta, birplanteamendu horretatik abiatuta, testuingurua eta ikastolaren eta komunitatearen hezkuntza eragile guztien hezkuntza ekintza indartuko dituen ikastola-gizartea elkarrekintza eraikitzea; horretarako, batzeko eta binorantzasun hori sortzeko gai diren proiektuak aukeratu behar dira, haien alde apustu eginez. Ikastolek, une honetan, beren mugak dituztela badakite, eta beren funtzioaren birplanteamenduaren beharra azaldu dute, aurrera egiteko ildo zehatzak ezarriz. Bide berri dinamikoagoak bilatu behar dituztela uste dute, apustu egitea merezi duten gizarte mailako proiektuak finkatzen lagunduko dietenak, hain zuzen ere. Gainera, nortasunaren eta gizarte ingurunearen bilatze horretan, gizartearen eskakizunei erantzuteaz gain, beren nortasunarekiko eta herri jatorriarekiko leialtasunari eutsi behar diotela uste dute; zentzu honetan ingurunean uztartu eta ingurunea dinamizatzea da biderik zuzenena, beti ere komunitate mailako ekintza ideia batetik abiatuta.

Zergatik ez dituzte irakasleek gelaren errealitatea eta ingurunearena uztartzen? zerk oztopatzen du ingurunearekiko hezkuntza-elkarrizketa ezartzea, ikastola bera hezkuntza mailan aberastuko lukeena, hain zuzen ere?

Aurrerabidea: ikastola-gizarte harremana berraztertzea eta, beharrezkoa balitz, berplanteatzea.

6.2. Hezkuntza ekintza eta honek ikastolan duen eragina aztertuz

Aurreko atalean nabarmen gelditu da talde guztiek, neurri handi edo txikiagoan, beren burua hezkuntza eragiletzat dutela. Egoera honetan galdera hau sortzen da, alegia, nola ulertzen du talde bakoitzak hezkuntza?, eta, zenbaterainoko adostasuna azaltzen dute hezkuntzaren kontzeptuari dagokionez?

6.2.1. Hezkuntzaren kontzeptua eta bere asmoak

Hezkuntza, azterlan honetan, pertsonaren garapenerako eta hobetzerako prozesutzat hartzen da, besteekiko elkarrekintzan, bere autoerrealizazioa eta euskal gizarte eta kulturarekiko konpromiso kritiko, eraginkor eta arduratsua errazten duen prozesua, alegia, beste gizarte eta kultura batzuekiko harremanetan.

Hezkuntza praktika asmo batetik abiatzen da eta zenbait balorek gidatzen dute.

Azterlanaren puntu honetan, eta ikastolen errealitatea hobeto ezagutzearren, kolektibo guztien praktika gidatzen duen abiapuntua ezagutu behar dugu. Horretarako, eta edozein hezkuntza praktika, edonondik datorrela ere (irakasleengandik, zuzendaritza taldearengandik, gurasoengandik, ez-irakasleengandik...) asmo batetik abiatzen dela eta balore batzuek gidatzen dutela kontutan hartuta, taldeok hautatzen duten hezkuntza kontzeptua ez ezik, bere hezkuntza praktikaren oinarrian dauden baloreak zeintzuk diren jakin behar dugu. Zentzu honetan, gainera, hezkuntza praktika objektibo eta neutrorik ez dagoela nabarmendu behar dugu, ekintza horien abiarazleak pertsonak garen heinean.

Talde guztiek aurrez adostu behar dituzte asmoak eta baloreak.

Era berean, ikastola unitatetzat hartzen duen ikuspuntutik, aurrez landu duguna, alegia, talde guztiek aurrez adostu eta banatu behar dituzte hezkuntzaren kontzeptua argitzen duten asmoa eta baloreak; horrela, beren ekintzei koherentzia emango diete, denek nahi duten «guztien ongia» lortzeko bidean.

Une honetan, ikastolen errealitatea ikusita, galdera hau sortzen da: zeintzuk dira, hezkuntzari dagokionez, talde bakoitzak azpimarratzen dituen baloreak?

Hezkuntzak gizartean nagusi den izaera instrumentala alda dezake.

Talde gehienek erantzukizuna, autonomia eta elkartasuna bezalako baloreetan oinarritutako hezkuntza kontzeptu baten barruan jardun nahi dute. Denen ustez, gaur egun, indibidualismoa, lehia eta kontsumismoa nagusi diren gizarte honetan, hezkuntzak gizartean nagusi den izaera instrumental hori aldatzen lagun dezake; izan ere, azterlan honen abiapuntua izan den hezkuntzaren kontzeptuarekin bat egiten dute.

Zentzu honetan, zuzendaritza taldeek aurrez azaldu dugun eta azterlan honen abiapuntua den hezkuntza kontzeptua onartzen dute; haatik, ikastolen ingurunean hezkuntzari buruzko hausnarke-ta sakonik ez dela egin uste dute. Gogoeta honek, gainera, zentroetan kolektibo bakoitzetik abiatutako hezkuntza ekintzak egitura-tzea ahalbidetuko lukeela gaineratzen dute.



Irakasleek ongi dakite zein behar duen izan hezkuntzaren helburua, alegia, beren buruarekin eta gizartearekin kritikoak eta autonomoak izango diren ikasleak garatzea; ildo honetan, hezkuntzak pertsonaren hobetzea eta garapena lortu behar dituela adierazten dute.

Hala eta guztiz ere, gizarteak eta gurasoek lehentasuna ematen diote irakaskuntza igorleari, instrukzioari, alegia. Hau akademi errendimenduan oinarritzen da, eta eduki kontzeptualak hartzea du helburutzat, hain zuzen ere. Hori dela eta, zenbait zuzendarik eta irakaslek baieztatzen digutenez, nekeza da aurrez aipatutako baloreetan oinarrituko den hezkuntza kontzeptu baten alde egitea. Zuzendaritza talde baten kide batek adierazten duenez... *«gurasoek zerbitzutzat hartzen dute ikastola, eta beren eginkizunak ez dituzte betetzen. Guraso askok garrantzi gehiago ematen diete akademi etekinei baloreei baino, eta ikastolari gehiegizko erantzukizuna eskatzen diote».*

*Hezkuntza igorlea
versus baloreetan
oinarritua.*

Gurasoen ustez, beren seme-alabak hezteko garaian duten erantzukizuna ikastolan baino gehiago familian dago. Hala ere, hezkuntza eragileak diren heinean, erantzukizun horrek ez du kentzen ikastoletan garatu behar duten eginkizuna; honen helburuak, bereziki, hezkuntzaren asmoak elkarbanatzea eta familiaren eta ikastolaren nahien arteko koherentzia bilatzea izango dira. Zentzu honetan, guztien helburu batzuen alde ikastolako beste taldeekin batera jardungo badute, oraindik ere bide luzea egin behar dutela uste dute. Horretarako aurrerapausoak ematen dituztela uste dute eta, alde batetik, helburu horiek zeintzuk diren argitzea, eta bestetik, baterako ekintzetan parte hartzea beharko luketela adierazten dute.

*Familiaren eta
eskolaren arteko
koherentzia bilatzea.*

Irakasleek ere azpimarratzen dute batera lan egin eta elkarbanatzeko behar hori: *«gurasoek hezkuntzari dagokionez dituzten asmoak desberdinak dira, eta horrek hezkuntza ekintza kontraesankorrek garatzera darama».* Esate baterako... *«gurasoek uste dute beren seme-alabek bakarka jolastean autonomia sustatzen dutela...»* eta hori ez da egia. Aitzitik, modu horretan indibidualismoa bultzatzen dute.

Ikasleek honela definitzen dute hezkuntza: *ezagutzak hartzea, edukiak jasotzea, harremanetan sartzea, autonomoak izatea, etab.* Baina egunero bizitzen dutenaren arabera, bigarren hezkuntzako goi mailako ikasleei dagokienez, batez ere, hori ez da praktikan gauzatzen. Haien ustez: *«irakasleek ez gaituzte hezten eta gurasoak dira*

eragile nagusiak. Irakasleek beren gaia ematen dute gelan, besterik ez». Azkenik, ez-irakasleek uste dute «guztion artean hezten dela, eta haiek, askotan, ikasleentzat eredu direla.»

Hezkuntza nola ulertzen den argitu eta adostu beharra, kontraesanak saihestearren.

Aurreko adierazpenetatik ikastoletan asmoari eta hezkuntza kontzeptuari buruzko argitze eta adoste prozesua ez dela arretaz burutu ondoriozta dezakegu, eta horrek interferentziak eta, are okerrago, kontraesan handiak sortarazten ditu hezkuntza komunitatearen eragile bakoitzaren eskuhartzeak koherentziaz gidatu behar dituzten oinarriak proposatzeko garaian. Hau talde guztiek egindako adierazpenetan islatzen da. Irakasleek, adibidez, honela mintzo dira: *«gurasoek eta irakasleek duten hezkuntza asmoa desberdina da... ikastolak igortzen dituen baloreak eta gurasoek igorritakoak ez dira berdinak»*. Zuzendaritza taldeek, bere aldetik, eta azterlan honetan hartutako definizioarekin bat eginez, adierazten dute: *«ikastolak irakasten du hezi baino gehiago»*. Ez-irakasleek ere ongi dakite *«beren lanak hezkuntza asmoa duela, baina hezkuntza helburu zehatzik gabe, hezkuntza proiektua ezagutzen ez duten heinean»*.

Aurreko hausnarketatik abiatuta, talde berdinek honelako alternatibak proposatzen dituzte, alegia: «hausnarketa guneak eraiki, hezkuntza kontzeptua eztabaidatu eta elkarbanatzeko, hizkuntza komuna eraikitzeko, beste taldeekin koordinatzeko, beste taldeen eskuhartzea ezagutzeko...».

6.2.2. Hezkuntza praktika aztertuz eta hura estaltzen duten baloreak argituz

Sail honetan talde desberdinek ikastolen inguruneetan burutzen dituzten hezkuntza praktikak aztertu nahi ditugu, horrela, egiten dena ez ezik, garatzen denarekin sustatzen diren baloreak ere ulertuko ditugulakoan. Beraz, azterketa honek ekintza gidatzen duten benetako baloreak azaleratu nahi ditu, berez jokabidea eta asmoa (implizitua zein esplizitua) uztartzen dutenak, hain zuzen ere.

Kolektibo ezberdinetan abian jarri den eztabaidatik ondoriozta daitekeenez, beren eskuhartzea, ikuspuntu hezigarri batetik baino, ikuspuntu instrumental eta mekanizista batetik gauzatzen da, alegia, beren eskuhartzeak aurrez proposatzen zen eta talde bakoitzak onartu eta bere egiten zuen hezkuntza kontzeptutik urruti daudela. Era berean urruntze horrek pentsamenduaren eta jokabidearen, teoriaren eta praktikaren arteko kontraesanak azalarazten ditu.



Irakasleek bi eskuhartze mailatan oinarritzen du bere lana: informazioa ematea eta heztea, baina bien arteko desoreka dagoela uste dute: *«informazio funtzioa bermatua eta garatua dagoen bitartean, hezkuntza funtzioa ez horrenbeste».*

Jarduera hori justifikatzearren, irakasleek honelako oztopo eta presio sozialak aipatzen dituzte: *«programa zabalak amaitu behar izateak beren praktika aurrez dena zehaztua dagoen ekintza bihurtzen du, eta ekintza horretan informazioa igorri egiten da soilik, gogoeta eta partehartzerako guneak ezarri gabe».* Benetako komunikazio-ekintzak oztopatzen dituzten planteamendu itxi horien alde jartzeak, baina, ziurtasuna ematen die irakasleei, modu horretan ikastolako beste talde batzuen (zuzendaritza taldea, gurasoak) eta gizartearen beraren eskakizunei erantzuten dietelakoan, nahiz eta honek kolektiboaren zati garrantzitsu batengan atsekabe hondarrak uzten dituen.

Ildo horretan, irakasleek adierazten dute *«ikastolak garrantzi handia ematen diola programari, eta programa osoa eman nahi izateak ikasleekiko harremanetarako denbora zaildu eta kentzen duela».* Mailarik altuenen (batxilergoa) ikasleak egoera horietaz ohartzen dira eta honela mintzo dira irakasleek gelan garatzen duten hezkuntza ekintzari buruz: *«irakasleek, gelan, bere gaia ematen dute, besterik ez... irakasleek, eguneroko eskoletan, garrantzi gehiago ematen diete edukiei eta ebaluazioari, batxilergoan batez ere...».*

Irakasleek nahi luketen hezkuntza kontzeptuarekin bat egitea galarazten dien beste arrazoi hau aipatzen dute, alegia, programek duten informazio osoa igortzeko kezkak informazio horren norantza bateko transmisiorako astirik baino ez duela uzten, ikasleek gogoeta eta partehartzea oztopatuz. Planteamendu itxi horiek, beraz, *«ikasleekiko benetako komunikazio ekintzak gertatzea oztopatzen dute... eta ikasleak gero eta heldugabeagoak eta arduragabeagoak izatea laguntzen dute».*

Irakasleek askotan testu liburua ematen dute bere helburuak ikastolakoekin bat datozen egiaztatu gabe; hori ere arazoa da irakasleentzat, testuok kanpotik agindutako programa itxiztat hartzen baititu, beren hezkuntza ekintzaren autonomiaren kalterako direnak, alegia.

Azpimarratzekoa da ere irakaleen kolektibo honek, bere hezkuntza ekintza deskribatzean, gainontzeko taldeekin elkarbanatutako irizpideek baino, intuizioak gidatutako praktikatzat hartzea. Edukiei

Irakasleen arabera, programei ematen zaie lehentasuna, gogoetaren eta komunikazioaren aurrean.

Edukiak planifikatzen dira, hezigarria inprobisatzen den bitartean.

dagokiena adierazten den bitartean, jarrerei eta baloreei dagokiena inprobisatu egiten dela uste dute. Ondorengoek balio dute aurrekoaren isla gisa: *«Edukiak planifikatzen dira, baina hezigarria inprobisatu egiten da... Ez dago planifikatutako hezkuntza helbururik. Dagoena praktikaren ondorioa da».*

Beste kolektibo batzuek irakasleek beren eskuhartzeaz duten ideia hori egiatzaten dute. Horrela, zuzendaritza taldeen ustez, *«gelak ziurtasuna ematen dio irakasleari... Egiten denari buruzko hausnarketak, aldiz, ziurtasun eza eragiten du eta zaila da aldaketa burutzea... Hezkuntza ekintzan erosoago aritzen dira planteamendu itxietan, eta beste era bateko planteamenduei nolabaiteko beldurra diete... Programak oso luzeak dira, programa osoak garatzeko denborarik ez dago eta gaiak askotan oso azkar ikusten dira... Irakasleek ikasle guztiengana heldu nahi dute baina erabiltzen den metodologia hurbiltze horren kaltetan doa».*

Familiek ongi deritzote irakasleek egindako lanari.

Irakasleek zailtasunak aurkitzen eta sentitzen dituzte, beraz, hezkuntza lana burutzean. Gurasoek, aldiz, orokorrean ontzat hartzen dute irakasleen jokaera eta, ondorioz, hezkuntzaren profesionaltzat hartzen dituzte eta konfiantza handia jartzen dute beraiengan beren seme-alabak hezteko garaian.

Zuzendaritza taldeen lanak ikastola planifikatzean eta kudeatzean datza.

Zuzendaritza taldeei dagokienez, haiek ikastolan burutzen dituzten eskuhartzeak, bereziki, honako alorretan ematen direla uste dute, alegia, antolaketan, kudeaketan, plangintzan eta honen funtzionamendu orokorraren ebaluazioan. Horrela dio zuzendaritza talde batek: *«zuzendaritza taldearen funtzionamenduan lau atal nagusi bereiz daitezke: plan orokorraren burutzea, honen abian jartze eta ebaluatzea eta hobetzerako ekintzak proposatzea».* Orokorrean, burutzen dituzten ekintzak aurrez onartzen zuten hezkuntza kontzeptutik urruti daudela adierazten dute, talde desberdinetan hezkuntza ekintzaren garapena sustatu eta errazteko oso garrantzi txikia dutela, alegia.

Egoera hori justifikatzeko aipatzen dituzten arrazoen artean lan karga handia eta denbora eza daude. Ondorengo adierazpenek zuzendaritza taldeen gehiengo handi baten sentimendua islatzen dute: *«... Gaur egun, zuzendaritza taldearen lanak funtzionamendua eta antolaketarekin lotutako lanak hartzen ditu bereziki. Eztabaida taldeetan bildu denaren arabera hezkuntza kontzeptu baten alde lan egitearren, gure lanak curriculumaren garapena eta berrikustea sustatu behar lituzke, baina eguneroko dinamikak ez du hori gauza dadin laguntzen.».*



Ez-irakasleak ere irakasleen eta zuzendaritza taldeen ildo berean mintzo dira: *«geure hezkuntza lana ez dugu ez planifikatzen ez antolatzen, eta, beraz, intuizioz garatzen dugu hezkuntza proiektua»*. Nolanahi ere, beren lana harantzago joan daitekeela uste dute, eta beren funtzioek eta eguneroko eginkizunek ikastolan egunero garatzen den hezkuntza ekintzan garrantzia dutelakoan daude. Hauxe adierazten dute horren inguruan: *«aukera gutxi dituztela ematen duen arren, beraiek hezitzailetzat dute beren burua ikasleekiko, familieekiko eta irakasleekiko harreman zuzenean daudenean, jangelan, leihatilan, pasabideetan, etab.»*

Ez-irakasleek beren lana hezkuntza ekintzan islatzen dela uste dute, baina lan hori planifikatu beharko litzateke.

Gurasoek ongi dakite zein garrantzitsua den beren ekintza beren seme-alaben hezkuntzarako, eta ziur daude hezten ari direla, baina, aurrez aipatu dugun bezala, ikastolan eta irakasleengan jartzen dute beren konfiantza. Irakasleekiko eta ikastolako gainontzeko hezkuntza eragileekiko komunikazio maila altuagoa lortu nahi dute, hezkuntza ekintza koherenteagoa erdiesteko asmoz, praktikan kontraesan gutxiagoren sorburu izango dena, hain zuzen ere. Honela adierazten dute: *«irakasleek eta gurasoek, norabide berdinean joango badira, lan egiteko baloreak eta jarrerak adostu behar dituzte»*.

Gurasoek ikastolarekiko harreman maila altuagoa nahi dute.

Beren hezkuntza maila garatzeko gutxieneko maila ez dutela uste dute, eta ikastolaren eta familien arteko erlazio maila altuagoa izatea nahi lukete *«eskolako eta familien hezkuntzen artean ez dago erlaziorik; zentzu horretan, hezkuntza proiektuaren alde jarduteko asmoz, komunikazio arinago eta konprometituago baten beharra nabaritzen dute, baina ez dakite nola gauzatu»*. Guraso gehienek zailtasunak dituztela onartzen dute, beren seme-alabek, gero eta gehiago, *«ez dutelako erantzukizunik nahi, denaz kexu direlako, ez dutelako konponbiderik ekartzen, ez dutelako etxeko lanetan parte hartzen... azken finean, pasiboagoak direlako»*. Hau da gurasoek ikastoletan jartzen duten konfiantza justifikatzeko arrazoietakoa bat. Horrekin batera beste arrazoi batzuk daude, hala nola, beren lana ondo burutzen ari diren ala ez jakiteak eragiten dien ziurtasun eza, gerta lekietan aurrean (bortxaketak, drogak, etab.) duten beldurra eta nola hezi behar luketen ez jakitea. Horixe adierazten dute honelakoak jaurtitzen dituztenean: *“hezkuntzaren oinarria etxean jaso behar dute, baina zaila da seme-alabekin gizatiarrak eta gizartekoiak izatea bezalako baloreak irakastea. Gurasooi zaila egiten zaigu heztea...”* eta *“hezkuntza etxean, familian ematen dela uste duten arren, ikastolan jartzen dute beren konfiantza»*.

6.2.3. Hezkuntza ekintzari zentzua emanez

Azterlan honetan zehar ikastola hezkuntza komunitatetzat hartu dugu, bere hezkuntza praktika gidatzen duten asmo eta balore batzuk elkarbanatzen dituen unitatetzat, alegia. Hezkuntza praktika honek pertsonaren garapena eta hobetzea bilatzen du; ildo honetan, pertsona, beste pertsona batzuekiko eta bizi den testuingururarekiko elkarrekintzaren bidez, eraiki eta autoerrealizatzuz joango da. Atal honetan, ikastola desberdinetan garatzen den hezkuntza ekintzaren ebaluazio prozesua nola garatzen den aztertu eta ezagutu behar dugu, alegia, zein da ebaluazioaren praktika gidatzen duen zentzua, zeinek ezartzen dituen funtzioa eta ebaluazio irizpideak, ebaluazioa nola garatzen den. Azken finean, talde desberdinek egindako hezkuntza ekintzaren gaineko ekintza kritikoa nola baloratzen den eta nola burutzen den ezagutzea, hala nola ekintza kritiko hori aurrez ezarriak zeuden helburuekin bat datorren egiaztatzea.

Ebaluazioaren funtzioa ez dago ongi zehaztua.

Kolektibo ezberdinek esan eta ekarritakoen azterketatik, ikastolan ebaluazioari ematen zaion funtzioa zein den asmatzea ez da erreza gertatu. Zenbait taldek erreferentzia urri ekarri du gaiaren inguruan, eta irakasleek eta zuzendaritza taldeak soilik izan dira ebaluazioaz mintzo direnak.

Honek galdera batzuk sortarazten ditu: Zenbateraino da ebaluazioa ikastolek «gainditu gabeko gaia»? oraindik alderdi teknikitzat hartzen da, soilik ikasleen errendimenduarekin harremana duena, hain zuzen ere? ala, alderantziz, hezkuntza ekintzaren hobetze eta garapenerako alderdi garrantzitsutzat hartzen da?

Ebaluazioak, batik bat, edukietan eta errendimenduan jartzen du arreta.

Irakasleek esandakoen arabera, ebaluazioari lotutako kultura finkorik ez dagoela dirudi. *Horrela onartu eta adierazten dute: «tradizio handiagoa dago edukiak planifikatzeko garaian beroriek ebaluatzeke baino».* Are gehiago, ez ebaluatzerara, ala, hobe esanda, ebaluazioaren planteamendu erreduktionistegia eta instrumentalegia egitera bultzatzen dituzten arrazoiak aipatzen dituzte: *«ebaluatzea, oraindik beldurra ematen duen jarduera da. Eman behar diren edukiak eta beroriek nola eman ebaluatzen da soilik, eta horrek ziurtasuna ematen du».*

Bestalde, ongi dakite ebaluazioak zenbait alderdi hartu behar dituela barne, ez duela edukiarekin erlazionatutako ezagutzen jabeak soilik neurtu behar, alegia. Ildo horretan, zenbait ideia aipatzen dituzte, bere garapenean sakontzea mereziko luketenak, hain zuzen ere: *«ikasle bakoitzaren ebaluazio pertsonala egitea beharrezkoa dela uste dute; areago, hau gurasoekin batera egin liteke».*



Gainera, hezkuntza ekintza ebaluatzeko garaian, beste zenbait elementu ere ebaluatzeko gai izan litezkeela uste dute, besteak beste irakasleak: *«ikasleek irakasleen lana ebaluatzearen alde daudela adierazten dute, baina eman litezkeen emaitzen beldur dira».*

Nolanahi ere, argi dago ebaluazioak berrikustea eta planteamendu zehatzago eta orokorragoa behar duen lana dela, eta ildo horretan garbi diote: *«gauzak ez dira sistematikoki ebaluatzen... komenigarria deritzote ebaluazioarekin eta bereziki ikasleen sustapenarekin lotutako alderdiak batera lantzeari... garrantzitsua zikloen arteko segimendua egiteari, gutxienekoak ezartzeari eta ikasleen txostenak pasatzeari».*

Bestalde, zuzendaritza taldeek azpimarratzen dute *«irakasleek ikasleak neurtzen dituztela eta hauek epaituta sentitzen direla».* Honek ebaluazioaren praktika bereziki ikasleen errendimenduan oinarritzen delako ideia indartzen du, ikasleek berek kritikatzuten duten ideia, hain zuzen ere: *«ez dute nahi ebaluazioa azken azterketaren notan oinarritzea, eta dena apustu bakarrean jokatzera ez dela zuzena uste dute».*

Ebaluazio mota honek, duen zentzuari buruzko zenbait galdera sortarazten ditu: ikasleak autoerrealizatzeko, eraikitzeko, garatzeko gai diren jakiteko, ezagutzak ebaluatu behar ditugu soilik? ikastearen emaitzak ebaluatzeak soilik, bermatzen al digu hezkuntza ekintza eraldatzailea dela, alegia, ikasle guztiak pertsona gisa errealizatzen laguntzen dituela?

Zuzendaritza taldeen ekarpenen azterketarekin jarrituz, beraz, garbi dago ikastolan ez dela ebaluazio sistematikorik egiten: *«formalki ez da ebaluaziorik egiten, eta irakasleen artean ere ez du ematen egiten denik».* Kasu batean bakarrik zuzendaritza taldeak zera adierazten digu: *«bere funtzioei dagozkien hezkuntza ekintzaren prozesu guztiak ebaluatzen ditu».*

Hala eta guztiz ere, aurrera egiteko zenbait ildo antzematen hasi dira eta ebaluazioa, aurrerantzean landu beharreko lana dela uste dute. Horrelaxe adierazten dute zenbait zuzendaritza taldek: *«zuzendaritza taldearen lanak, azterlan honen abiapuntua den hezkuntza definizioan jasotzen dena lortzearen, garrantzi gehiago eman behar die curriculumaren garapenari eta berrikusteari».* Hala ere, ez dirudi xede hori lortzea lan samurra denik. Izan ere, *«zuzendaritza taldeen lanak, gehienbat, funtzionamenduan eta antolaketan jartzen du arreta».*

Nolako zentzua eman nahi zaio ebaluazioari?

Zuzendaritza taldeek gehiago bultzatu behar dute curriculumaren garapena eta ebaluazioa.

Gainontzeko kolektiboek esandakotik ezer gutxi eskura daiteke gai honen analisirako, zeren bereziki beren seme-alaben eta txostenen –irakasleek beren ikasleen ikaste prozesua nola garatzen ari den komunikatzeko bidaltzen dituztenak, hain zuzen ere– ebaluazioari dagozkion zenbait alderdi nabarmentzen baitituzte. Zentzu honetan, *«ongi samar ezagutzen dute etengabeko ebaluazioaren zentzua, baina oraindik azken ebaluazioari gehiegizko garrantzia ematen zaiola uste dute»*. Bestalde, beren seme-alabak garatzen ari diren hezkuntza prozesuaren informazioa jasotzen duten moduari dagokionez, pozik daudela adierazten dute: *«aldaketa positiboa eman da aldizka bidaltzen diren txostenetan... gero eta osoagoak dira»*. Era berean, oso ongi deritzote ebaluazio kontseiluak sortu izanari, modu horretan ebaluazioa objektiboagoa izango delakoan. Haatik, beraien hezkuntza ekintzaren ebaluazioari buruz ez dute ezer azaltzen.

Azterketatik ondorioztatzen denez, ebaluazioak zuzendaritza taldearen zenbait funtzio eta ikasleen errendimendua besterik ez du barne hartzen; beraz, ebaluazio prozesuek ekar dezaketen hezkuntza mailako eta garapen pertsonal, profesional eta instituzional mailako gaitasuna txikiagotu ez ezik, hezkuntza praktiken eraldaketa, hausnarketatik eta hezkuntza ekintza garatzen den egoeretan ematen dituen elkarrekintzetatik sor litekeena, hain zuzen ere, mugatzen da neurri handi batean.

6.3. Antolaketa, kudeaketa eta komunikaziotik horizontaltasuna edo binorantzatasuna eraikiz

Kudeaketa eta antolaketa hezkuntza proiektuaren garapena errazten edo oztopatzen duten ekintzei dagozkie.

Txosten honetan zehar behin baino gehiagotan azaldu dugunez, hezkuntza komunitateak hautatzen duen hezkuntza kontzeptua hezkuntza zentro batean, ikastolan, gure kasuan, garatzen diren ekintza guztien ardatza da. Hezkuntza komunitatea, zenbait taldez osatutako giza taldea den heinean, bere hezkuntza proiektuaren inguruan adostutako lanaren bidez autoeraiki eta finkatzen den bitartean, kudeaketa eta antolaketaren arloa ikastolako plan orokorraren plangintzari eta abian jartzeari dagozkien ekintza guztiek dute, hezkuntza ekintzen garapena, eta ondorioz, hezkuntza proiektuaren garapena erraztu ala oztopatzen dutenak, hain zuzen ere.

Eztabaida taldeek ekarri ugari egin dute kudeaketa eta antolaketa gaiaren inguruan, eta honek gaiok gaurko ikastoletako eguneroko-



tasunean hartzen ari diren garrantziaren berri ematen digute nola-bait. Hala ere, dimentsio honen azterketa sakonak joera bitxi bat adierazi digu hasiera batean. Izan ere, berriemaileek ez dute instituziook egun dauden garapen puntu heltzea, alegia, erakunde gisa eraikitzen eta bilakatzen ahalbidetzen dituen, posible egin duten antolakuntza alderdirik aipatu. Beren antolaketetan antzematen dituzten zailtasun, oztopo eta arazoak aipatu dituzte bereziki, eskola-instituzio helduak diren heinean beharrezkoak dituen harremanak, instituzio giro ona edota funtzionamendu informal, ireki eta elkarreragileak eraikitzea ahalbidetu dizkieten prozesuen, mekanismoen, baliabideen etab. aipamenik egin gabe. Zentzu honetan, beharrezkoa deritzogu ikastolei buruzko irakurketak itzultzeko beharra azpimarratzeari, antolaketan alderdi positiboak berreskuratuz, hain zuzen ere, eta haien aurrerabideak eta hobetzeko pausoak ezarriz. Inork ez du hutsuneen gainean ezer eraiki, baizik eta zeintzuk diren jakinda, ongi jarritako zimenduen gainean euskarriak bilatu. Txosten honetan agerian uzten saiatuko gara, etorkizunean ikerketa eta hezkuntzarako gidak izango direlakoan.

Ikastolek, beren antolaketetan antzematen dituzten zailtasun, oztopo eta arazoak, aipatu dituzte bereziki, beharrezkoak diren harremanak, instituzio giro ona edota funtzionamendu informal, ireki eta elkarreragileak eraikitzea ahalbidetu dieten prozesuen, mekanismoen, baliabideen, etab. aipamenik egin gabe.

6.3.1. Hezkuntza plangintza, bi antolaketa profilen izateko arrazoia

Ikastolek, aurrez azaldu dugun moduan, antolaketa euskarrien aipamenik egin ez badute... zeri buruz hitz egin digute? Lehenengo hurbiltzeak ikastola «gazteak» eta ikastola «finkatuak» izeneko bi antolaketa bereiztera garamatza.

Bi profil: ikastola “gazteak” eta ikastola “finkatuak”.

Ikastola «gazteei» dagokienez, beren lehenengo bereizgarria talde guztien ekintzak bilduko lituzkeen plangintza orokorrik gabeko funtzionamendua da; honek kontraesanak sortarazi ditu hezkuntza ekintzaren barruan, hezkuntza eragileren arteko ekintza kontrajarririk ematen baitira. Plangintza eza honek oraindik finkatu eta zehaztu gabe dagoen antolaketa eta kudeaketa aurkezten digu, lanak eta erantzukizunak zehaztu ez eta antolaketaren arautzeari dagokionez maila baxuak dituen, erabakiak hartzeko mekanismo nahasiak... Antolaketa profil honek, gainera, irizpide esplizitu ezagutu edo adostuen ezean, etengabeko aldaketak ekartzen ditu ikastolentzat. Ikasleek berek sumatzen dute funtzionamendu modu hori, eta honela diote: «*taldeen artean ez dago loturarik eta ez dute talde gisa jarduten*».

Ikastola “gazteen” antolaketa ezaugarriak: funtzionamendu asistematisak.

Funtzionamendu estilo honek, ahozkoa idatzizkoa baino askoz ere gehiago erabiltzeaz gain, honelako ezaugarriak ditu: berehalakota-

Instituzio hauek maila ona ematen dute talde harremanetan, jarreretan edo motibazioetan, baina ziurgabetasuna nagusitzen da talde guztietan.

Aurrerabidea: funtzionamendu sistematikoagoak zehaztea.

Ikastola "finkatuek" finkatutako plangintza aurkezten dute, ikastolaren funtzionamendu orokorrerako gida izan nahi duena, hain zuzen ere.

sunera erantzunean (etengabe jasotzen den guztiari erantzunez jarduten da), ohituren arabera ibiltzea (sortzen denari erantzutearen poderioz, egiteko erak finkatzen dira) eta boluntarismoa (aurrera egingo bada, beharrezkoa da guztiek borondate onez jokatzea). Denok dakigu honelako organizazio batek funtzionamendu sistematiko horrek eragindako zailtasunak orekatzea ahalbidetzen duen egitura informal baten beharra duela. Instituzio hauek maila ona ematen dute talde harremanetan, jarreretan edo motibazioetan. Beste alde batetik, ordea, informazioa berrelikatzeke, datuak egiaztatzeke edota prozesuak aztertzeke aukera norberaren oroimenaren menpe dagoenez, ziurgabetasuna nagusitzen da kolektibo guztietan, gaizki ulertuen eta kutsaduraren arriskua gemituz.

Gauzak horrela, zertan egin behar dute aurrera ikastola «gazteek»? Dauden egoera hori berrorientatzeko beharra adierazten dute aho batez, kudeaketa planen zehaztean eta funtzionamendu sistematikoago baten garapenean aurrera egitearren; honek, hain zuzen ere, aukera emango lieke une oro antolaketa mailan non dauden eta norantz jo behar duten egiaztatzeke. Hona aurrerabideen inguruan egindako adierazpen batzuk: «*antolaketa, kudeaketa eta plan orokorra amaitua ikustea ikastolan indartu beharreko alderdiak dira; honela, norberak bere lanak eta erantzukizunak zeintzuk diren jakingo du, eta antolaketa hobetuko da*» eta «*hasi gara jada antolaketari buruzko zenbait gauza idatziz planifikatzen eta bide zuzena haxe dela uste dugu*». Ondorioz, ikastola horien esanetan antolaketaren eta kudeaketaren inguruan sortzen diren arazo guztiak plangintza ezak eragindakoak dira; honenbestez, ikastolaren plan hipotetiko batek konponduko lituzke oztopo guzti horiek.

Baina aurrez ere esanda dago ikastola «finkatuetan» errota dagoen antolaketa mailako bigarren profila dagoela; ikastola hauek finkatutako plangintza aurkezten dute, ikastolaren funtzionamendu orokorrerako gida izan nahi duena, hain zuzen ere. Ikastola hauetako bakoitzak ibilbide desberdina egin du bere antolaketa garapenerako bidean, baina, plangintzari dagokionez, «gazteetatik» bereizten dituzten ezaugarri komunak dituzte. Honelako adierazpenak jaurti dira gai horren inguruan, gure ustetan instituzio garapenari dagokionez beste maila baten adierazle direnak, hain zuzen ere: «*kudeaketa egoki eta eraginkorra dugu. Geure funtzionamendua eta baliabideak geure dinamika eta beharretara egokitu ditugu*», «*oso argi dugu jarraitu beharreko bidea zein den*», «*Ezarria dugun curriculum koordinazioak lasaitzen gaitu*».



Instituziootan funtzionamendu zehaztu eta sistematikoa dago, idatzizkoan oinarrituan baina pixkanaka eguneroko zereginetan gauzatu dena. Honela baieztatzen dute: *«batzuetan intuizioz jarduten dugula pentsatu arren, gure lana gero eta sistematikoagoa da, idatzizko protokolo batzuei erantzuten diegun heinean».*

6.3.2. Ibilbide desberdinak eta oztopo berdinak

Aurrez azaldu dugun bezala, plangintza izatea ala ez izatea da ikastola «gazteak» ala «zaharrak» bereizteko ezaugarri nagusia; horren arabera, logikoena litzateke desberdintasun horrek antolaketa profil bakoitzari berezko arazoak eta ondorio desberdinak ekartzea. Baina ez da horrela gertatzen. Gezurra badirudi ere, bi profilek bat egiten dute erabat antolaketa eta kudeaketa mailan dituzten arazoak azaltzeko garaian. Beste modu batean esanda, batzuek zein besteek dituzten arazoak berdintsuak dira eta soilik ñabardura txiki batzuek bereizten dituzte.

Zeintzuk dira kezka horiek, ikastolak elkarren artean hurbiltzen dituzte oztopoak?

Azterlanean zehar esangura duten zenbait gune agertzen dira, aztertutako ikastoletan agertzen diren antolaketa eta funtzionamendu oztopoak islatzen dituztenak, hain zuzen ere; gune horiek elkarren artean harreman estuak dituzten multzo handi hauetan sailkatu ditugu:

6.3.2.1. Ikastetxearen ikuspegi orokorra oztopatzen duten arazoak

Zerbaitetan aritzeko grina dute ikastolek izendatzaile komun gisa, zenbait ekintza-bide ezberdin batera zabaltzeko joera, alegia, baina lehentasunak ezarri gabe, eta honek kolokan jartzen du hezkuntza proiektuak izan behar duen norabide orokorra. Aztertutako ikastolek aktibismo maila aldakorrak aurkezten dituzte, eta bertan bil daitezkeen zenbait baldintzek zentroaren ikuspegi orokorra ilundu eta galarazten dute. Dinamika horren adierazgarri gisa, ikastola finkatu baten zuzendaritza talde batek egindako adierazpenak: *«Lan asko egiten da, baina lehentasunik ez da ezartzen eta orokortasun ikuspuntutik ez dago; horrek antsietatea sortarazten du askotan».* Ikastola gazte baten irakasleek ere honelako iritzia dute beren buruaz: *«denetara iritsi nahi dugu eta aktibismo eta mugi-*

Gezurra badirudi ere, bi profilek bat egiten dute erabat antolaketa eta kudeaketa mailan dituzten arazoak azaltzeko garaian.

Ikuspegi orokorrak finkatzeko zailtasunak.

a) Zerbait egiteko behar handia. (aktibismoa).

Aurrerabidea: egiten denari buruz gogoeta egin, bere alderdi positiboak eta negatiboak aztertuz.

mendu jarrera hori ikastolaren bereizgarri bihurtu da: Gauza asko hasten dira (irakasleentzako planak, dirua lortu...) baina probetxu osoa ateratzen ez zaienez eta ebaluaziorik egiten ez denez ez dira burutzen». Aipatutakoek, azterlanean zehar ikusiko dugunez, arazoa aurkeztu ez ezik, hura gainditzeko gakoak azaltzen dituzte. Egiten denari buruz gogoeta egin beharra dago, gure uste-tan, bere alderdi positiboak eta negatiboak bereiziz, eta horrela gehiegizko aktibismo hori ulertu planteamenduak modu lasaiago eta orokorragoan hartzearren.

b) *Etapen arteko koordinazioa.*

Zikloetan koordinazioa dagoen arren, zikloen arteko koordinaziorik ez dago.

Balizko arrazoiak: ordutegi konplexuak eta antolaketa kultura desberdinak.

Aurrerabidea: lankidetzazko gune eta jarrerak sortzea.

Ikastolako kolektiboen arteko eta etapen arteko koordinazio eza da ikuspuntu orokorra galarazten digun bigarren oztopo multzoa, eztabaida taldeetan oso nabarmen gelditu den bezala. Hezkuntza mailei dagokienez, irakasleak beren zikloen barnean koordinatzen direla gertakari orokortzat hartu behar dugu, baita bilerek pedagogi edukia dutela ere: helburuen egiaztatzea, metodologia, ebaluazioa, irakasle multzo jakin horri dagokion unitate didaktikoa, etab. Baina etapen arteko koordinazio eza ikastola guztietan gertatu ohi da, eta irakasleek eta zuzendaritza taldeek ez ezik, gainontzeko taldeek ere ongi dakite hori. *«irakasleek beren zikloaren eta etaparen barnean antolatua ikusten dute beren burua, baina etapen artean ez dago ez koordinaziorik ez komunikaziorik. Gainera, elkarrengandik gero eta urutiago sentitzen dira», «etapen arteko koordinazio falta hori ikastolaren ikuspegi orokorraren kaltetan doa. Horrek kontraesanak sortarazten ditu ikasleak hezteko garaian».* Funtzionamendu horrek, beren elkarren arteko harremanak oztopatu ez ezik, zailtasunak sortarazten dizkie hezkuntza ekintza koherentea izateko bidean.

Zerk eramaten ditu ikastolak egoera honetara? Ez dago, jakina, kausa-ondorioa erlazio unibokorik, zentro bakoitzean eragin desberdina duen alderdi ugaritasuna baizik. Berriemaileek denbora komunak aurkitzeko zailtasuna nabarmentzen dute, gogoeta egiteko elkarguneak aurkitzea erraztuko luketenak, hain zuzen ere, eta lan- eta eskola ordutegi konplexu eta desberdinak aipatzen dituzte horretarako arrazoi nagusi gisa. Baina ordutegiez gain, ezin dugu ahaztu hezkuntza etapa desberdinetan lanbide kultur desberdinak daudela, hezkuntza ekintza, eta ondorioz, antolaketa mailakoa, ulertzeko modu desberdinak daudela, alegia, kasuaren arabera taldeka-ko lana erraztu ala oztopatuko dutenak, hain zuzen ere. Irakasleek eta zuzendaritza taldeek ongi dakite hori eta zenbait aztarna aipatzen dituzte garatu beharreko ekintza ildoari buruz; ildo horiek lankidetzazko gune eta jarrerak sortzea dute xede, hain zuzen ere.



Honela mintzo dira zentzu horretan: *«ordutegia dela eta goi mailako irakasleek biltzeko aukera gutxi dituzte, eta ondorioz bere lana banakakoa da, tutoretza bezalako alderdi batzuk batera lantzen diren arren. Aurrera egiteko modu hau beste gai batzuetara zabaldu beharko litzateke eta zuzendaritzak berak sustatu beharko luke».*

Koordinazio mailako oztopoen ildoan jarraituz, ikastolako taldeen arteko koordinazioa ere azpimarratu beharra dago, hezkuntza komunitatea finkatuko bada arin eta errez jardun behar duena, zalantzarik gabe. Nabaria da ikastola bakoitzari koordinazio maila desberdina dagokiola, eta ikastola bereko talde batzuk beste batzuk baino gehiago ala gutxiago koordinatzen direla. Hala ere, ikastolaren antolaketari eta kudeaketari dagokienez, azpimarratu behar da guraso eta ez-irakasleen distantzia ia endemikoz erabat kanpo gelditzen direla, ikasleek ia ez dutela parte hartzen eta zuzendaritza taldearen eta irakasleen arteko aldea gero eta handiagoa dela. Hori baieztatzeko, honelakoak jaurtitzen dituzte etengabeen talde desberdinek: *«zuzendaritza taldearekiko harremana hotzagoa da eta gero eta urrutiago ikusten dute. Arazo larriren bat dagoenean soilik jotzen dute hartara» eta «ia ez dugu ikastolaren funtzionamendua ezagutzen» edo «estamentuen arteko koordinazioz ez dago eta horrek hutsegiteak eragiten ditu eguneroko lanean».*

Baina, zer dela eta taldeen arteko koordinazio eza hori? Ikastolek burutu berri duten analisiaren gunerik indartsuenetarikoa den informazioaren eta antolaketaren gizarteratzean aurki genezake erantzuna, bertan dauden zenbait hutsunetan, zehazkiago esateko. Ikastola guztietako dokumentu desberdinetan (funtzionamendu arauetan, barne arautegian...) antolaketa eskema bat azaltzen da. Baina hori ez da nahikoa; beharrezkoa da, gainera, talde guztiek antolaketa hori ezagutu eta onartzea, horrela haiek instituzioaren barruan zentzuz jardun dezaten. Ikastetxeetan ez da harritzekoa arauak badaudela jakin bai baina beren edukia ezagutzen ez dutenez dokumentu horiek kontutan hartzen ez dituzten pertsonak aurkitzea. Horrela, eztabaida taldeetan iritzi desberdinak mahaigaineratzen dira zenbait arazoren aurrean hartu beharreko jokabideari dagokionez, dela biderik praktikoena eta informalea erabiliz, dela aurrez ezarritako antolaketa bideak errespetatuz. Honela diote, hain zuzen ere, ekintza komunaren behar hori azpimarratuz: *«lana modu eraginkorragoan garatzearen, beharrezkoa litzateke talde guztiek adostu eta errespetatuko luketen arautegi bat ezartzea».*

c) Ikastolako taldeen arteko koordinazioa.

Balizko arrazoiak: hutsuneak informazioaren eta antolaketaren gizarteratzean.

Nola nahi du ikastolak bere antolaketa eredia gizarteratu?, zein baliabide, gune eta denbora erabiltzen ditu horretarako?, nola ezagutarazten zaie antolakuntza etengabeko (partaide berriei (irakasleei, ez-irakasleei, gurasoei eta ikasleei)?

Gizarteratzearen gaiak dokumentuen ezagutza hutsetik haratago joan behar du, eta guretzat garrantzi handikoak diren galderak planteatu: nola nahi du ikastolak bere antolaketa eredia gizarteratu? zein baliabide, gune eta denbora erabiltzen ditu horretarako?, nola ezagutarazten zaie antolaketa etengabeko partaide berriei (irakasleei, ez-irakasleei, gurasoei eta ikasleei)? Berezko ikaste pertsonal eta informala da ala ikastolaren instituzioak pentsatu eta eragindako asmoa dago bere partaide berriak guztien proiektuan sartzearren? Antolaketaren gizarteratzea alderdi garrantzitsua izan daiteke komunitatearen integrazioa eta eraikitzea errazteko bidean edo, alderantziz, batzuen eta besteen arteko urruntasun sentsazioa, eta ondorioz, globaltasunaren galtzea ekar dezake.

Aurrerabideak: zikloen eta aroen arteko koordinazio bertikala, guztien proiektuak ezartzea eta horizontaltasuna eraikitzea.

Baina, nola egin aurrera? Zentzu horretan ikastolek berek bideak ezarri dituzte globaltasun horretara begira. Horrela, zikloen eta etapen arteko koordinazio bertikala indartuko duten mekanismoak finkatzea eta zentro osoaren integrazioa ahalbidetuko duten guztien proiektuak ezartzea dira globaltasunaren aldeko bide nagusiak, ondorioz hezkuntza komunitatearen zentzua indartu eta sendotzen dutenak. Baina kontua ez da soilik koordinazio bide bat zabaltea; horrek talde guztietatik abiatutako lan horizontala izango du ardatz nagusizat, eta gogoeta lana ere sustatuko du. Horrek zentroetan hizkuntza komun bat sortzea ahalbidetzen du, kulturak uztartu eta elkarrizketa eta garapena laguntzen dituena, hain zuzen ere. Zentzu honetan hauxe diote: *«zentroan adostu beharreko gauza asko daude, eta norberak ezin du bere bidea bakarka egin».*

Aurrerabidea: ez-irakasleak ikastolako antolaketa egituran sartzea.

Integrazio ikuspuntu horretatik eraikitzearen ahots guztiek hartu behar dute parte, eta zentzu horretan hitz egiten du ez-irakasleen taldeak, zeintzuek ikastoletan talde gisa antolatzea aintzat hartzen duten, antolaketa egituraren barnean parte hartuz, hain zuzen ere. Honela adierazten dute: *«garrantzitsua da talde gisa antolatua egotea eta zenbait batzordetan eta ikastolaren funtzionamenduari dagozkion erabakiak hartzeko bileretan ordezkari bat izatea; gainera, ikastaro bakoitzaren hasieran plangintza egin beharko litzateke eta egin beharreko lanak banatu».*

*Aurrerabidea: Ikasleekin eraiki.
a) Entzute aktiboa elkarrizketa bihurtu;
b) partaidetzazko kultura garatu.*

Orokortasuna eraikitzeko prozesu honetan, ikasleek ere parte hartu nahi dute ikastolaren antolaketan eta kudeaketan. Zentzu horretan, bi bide proposatzen ditugu: alde batetik, jarrera aldaketa lantzea, entzute aktiboa elkarrizketa bihurtu asmoz, eta ikasleak hezkuntza komunitatearen ideiatik abiatuta integratu, eta bestetik, partaidetzazko kulturaren garapenean sartzea. Ideia horrekin lan



egiteak «partaide izatearen» sentimendua sendotzea eskatzen du, horretarako ikasleek adierazitako desioa, alegia, «*hitz egiteko eta proposamenak zuzenean egiteko aukera izatea*» bideratuz. Instituzio dinamikan parte hartu nahi du, beraz, bere garapenean talde bezala lagunduz.

Ikastola guztiek ideia berri eta sortzaileen beharra azpimarratzen dute, integrazioa, eta azken buruan, antolakuntza berraztertzearen aldekoak, hain zuzen ere, antolatzen ari diren etorkizun horretara begira. Antolaketaren sendotzean aurrera egingo badugu argitzea eta adostea beharrezkoak dira, baina horrek ez du jarreretan zorrozetasunik ekarri behar. Alderantziz, eta gehienbat testuinguru egoeren konplexutasuna dela eta, «*egunerokoari erantzuna ematearren malgutasun maila*» mantentzea beharrezkoa egiten da, antolaketaren barruan dauden funtzionamendu modu informalak onartuz, errespetatuz eta elkartuz. Gakoa ez da erabateko funtzionamendu informal batetik erabat arautua eta planifikatua dagoen funtzionamendu batera pasatzea, ikastolaren antolaketa orekatzea baizik, bi izaerak mantenduz. Hori guztia ikastolaren erakundearen aberastearen mesedetan dagoela uste dugu, eta gainera, eta beraiek adierazten dutenez, «*harremanen estilo lasaia eraikitzen*» laguntzen du.

*Aurrerabidea:
antolakuntza
berraztertu,
antolaketa sendotuz
eta modu informalak
sustatuz.*

6.3.2.2. Zuzendaritza taldeei dagozkien arazoak

Antolaketa eta kudeaketa dimentsio honetan agertzen zaigun beste oztopo gunea zuzendaritza taldeei dagokie; hauek zeregin garrantzitsua betetzen dute ikastoletako organigrametan kudeaketa eta erabakitzen organo gisa, eta gainera, hausnartzera eta teorizatzen garamatzaten zenbait berezitasun aurkezten dituzte.

*Zuzendaritza taldeen
inguruan sortzen
diren arazoak.*

Zuzendariak, koordinatzaileak eta administrariak osatzen dute, aldaketa batzuk gora behera, zuzendaritza taldea. Koordinatzaileak, baina, irakasleak dira, eta ondorioz beren egoera berezi samarra da, gehienbat irakasle moduan aritzen badira ere, noizbait zeregin horretatik atera eta zuzendaritza taldean jarduten duten heinean. Zuzendaritza lana, beraz, behinbehinekotzat dute eta etengabe «bueltatzen» dira identifikatzen eta burua profesionalki eraikitzen duten irakasle lanetara.

*Koordinatzaileak:
mugan jarduten
duten pertsonak.*

Eztabaida taldeek adierazten dutenez, irakasleak ez dira gustura egoten zuzendaritza taldeetan; izan ere, aldi baterako taldeetan egoiteak, mugarri baten antzera, egoera zailean jartzen ditu beren pare-

koak izan diren eta izango diren lankideekiko. Irakasleek berek eta beste zenbait taldek irakasleok urruti samar daudelako pertzepzio hori egiaztatzen dute: *«Koordinatzaileak etapen arteko postariak dira, eta zuzendaritza taldearen aurpegia direlako susmoa dute»; «Koordinatzaileek uste dute irakasleek askotan kritikatzten dituztela, eta honek harreman mailako urruntasuna sortarazten du zuzendaritza taldearen eta irakasleen artean».*

Zuzendaritza taldea informazioarekin, erabakiak hartzeko ahalmenarekin, eta ondorioz, agintearekin erlazionatzen da.

Zuzendaritza taldeak, zalantzarik gabe, oso estamentu garrantzitsua dira ikastoletan. Eztabaida taldeek askotan aipatzen dituzte, eta informazioarekin, erabakiak hartzeko ahalmenarekin, eta, ondorioz, agintearekin erlazionatzen dituzte. Aztertutako zuzendaritza taldeak oso desberdinak dira elkarren artean, bai direnari bai beren ustetan izan behar luketenari dagokienez, eta gidaritza mailan, erantzukizunak eta erabakiak banatzeko orduan eta, azken buruan, antolaketa mailan, ikuspegi desberdinak aurkezten dituzte. Hala ere, zenbait puntu komun dituzte elkarren artean, alegia, urruntasun pertzepzioa, hezkuntza eta antolaketa mailen arteko haustura, eta dena zuzendaritza taldeon esku uzten delako sentsazioa; gainera, guztiek ere kritikak jasotzen dituzte.

Egoera larri baten aurrean aurkitzen gara, beraz, eta honek irakasleek erantzukizun maila horietara heldu nahi ez izatearen arrazoia argitzen digu: *«Gure ikastolan zuzendaritza taldeak hartzen ditu erabakiak; denok espero dugu hura ondo aritzea eta, interes ezagatik edo erosotasunagatik, inork ez du bertan sartu nahi.»* Gure ikuspuntutik, interes eza eta erosotasuna ezin dira ikastoletan erantzukizun karguak hartzeko oztopo bakarrak izan; izan ere, ikastolek berek adierazten digutenez, beren antolaketa egituretan talde bakoitzaren funtzioak, eskumenak eta lanak behar den bezala zehazten ez direnean, irakasleek inposaketatzat hartzen ditu hartzen diren erabakiak, eta ondorioz, tentsio eta gatazkaren sorburutzat.

Egitura guztiek nahitaez hierarkia eta aginte erantzukizunak behar dituela sinesteak irakasleon pertzepzioa desitxura dezake eta beraiek eraldaketa aukera guztiak ukatzen dituen irteerarik gabeko egoera batera eraman.

Azkenik, irakasleen atzera egite hori argi dezakeen beste alderdi bat nabarmendu behar dugu, horrezaz gain lanbide kulturen gaia-ekin uztartzen dena, hain zuzen ere. Ohikoa da irakasleek, pedagogi heziketa dutenek behinik behin, hezkuntzaren aldeko jarrerak, eta ondorioz, lankidetzazko, partehartze demokratikoko eta diskriminaziorik gabeko printzipioekin bat egitea; printzipio hauek, zuzendaritza taldeek osatzen duten organizazio hierarkiko eta bertikalaren aurkakoak dira. Litekeena da erabakien kontzentrazioak ikastolak instituzio partehartzaile eta demokratikoak direla adierazten duen fundazio gutuna bera ere kolokan jartzea; haatik, egitura



guztiak nahitaez hierarkia eta aginte erantzukizunak behar dituela sinesteak, gure ustez, irakasleon pertzepzioa desitxura lezake eta beraiek eraldaketa aukera guztiak ukatzen dituen irteerarik gabeko egoera batera eramán.

Puntu honetara iritsita, aurrez planteatutako ildo teorikoarekin bat egingo dugu: nola eraiki horizontaltasuna ikastoletan? Ikastolek, organizazio konplexuak diren heinean, ekintza eta erantzukizun maila desberdinak erabili behar dituztela kontutan hartuta, nola berrindartu beren komunitate irekiaren eta zinez elkarbanatuaren zentzua?

6.3.3. Informazioa ala komunikazioa?

Komunikazioaren inguruan sortzen diren arazoez ikastolek antolaketa eta kudeaketa esparruetan dituzten hirugarren oztipo multzo handia osatzen badute ere, geuk aparteko atal batean aurkeztuko ditugu. Honek badu bere arrazoia, alegia, denok dakigunez, komunikazioa ikastolan ematen diren prozesu guztietan agertzen da eta gainera, azterlanean hautatu dugun ikuspuntu teorikoaren arabera, komunikazioa ez da hezkuntza proiektu on bat lortzeko «baliabide» soila; baliabidea eta helburua da, helburua eta baliabidea aldi berean, etengabeko mugimendu zirkularrean. Komunikazioa aintzat hartu behar dugu hezkuntza komunitatean pentsatzean, hezkuntza proiektuan pentsatzean, antolaketa bizkortu nahi dugunean...; hezkuntzaz aritzen garen bakoitzean komunikazioaz ari gara azken finean.

Nolanahi ere, komenigarria da eztabaida taldeetan esaten denaren analisisan murgiltzea, horrela adierazle bakoitzaren atzean dauden esangurak azalertzeko; hau derrigorrezko aurrerapausoa da hezkuntza komun batera heltzeko bidean, komunikazioa zer den jakinarazi ez ezik elkarren artean komunikatzeko aukera emango diguna, hain zuzen ere. Zehazki esateko, komunikazioa edo komunikazio prozesuak ikuspuntu bikoitz batetik azaltzen dira parte hartzen duten ikastola guztietan, norantza batekoa eta bi norantzakoa deituko ditugunak hain zuzen ere. Horiexek aztertuko ditugu jarraian.

Ikastoletan komunikazioaren gaia aztertu duten eztabaida taldeek harreman estua ezarri dute komunikazioa eta informazioa hitzen artean, biei esanahi sinonimoa emanaz. Informazioaz hitz egitean, ordea, eragile jakin batek, igorleak, mezu bat bidaltzen dio hartzaile bati. Eskema bakun honen arabera ikastoletan informazio asmo

Komunikazioa ikastolan ematen diren prozesu guztietan agertzen da, antolaketaren alderdi dinamikoak da eta ez da proiektu on bat lortzeko "baliabide" soila, baliabidea eta helburua da, helburua eta baliabidea aldi berean, etengabeko mugimendu zirkularrean.

Ikastoletan komunikazioaren gaia aztertu duten eztabaida taldeek harreman estua ezarri dute komunikazioa eta informazioa hitzen artean, biei esanahi sinonimoa emanaz.

Informazio igorketa azpimarratzea.

Etsipena nagusitzen da, informazio ahalegina ez delako partehartze bihurtzen.

asko eta bidali nahi diren eta bidaltzen diren mezu ugari aurkitzen ditugu, «besteak jakin dezan nahi izatea» edo «besteari zerbait jakin araztea» bezala laburbil zitekeen informazio asmoa, hain zuzen ere. Informazio mailako asmo gune ugari daude ikastoletan, alde bate-tik zuzendaritza taldeak¹¹ daude, bereziki irakasleei eta gurasoei, eta hedaduraz talde guztiei informatu nahi dietenak; eta bestetik irakasleak, zeintzuek, neurri apalagoan bada ere, gurasoei informatu nahi dieten: *«Zuzendaritzak hartzen du aurrea irakasleekiko eta Batzordearekiko harremanetan. Tutoreak gurasoekiko harremanetan. Koordinatzaileek irakasleekikoetan. Ikasleek irakasleekiko harremanetan, batzuetan irakasleak hartzen badu ere».*

Informazioan oinarritutako diskurtso honek, aurrez aipatu dugun eske-ma bakunari jarraiki, igortzea azpimarratzen du, eta honek berriemai-leak bultzatzen ditu komunikazioaren norantza bateko adiera honen analisia garatzera, kanalen egokitasunari, eraginkortasunari eta hobetzeari begira. Nola bidali hobeto informazioa? Eztabaida taldeek irado-kizun ugari egin dituzte zentzu honetan, etxerako zirkularrak, buletina-k, ikastaro hasierako aurkezpenen formatua edo koordinatzaileen funtzioa bera hobetzeko asmoz. Ez gara gai honetaz gehiago luzatuko.

Esanguratsuen beste toki batean dagoelakoan gaude. Izan ere, informazio asmoa duten talde guztietan, beren informazio ahalegi-nak espero den erantzuna jasotzen ez duela uste dutenean, etsipe-na eta frustrazioa nabariak dira. Nolako erantzunaz ari dira? Entzun diezaiegun: *«gurasoek pasiboki eta axolagabeki erantzuten diete gehienetan ikastolak egindako komunikazio ahaleginei», «Irakasleek ez dute interesik azaltzen ikastolako gai guztiak ezagu-tzeko, dela eragin zuzenik ez dutelako, dela lanpetuta sentitzen direlako», «Informazio batzuk ez dira irakasleengana iristen, eta horrek zerikusi handiagoa dauka informazioa bidali ala ez bidaltzearekin irakasleen konpromisoarekin baino», «komeni-garria litzateke dagoen denbora hobeto erabiltzea, informazio on batek partehartzea laguntzen du eta».*

Azken adierazpen honetan argi asko esaten den moduan, ikastole-tan informazioaren bidaltzearen kanalen hobetzean jarduten eta sakontzen dute, informazio horrek zuzenean partehartzea handitu-

¹¹ Organigramak ikastolatik ikastolara aldatzen diren heinean, zaila da zuzendaritza taldeak ala zuzendaritza batzordeak diren erabakitzea, baina argi esan dezakegu antolaketa informazio eta erabakitasun kontzentrazio gehien duten guneek infor-matzeko gogo gehien dutenak direla era berean.



ko duelakoan, baina, zenbateraino eutsi diezaiokegu premisa horri? Argi dago komunikazio prozesuek informazio fluxua eskatzen dutela, eta hau ziurtatu eta zaindu beharra dago antolaketa eta hezkuntza komunitate guztietan. Maila horretan jarri dute arreta eta kezka ikastolek, eta maila horretan egin behar da aurrera, komunikazioak informazio bidaltze hutsetik haratago joan behar du eta. Galdera batzuk egin ditzakegu prozesuen abiapuntu gisa, nolako eragina du informazioa hartzea? Nola, zein jarreratan jartzen du hartzailea mezuaren aurrean? Informazioaren bidaltzea finkatuko denean, zein ekintzek lagun lezakete taldeen partehartzea?

Egia esan, «hartzaileek» hitz egiten dutenean tokatu zaien zereginarekin oso pozik ez daudela antzematen da, benetako partehartzetik, partaide izatetik, alegia, guztien proiektu baten partaide izatetik urruti samar sentitzen dira. Kasuotan, informazio bidaltzea erabakiak hartu izanari lotuta agertzen da, eta urruntzera, hierarkiara, ia ezintasunera darama.: *«Goi-tik agintzen dituzte erabaki guztiak, eta gurasoek ez dute parte hartzeko aukerarik. Horrela, nahiz eta teorian parte hartzeko eskubidea izan, praktikan ez da gauzatzen. Nahiz eta gurasoek ohitura txar hau dute aspalditik: hitz asko egin bai baina aukera gutxi ematen diegula», «Ikastolako antolaketa eta zerbitzuak ezagutzen ditu bere semearengandik iristen zaion informaziotik, baina gaiak erabakiak hartzeke daudenean ezagutu nahi lituzke, gurasoek zeresanik badutelakoan dagoelako».* Ikasleen eta ez-irakasleen iritzia area-gotzen du beren burua kasurik egiten ez zaien taldetzat hartzeko duten joera hori, ia ikustezin bihurtzen dituen joera alegia.

Gauzak horrela, organizazioak bere proiektua sustatzearen dituen organoez jardun behar dugu orain, ikastolan parte hartu nahi duten pertsonak gune horietara jo behar duten heinean. Taldeek beren kudeaketa eta erabakitasun organoei buruz egindako azterketaren arabera, talde edota batzorde zuzentzaileak nagusitzen dira, informazioa, erabakitasuna eta igortzea biltzen dituzten heinean. Bileren eta klaustroaren garrantzia, ordea, pertsona gehiagoren iritzia jaso lezaketan organoak izan arren, nahiko txikia da.

Asanbladei dagokienez, denok bat datoz gehienbat ekonomi eta kudeaketa gaiari buruz hitz egiten den gunetzat hartzean; bertan ere proposamenak aurkeztu eta berresten dira, informazioaren igorketa elkartrukaketa baino garrantzitsuagoa izaten da eta, azken finean, jendeak ez du parte hartzeko interesik azaltzen. *«Urtero egiten da asanblada bat; gurasoek hartzen dute parte eta ekonomi gaiak aztertzen dira... Bertan informazioa ematen da baina ez da erabakirik hartzen.»* «Asanbladak baino lehen

Nolako eragina du informazio hartzeak?, nola, zein jarreratan jartzen du hartzailea mezuaren aurrean?, informazioaren bidaltzea finkatuko denean, zein ekintzek lagun lezakete taldeen partehartzea?

Partehartze organoetara hurbiltzea.

Asanbladak: ekonomi eta kudeaketa gaietarako guneak.

dena erabaki da, eta horregatik joateak ez du merezi». Gurasoek gelako bileretan hartzen dute parte gehiago; hauek urtean bi aldiz antolatzen dira eta guraso asko joaten dira irakasleei entzutera.

*Aurrerabidea:
binorantzasuna;
gurasoek gero eta
interes gehiago
azaltzen dute
ikastolako hezkuntza
gaiez.*

Honek adierazten du gurasoek garrantzi gehiago ematen diotela hezkuntzari ekonomiari baino, eta horregatik datu esanguratsua dela, gogoeta eskatzen duena, alegia, uste dugu, gurasoak hartzaile hutsak badira ere. Gai honi buruz planteatzen diren aurrerabideek binorantzasuna eraikitzea dute helburu, beren seme-alaben hezkuntzaren alde jarduten dutenekiko komunikazioa hobetzearren. Adierazpen batzuek zenbait funtzionamendu moduren ezkutuko mezua argitzen dute: *«Gurasoen arteko komunikazioari dago-kionez, oso positiboa iritziko litzaieke gelako ordezkariak izateari. Kolektibo honek ikastola ere beraiena dela, bezero hutsak ez direla, alegia, gogoan hartzea eskatzen du», «Gelako bilera gehiago izan behar luketela uste dute, eta haietara, programazioak ez ezik, beste eduki batzuk ere eraman».*

Klaustroa.

Asanbladaz gain, klaustroa ere, bertan irakasle guztiek parte hartzen dutenez, oso organo garrantzitsua litzateke. Hari buruz, ordea, oso gutxi hitz egin da. Klaustroa pedagogi mailako erabakiei lotua agertzen da gehienbat; irakasleek talde eta batzar zuzentzaileetan parte hartu nahi ez dutenez, kudeaketa esparruetatik urruti dago eta zaila da bertan zerbait iradoki edo eztabaidatzea. Aurrera egiteko ildoek, aurreko kasuan bezalaxe, komunikazioa eta trukea erraztea dute helburu: *«Irakasleek, ausartzen ez direlako, batez ere, hitz gehiago egiten dute talde txikian talde handian baino. Hitz egiteko aukerarik ez zaiela ematen uste dute baina bilerak dinamizatu behar-ko lirateke hitz egin zezaten»; «etapa guztietako ordezkariak izango lituzketen egitura/foro berriak eraiki behar-ko lirateke agian, gai batzuei buruz hitz egin eta eztabaidatzearen.»; «Irakasleen ustez beharrezkoa da gaietan sakontzen lagunduko duen liderra izatea, guztien iritziak batzeko gai izango dena, alegia.»*

*Aurrerabidea:
Komunikazioa eta
elkartrukea erraztea.*

Ikasleen eta ez-irakasleen taldeek komunikatzeko eta parte hartzeko azaldu duten interesa are txikiagoa da. Ez-irakasleek beste taldeekiko komunikazio kanalik ez izatea azpimarratzen dute eta honek batzuetan nabarmen uzten dituela argibiderik edo informazioziorik eskatzen dienen aurrean. Hauxe proposatzen dute: *«haien artean hitz egiteko eta beren lana baloratua ikusteko aukera emango dieten gune egokiak sortu»*, alderdi informala eta profesionala uztartuko dituen komunikazioa lagunduz. Horrezaz gain, aurrez azaldu den bezala, Batzar Zuzentzailea bezalako zentroaren organo ordezkarietan parte hartzeko aukera eskatzen dute.



Ikasleak norantza bateko joeraren isla nabaria da ikastolaren proiektuan binorantzasuna, partehartzea eta presentzia errearen beharra aho batez aldarrikatzen dutenean. Informatzen diete baina haiek komunikazioa behar dute. Beren ahotsak plastikoak dira eta komunikazioa era poliedrikoan ulertzen dute: *«Ahalik eta komunikazio sarerik handiena izatea gustatuko litzaieke, bai ikasleekin, bai irakasleekin bai zuzendaritzarekin», «Nahiz eta aurrez pentsatutako mekanismoa erabili, ikastolan entzuten ez zaielakoan daude»; «Ikasleen eta irakasleen arteko komunikazioa oso txikia da Etikako alorrean izan ezik. Gainontzeko alorretan, gela barruan ez dago komunikaziorik»; «Irakasleek gurasoekin dituzten bileretan haiek ere egon behar dutela uste dute, haiek ere bere egoeraren ardura-dunak diren heinean. Hau, batxilergoetan ez ezik, maila baxuagoetan ere gertatu beharko litzatekeela uste dute».*

Bidegurutze honetatik aurrera egingo badugu, informaziotik haratago joan behar dugu eta bi norantzako giza komunikazio-ekintza ausarteranzko aurrerapausoak eman. Horizontaltasunaren eraikitzea sustatu eta laguntzen duen komunikazio-ekintza, alegia, garapen pertsonal, kolektibo eta instituzionalerako benetako aukera, hezkuntza komunitate gisa hazten lagunduko dieten ahotsak erantsiz.

Aurrerabidea: binorantzasuna; talde guztiek egituretan eta erabakiak hartzeko guneetan duten presentziaren berraztertzea.

6.4. Garapen pertsonal, profesional eta instituzionala erraztuz eta testuinguruak eraldatuz

Analisian aurrera egin ahala, ikastolek hezkuntza komunitateak osatu nahi dituztela ikusten dugu; hauek, talde guztietako ordezkariak hartuz eta baterako eta lankidetzazko moduan lan eginez, baloreetan oinarritutako hezkuntza garatu nahi dute, aldi berean aldaketak erantsiz etengabeko berriztatzeari eta garapenari begira.

6.4.1. Berriztatze prozesuak abian jartzeko arrazoiak

Bizi garen gizartea aldatzen, bilakatzen, garatzen ari da etengabe. Ezagutza etengabeko garapenaren menpe dago eta informazio ugari dago; oso egoera eta kanal desberdinetatik hel gaitzke, gainera, informazio horretara. Gizartea, beraz, gero eta konplexuagoa denez, eraldaketak pertsona guztien ongiaren alde egingo badu,

Etengabe eraldatzen ari den gizarte honetan hezkuntza komunitateek aurrera egingo badute, errealitatearen irakurketa kritikoa egin behar dute.

gizartea osatzen duten instituzio eta pertsona guztiak adi egotea eskatzen du, ezagutza berriak bilatuz, aztertuz, onartuz eta erantsiz.

Konplexutasun honek, ezagutzaren etengabeko garapen honek eskola instituzioei eta hezkuntza komunitateei beren zeregina kritikoki egokitzea eta eraldatzea eskatzen die, gizarteak eskatzen diena etengabe eta gelditu gabe aldatzen, zabalitzen eraldatzen den neurrian.

Azterlan honetan uste dugu berriztatze prozesuak funtsezko elementuak direla, ikastolei, beren hezkuntza ekintzaz hausnartzen ez ezik, beren berezko proiektua birpentsatzen eta birlantzen laguntzen dieten heinean, hain zuzen ere, hura hobetzeko eta hezkuntza eta gizarte eskakizunei modu kritikoagoan erantzuteko asmoz.

Prozesuok sistematikoki antolatutako ekintzak dira eta, errealitatearen beraren eta gizartearen zein hezkuntza komunitateak kokatzen diren testuinguruen azterketatik abiatuta, hezkuntza komunitateak osatzen dituzten kolektiboen alderdi, alor, lan desberdinetan aldatketak bilatu nahi dituzte. Beren dimentsio desberdinetan egon daitezke hezkuntza ekintzekin harremanetan: eskola mailan, famili mailan zein gizarte mailan, eta proiektu, programa, jarduera desberdinen bidez gauzatzen dira; hauek, hezkuntza ekintzaren beraren garapena ez ezik, hura garatzen duten pertsona guztien garapena ere laguntzen dute.

Berriztatze prozesuak pertsonen eta instituzioen garapena laguntzen duten ekintzak dira.

Ikastolek beren eguneroko praktikan berriztatze proiektuak eransteko eta beraietan parte hartzeko beharra sentitzen dute.

Zeri erantzuten diote benetan aldaketek?, Zeintzuk dira azken finean beraiek ezartzeeko benetako arrazoiak?

Aztertu ditugun kasuen arabera, ikastola hauek berriztatze prozesuak abian jartzearekin ados daudela esan dezakegu, alegia, beren eguneroko praktikan berriztatze prozesuak eransteko eta beraietan parte hartzeko beharra sentitzen dutela. Horrela, zuzendaritza taldeek *«berriztatze proiektuak ikastolarentzat garrantzitsuak direla» esaten diguten bitartean, irakasleek «berriztatzearen alde daudela baina hau gauzatzen den modua berraztertu beharra dagoela»* adierazten dute.

Hala eta guztiz ere, azterlanak ez digu prozesuok sortu, erabaki eta eguneroko praktikan gauzatzeko moduari buruzko funtsezko informaziorik ematen. Areago, irakasleen azken adierazpenetatik ondoriozta daitekeenez, nolabaiteko errezeloa dago berriztatze prozesuok ikastolara eramateko moduz.

Bi dira berriztatze prozesuak abian jartzeko arrazoiak: alde batetik, zenbait proiektu gizarte eskakizunei erantzuteko edo ikastola kanpotik datozen prozesu edo proiektuetan parte hartzeko jartzen dira abian. Bestetik, proiektu batzuek ikastolako barne beharrei



erantzuten diete eta beraiei erantzun asmoz sortzen dira, hain zuzen ere.

Nolanahi ere, eta arrazoi nagusiak horiexek izan arren, ikastolek berriztatze proiektuak sartu eta sortzeko dituzten arrazoiak behar den bezala aztertu ez direlakoan gaudenez, galdera batzuk datozki-gu burura, alegia, zeri erantzuten dioten benetan aldaketek?, zeintzuk dira azken finean beraiek ezartzeko benetako arrazoiak? zergatik eta zertarako dira beharrezkoak?

Taldeek emandako informazioetan ez da irizpide argirik, behar errealei buruzko benetako hausnarketarik agertzen: *«ez dago irizpiderik berriztatze proiektuak hautatzeko garaian. Proposatzen digutena onartzen dugu, besterik gabe»* diote ikastola bateko irakasleek. Beste batzuek, aldiz, *«berriztatzeak egunero sortzen dira baina ez daude ez planifikatuta ez antolatuta»* edo *«zer nahi duten ez dute aztertu, helbururik edo lehentasunik ez dute ezartzen eta argi izan behar dugu zer nahi dugun, kanpotik datorrena kontuan hartu gabe»*. Dirudienez, ikasleek garbiago dituzte berriztatzeen arrazoiak eta honela diote. *«hezkuntza berriztatze prozesuak ikasleei laguntzeko eta hezkuntza hobetzeko burutzen dira»*.

Ez dago irizpide argirik, behar errealei buruzko benetako hausnarketarik...

6.4.2. Berriztatze prozesuen eranstea, gizarteratzea, segimendua eta ebaluazioa

Ikastoletako talde desberdinek ongi dakite berriztatze proiektuetan parte hartzen dutela, hauek ia aipatzen ez badira ere. Eleaniztasunaren proiektua, haur hezkuntzarena aipatu egiten da, baina, orokorrean, ez dira zehazten.

Prozesuok abian jartzea erabaki edota sustatzen duten pertsona edo taldeei dagokienez, gehienetan zuzendaritza taldeek edo irakasleek dute erabakia, eta orokorrean irakasleak izaten dira berrikuntzak gauzatzeko arduradunak. Nabarmendu beharra dago berriztatze proposamenek onespren eta identifikazio maila desberdinak bereganatzen dituztela abian jartzen dituzten pertsonen edo kolektiboen arabera.

Zuzendaritza taldeak eta irakasleak, berriztatze prozesuen sustatzaileak.

Horixe ondorioztatzen da, hain zuzen ere, zuzendaritza taldeen adierazpenotatik: *«Ikastolak irakasleek sortu eta kudeatzen dituzten proiektuetan, haur hezkuntzarenean, adibidez, lan egiten du. Honelako proiektuetan identifikazio maila altuagoa da. Beste proiektu batzuk, ordea, ikastolatik kanpo sortzen dire-*

nak, hain zuzen ere, agindutzat hartzen dira eta beren ekintza ez da gelara iristen».

Proiektuak sortzeko moduak beren onarpen eta instituzionalizazioa baldintzatzen ditu.

Irakasleek, beren aldetik, zera adierazten dute: *«zuzendaritzak agintzen ditu berriztatze proposamenak, baina irakasleek ez dituzte onartzen». Ez-irakasleen ustez, «zuzendaritza da aldaketa prozesuen burua», baina ongi dakite azken finean *«berrikuntzak irakasleei lotuta daudela eta beraiek engaiatzen direla abian jartzen diren proiektuetan».* Ikasleen eta gurasoen ustez, *«irakasleek hautatzen dituzte berrikuntzak eta gurasoek ikastolaren esku uzten dute dena».**

Berriztatze proiektuen gizarteratze maila baxua.

Berriztatze proiektuen gizarteratzeari dagokionez, kolektibo guztiek adierazten dute aho batez ez dituztela ikastolak abian jarritako berriztatze proiektuak ezagutzen. Talde guztiak bat datoz berriztatze proiektuak ez dituztela ezagutzen eta beroriek ezagutu eta elkarbanatzeko zailtasunak dituztela adierazteko orduan. Ondoren aurkezten ditugun adierazpenetan, talde bakoitzak bere ezagutza ezaren berri ematen du.

Zuzendaritza taldeentzat zaila da proiektuen abian jartzea gizarteratu eta komunikatzea: *«ez da berebiziko esfortzua egin berriztatze proiektuak gizarteratzeko».* Aipatzen diren zailtasunak *«gizarteratzeko zailtasunari lotzen zaizkio, etapen arteko koordinazio ezagatik eta ikastolako talde guztien arteko komunikazio arazoengatik».* Batzuetan honelako arrazoiak gaineratzen dira: *«ez dira elkarbanatzen beren azterketak gatazken sorburu izango liratekeen kontraesanak agerian utziko lituzkeelako».* Honek garamatza aldaketaren aurreko jarrera, zailtasun eta errezeloei lotutako alderdiei buruz gogoeta egitera.

Aldaketaren aurkako erresistentziak.

Ez dugu ahaztu behar edozein aldaketak aurrez egin ez dugun zer-bait egin behar izatea eskatzen duela, edo gauza bera egin baina beste modu batean. Honek arriskua dakar eta beraz, ziurtasuna galtzen da. Zerk geldiarazten gaitu aldaketak egiteko orduan? nondik sortzen dira eta zeri erantzuten diete benetan zailtasun eta erreze-lo hauek?

Emandako datuetan antzematen diren jarrera eta erresistentzietatik honako alderdiok nabarmen ditzakegu. Zuzendaritza taldeen ustez *«aldaketen inguruan bi ikuspuntu nagusitzen dira, batzuek beren asmoa zein den ez dakitela esaten dute, eta beste batzuek jakin badakitela, baina haiei aurre egin behar izateak dakarren konpromisoak eta zamak izutu egiten dituztela».* Bestalde, hauxe diote: *«berriztatze prozesuak*



sartzeari dagokionez, irakasleek jarrera eroso eta aldatzeko erresistentzia dutela uste dute». Irakasleen esanetan «Berrikuntzek sakabanatze handia ekarri dute, lan handia baina zentzurik gabekoa. Inprobisazioa eta freskura galdu dira». Aldi berean: «beren integrazio egokia ez da eman eta horrek nekea sortarazi du». Azkenik, ez-irakasleen talde batzuek uste dute irakasleen taldearen barruko aldaketak «legeari erantzun gisa gertatu direla, eta horrek irakasleak lekuz kanpo dituela».

Puntu honetara ailegatuta, galdera gehiago sortzen dira: zeri erantzuten diote berriztatze proiektuek? ikastolaren, bere proiektuaren eta bere hezkuntza ekintzaren hobetzea nahi dute benetan ala beste helburu batzuk daude?

Azterlanarekin aurrera eginez, oraingoan aztertu nahi dugu nolako segimendua egiten den eta nola baloratzen dituzten talde guztiek ikastolan jada abian jarri diren berriztatze proiektuak edo une honetan garatzen ari direnak. Hau da, zer ekartzen dute proiektuok ikastolaren hezkuntza ekintzan eta hura osatzen duten pertsona guztien garapen profesional eta pertsonalean kalitatezko aldaketa gerta dadin?

Egindako adierazpenenetatik nabarmentzen da ezartzen diren berriztatze proiektuak ez direla sistematikoki segitzen Honela, zuzendaritza talde batzuek diotenez, «proiektu gehienetan segimendua ez da ebaluazio sistema jakin batetik abiatzen», eta beraz, zaila da duten eragina baloratzea. Kasu batean zuzendaritza talde batek honako galdera planteatzen du: «*modu honetan lan egitea, ez al dago beste planteamendu batzuetatik lortu nahi dugun kalitatearen kaltetan?*».

Emaitzen balorazioari dagokionez, zuzendaritza taldeek hauxe diote: «*orokorrean, eta suposatzen duten esfortzuaren aldean, etekin gutxi ateratzen zaie proiektuei, eta honek irakasleek motibazioa galtzea eragiten du*». Irakasleen ustez, «*proiektu askotan sartzen dira eta gero ezin diete guztiei aurre egin. Proiektu asko ez direla batere praktikoak uste dute*».

Alde batetik adierazten da «*berriztatze proiektuek irakasleentzat aberasgarri direla eta eragina dutela beren garapen profesionalean*» eta bestetik, «*ez da beren segimendua egiten eta zeri erantzuten dioten ere ez dakigu*»; kontraesana nabaria da beraz, alegia, ebaluatzen ez badugu, nola ezagutuko dugu proiektuok izan duten eragina?

Aldaketek izua, sakabanatzea, konpromisoa eskatzen dute. Zeintzuk dira beren alderdi positiboak?

Zer ekartzen dute proiektuek ikastolaren hezkuntza ekintzan eta hura osatzen duten pertsona guztien garapen profesionalean kalitatezko aldaketa gerta dadin?

Berriztatze proiektuak sistematikoki segitzeko sistematikoki ez dago.

Jakina denez, sistema baten zati batean egindako edozein aldaketak eragina du sistemaren gainontzeko zatietan. Beraz, ikastola eta bere hezkuntza proiektua hobetzearren edonondik has gaitezke. Dena den, orain arte esandakoaren arabera, galdera hauxe sortzen da: Ba al dago aurrera egiteko, berrikuntzak ezartzeko modu hoberik, gure lanerako kaltegarria gertatu gabe?

Aurrerabidea:
hausnarketa,
berraztertze kritikoa
eta proiektuak
banatzea.

Talde guztiek esandakoetatik, hona hemen jaurtitzen diren aurrerabideak. Zuzendaritza taldeek, beste batzuen artean, *«berriztatze proiektuak garrantzitsuak direla eta aro bakoitzaren barruko eta etapen arteko hausnarketa ere garrantzitsua dela»* adierazten dute; *«komenigarria litzateke berraztertze kritikoa zentroaren testuingurura eta gizarte ingurunera ere zabaltzea»*, *«berriztatze proiektuak irakasle guztiekin eta gainontzeko taldeekin elkarbanatu»*. Irakasleek, bere aldetik, adierazten digute *«berriztatze proiektuak gainontzeko kolektiboekin mahainguruaren bidez, etab. gizartera litezkeela»*.

Nolanahi ere, komenigarria litzateke gauden errealitatea ezagutzea, alegia, nola sentitzen garen orain hezkuntza komunitate moduan, zer egiten dugun besteek gure kezka eta proiektuak ulertu eta elkarbanatzeko, eta nola erantzuten dugun gauza berri eta desberdinak egiteko momentuan. Galdera batean laburbiltzearren, berriztan komeni zaiguna eta nahi duguna egiten dugu ala beste batzuen agindupean bageunde mugitzen gara?

6.4.3. Pertsonen garapen pertsonal eta profesionalaren alde

Berriztatze prozesuak aldaketak ekartzea eta hezkuntza ekintzaren, pertsonen eta instituzioen garapena erraztea bilatzen duten ekintzak direla esan dugu. Zentzu honetan, instituzioek eta beraietan garatzen diren hezkuntza ekintzek aurrera egingo badute, pertsonen prestakuntza ezinbesteko elementua dela uste dugu, alegia, hezkuntza komunitatea osatzen duten hezkuntza eragile guztien prestakuntza.

Prestakuntza:
garapenerako
funtsezko
elementua.

Buruturiko azterketan zehar ikusi dugunez, orokorrean hezkuntza eragileen prestakuntza oso alderdi garrantzitsutzat hartzen da, neurri handi batean berriztatze prozesuei lotua, gainera. Horrela adierazten du zuzendaritza talde batek, hain zuzen ere: *«irakasleen prestakuntza ikastolaren zutabeetariko bat da eta berriztatze proiektuen garapenari lotua dago»*.



Baina, nola egiten da prestakuntza?, nolako zentzia ematen zaio ikasleentzat?, zeintzuk dira helburuak? Galdera hauei erantzutean, talde desberdinek duten pertzepzioa errealitate desberdinen arabera aldatzen dela ohartzen gara.

Orokorrean, prestakuntzari buruzko planteamendu argi eta zehatzik ez dagoela ikusten dugu. Alderdi garrantzitsutzat hartzen da, baina hari eta bere zentzuari buruz oso gogoeta gutxi egin da. Zuzendaritza taldeek esaten digutenez *«irakasleak berriztatze proiektuen bidez hezte/prestatzea ezinbestekoa da sortzen diren beharrei aurre egingo badiegu»*, baina prestakuntza ez da elementu mobilizatzailezat, hezkuntza ekintzaren eta hezkuntza eragileen garapen pertsonal eta profesionalaren eraldatzailezat hartzen.

Orain arte eginiko ekintzek ikaslearen berezko beharrei erantzuten ez dietela dirudi; izan ere, irakasleek diotenez: *«prestakuntza proposamen asko ikasleentzat kanpo planifikatu eta pentsatzen dira, eta irakasleek informazio gutxi dugula ematen dugu izena»*. Ildo horretan, irakasleek beren esanetan, *«irakasle batzuek banaka jotzen dute prestakuntza ikasleentzat, ez dago guztien proiekturik ikasleentzat»*.

Zenbait talde, irakasleak bereziki, kritikoa agertzen dira orain arte egindako prestakuntzarekiko: *«parte hartu duten prestakuntza ekintzetariko asko hutsalak izan dira eta ez dute eguneroko hezkuntza ekintza izan»*. Orain arte egindakoa komeniko litzatekeen garapen mailara ez dela iristen esan daiteke honenbestez.

Hala eta guztiz ere, taldeek bereziki hobetze ildoak eta proposamenak ematen dituzte prestakuntzari ikuspegi berria ematearren. Aurrera egiteko ildo horretan, zuzendaritza taldeen ahotsak nabarmendu beharrean aurkitzen gara: *«garapen profesionala bermatzearen, hausnarketarako guneak eta tresna lagungarriak behar dira»*. Era berean: *«Ikasleentzat irakasleek identifikatu behar dituzte prestakuntza beharrik, eta hortik abiatuta hanturatu egin. Honek gogoeta eskatzen du»*.

Irakasleek ustez, oso komenigarria litzateke *«prestakuntza ikasleentzat joaten diren pertsonen prestakuntza hori gainontzeko irakasleekin gizarteratzea»*. Gurasoek *«ikasleentzat karguak dituztenentzat heziketa eta prestakuntza gehiagoren beharra»* azpimarratzen dute. Ez-irakasleek beren kezka azaltzen dute *«ikasleentzat beren hezkuntza ekintza garatzeko moduz»*.

Prestakuntzaren zentzuari buruzko gogoeta egin beharra.

Prestakuntzak kanpoko planteamenduei erantzuten die gehiago.

Beharrik identifikatzeak behar horiei komunitate ikuspegi batetik zentzia ematen laguntzen du.

Berdinekin eta berdinengatik ikastea prestakuntza modu interesgarria da.

Azkenik zuzendaritza taldeek esandakoak jasotzen ditugu: *«ikastolan, eskarmentu gehien duten irakasleak eredu behar lukete izan irakaslerik gazteenentzat»*. Hau ondo antolatuz gero, lan ildo interesgarria izan liteke, pertsonen, Stenhouse-k (1987) dioen bezala, ekintzan eraikitzen baitute beren ezagutza, hari buruz gogoeta egiten dutenean. Metodo honek gizabanakoaren askatasuna bilatzen du, gizarte zuzenagoaren, tolerantagoaren eta, azken finean, gizatiarragoaren alde. Horrela, prestakuntzaren alde egiten badugu, eguneroko praxian eta gurekin hezkuntza funtzio berdina duten pertsonekin elkarriketan eta eztabaidan, elkarrengandik ikasten dugu eta elkarrekin eraikitzen dugu komunitatea, hartu dugun konpromisoan mehatxu eta manipulazioetatik libre sentituz.

7. Ondorioak

Analisi honetan zentzuen errealitatea aztertu dugu; horretarako, erabili ditugun interpretazio ardatzetatik eta ikastolek antzeman dituzten euskarri eta aurrera egiteko ildoetatik abiatuta, zentroek bizi duten unea zehaztu dugu. Txostenaren bidez, halaber, zentzuen errealitatearekiko elkarrizketa eraikitzen saiatu gara, ikastoletan hausnarketa eta garapenerako prozesuak erraztuko dituzten galderak egin. Une honetan, ordea, behar-gakoak eta haiei atxikiriko beharrak berak zehaztu behar ditugu. Ondorioetara iritsi gara beraz, alegia, behar-gako handiei dagokien beharren diagnostikoa burutu behar dugu, kolektibo guztien ekarrietatik abiatuta.

Horrela, kasu txostenetik honakoak ondorioztatzen dira:

Lehenengo ardatza: Ikastola bere osotasunean, hezkuntza komunitate dialogikoen garapena lagunduz

- Kolektibo desberdinek, proiektu komun baten garapenean lagun dezaketzen hezkuntza eragileetat hartzen dute beren burua, hezkuntza funtzioak guztietan ondo zehaztuta ez badaude ere. Gurasoen eta ez-irakasleen taldeek ez dute ondo zehaztua ikastolan hezkuntza mailan jarduteko lekua.
- Talde guztiek, ikastolaren partaide direla sentitzen badute ere, ez dute komunitatea eraikitzeke adinako egiturarik, ez antolaketa mailan ez kohesio mailan; hori dela eta, bakoitzak bere aldetik jarduten du, besteengandik bereizita. Beharrezkoa da, beraz, hezkuntza komunitatea osatzen duten kolektibo guztien baterako ekintza koordinatua.
- Ikastoletan, hezkuntza komunitateen araberrako proiektu komuna ez da oraindik definitu edo birdefinitu.
- Euskalduntzea eta euskal kulturaren garapena dira kolektibo guztiek adierazitako helburu komunak, gizartearekiko fluxua orientatzen duena, hain zuzen ere. Gauzak horrela, hezigarriari ematen zaion balioa ez da garbi ikusten.
- Ikastolek beharrezkotzat jotzen dituzte bai gizarte ingurunean gehiago erroztzea, bai hezkuntza eta gizarte eragileek beren proiektuarekiko konpromiso handiagoa hartzea, bai beren hezkuntza ekintza testuinguru hurbilera zabal-tzea.

Bigarren ardatza: hezkuntza ekintza eta honek ikastolan duen eragina aztertuz

- Ikastoletako kolektibo gehienek honako baloreotan oinarritu behar dute beren hezkuntza kontzeptua, alegia, erantzukizuna, begirunea, elkartasuna, justizia, etab. Hala ere, ongi dakite oso zaila dela hezkuntza kontzeptu honetatik abiatutako ekintzak abian jartzea.
- Kolektibo horiek, beraz, beren hezkuntza praktikaz gogoeta egiteko garaian, hezkuntza kontzeptu teorikoaren eta talde bakoitzari dagokion hezkuntza ekintza-aren artean urruntze nabarmena ematen dela uste dute.
- Teoriaren eta praktikaren arteko urruntze horren adierazgarri gisa, kolektiboek beren hezkuntza ekintzan instrumentala hezigarriari nagusitzen zaiola onartzen dute; hezigarria intuizioaren menpe gelditzen da, horrela, eta honek kontraesanak sortarazten ditu beren partehartzetik proiektatzen diren baloreei dagokienez.
- Irakasle gehienek hezkuntza praktika programen eduki kontzeptualetan oinarritua dago gaur egun, eta haiek amaitzeko beharrak derrigortuta sentitzen dira, Batxilergoan batez ere.
- Zuzendaritza taldeek ikastolaren kudeaketa eta antolaketan jartzen dute arreta gehiena, hezkuntza dimentsioa beren funtzioetatik aparte utziz.
- Ebaluazioa zuzendaritza taldeen zenbait funtziotara eta ikasleen errendimendura mugatzen da, eta ebaluazio prozesuek eman litzaketan hezkuntza gaitasuna eta garapen pertsonal, profesional eta instituzionala gutxien dira.

Hirugarren ardatza: Antolaketa, kudeaketa eta komunikaziotik horizontaltasuna eta binorantzasuna eraikiz

- Ikastolak, beren berezko historiaren eta kokatzen diren testuinguru zehatzen arabera, garapen momentu desberdinetan dauden instituzioak dira; desberdintasun honek, ordea, ez du galarazten desberdintasun komunak agertzea, antolaketaren alderdi estatikoetan (antolaketa egiturak) eta alderdi dinamikoetan (komunikazioa).
- Antolaketari lotutako zailtasunak plangintzari, koordinazioari, informazioa zabalteari eta erabakiak hartzeari dagozkie, hala nola egitura hau martxan jarri behar luketen komunikazio alderdiei.
- Antolaketaren barruan, zentroaren ikuspegi orokorra oztopatzen duten zailtasunok agertzen dira: a) aktibismoarako joera handia; b) oztopoak aroen arteko koor-



dinazioan; c) zailtasunak ikastolako kolektibo guztien arteko koordinazio prozesuak burutzeko.

- Aurrekoaren ildoan, zuzendaritza taldeei dagozkien zailtasunak ere aipatu behar ditugu. Horrela, koordinatzaileek lan-nortasun arazoak aurkezten dituzte eta informazioa eta erabakien hartzea soilik zenbait organoren esku (Zuzendaritza taldeak, batzar zuzentzaileak...) uzten dira; honek urruntasun sententzia sortarazten du gainontzeko kolektiboetan, instituzio garapena eta hezkuntza proiektua oztopatuz.
- Ikastoletan ezartzen den komunikazio mota informazioa bidaltzeari dagokio soilik, hasierako komunikazioko maila, alegia, eta ez da nahikoa binorantzasuna eta proiektu komunaren garapenean kolektibo guztien partehartzea errazteko.

Laugarren ardatza: Garapen pertsonal, profesional eta instituzionala erraztuz eta testuinguruak eraldatuz

- Kolektibo guztiek ongi dakite zein garrantzitsuak diren berriztatze proiektuak eguneroko hezkuntza praktika hobetzeko.
- Berriztatze prozesuak sortu eta garatzeko irizpiderik ez dago, eta honek ikastolaren globaltasunaren markoan duten zentzua ikustea oztopatzen du. Berriztatze prozesuak ikastolaren garapen eta hezkuntza ekintzan uztartzeko prozesua burutu gabe dago oraindik.
- Berriztatze proiektuen hautaketak, ikastolen benetako beharrei baino, gizarte presioari erantzuten dio.
- Berriztatze proiektuen gizarteratzeak oztopoak aurkezten ditu eta ikastoletan gutxi garatu da.
- Instituzionalizazioa eta aldaketaren eragina ia ez dira garatzen ikastoletan. Kasu gehienetan, bere ebaluazio sistema eta berriztatze prozesuak hezkuntza praktikara eramateko modua ez dira zehaztu.
- Instituzioan prestakuntza politikarik ez dagoenez, bakoitza bere aldetik joaten da prestakuntzara, eta, ondorioz, ikastolak ez dira ekintza honen prestakuntza gaitasunaz baliatzen.

Honaino ondorioak. Haietatik eta haien arabera, jarraian azalduko ditugun behar-gakoak sortzen dira, pedagogi prestakuntzari dagozkienak, hain zuzen ere.

8. Ikastoletako kolektiboen pedagogi prestakuntza beharrak

Interpretazio txostenean bildu eta azaldu diren datuen interpretazioak gidatuko du jarraian azalduko ditugun behar-gakoen irakurketa eta ulertzea. Behar horien zentzuak eta esanahiak beraz, marko teorikoarekin eta ikastoletako partehartzaileek adierazitakoekin bat egin behar dute ezinbestean.

Interpretazioaren eskemari jarraiki, behar-gakoak ardatz bakoitzean zirriborratzen dira eta ikastoletako kolektiboak modu orokorrean hartzen dituzte. Ez dugu nahi, ordea, talde bakoitzak behar berdinari ekar diezaiokeen berezitasuna galtzea, eta horretarako beharrezkoa izango da argitzeak bilatzea, bai interpretazio orokorrean bai beharraren beraren testuinguruari egokitutako irakurketa batean, hezkuntza ekintzak sortuko diren toki eta denbora jakin batean, alegia.

8.1. Hezkuntza komunitate dialogikoen garapenari dagozkion beharrak

Kolektibo desberdinek dituzten beharrak biltzen ditugu atal honetan; behar horiek ikastola bere osotasunean (globaltasunean) hartzen duen kontzeptutik sortzen dira. Horren arabera, pertsonak talde zehatz batetik jarduten duten hezkuntza eragileak direla uste dute, baina beti ere xede komunak, pertsonen hezkuntzak, alegia, gidatuta, eta hezkuntza komunitate batean partaide ardurakideak direla sentituz (ardurakidetasunaz).

Atal horren barruan, halaber, bi behar-gako hartu ditugu aintzat, hezkuntza komunitate horiek elkarren arteko harremanetan dauden bi dimentsiotan sortu eta gartzearekin zerikusia dutenak, hain zuzen ere: alde batetik, barneko dimentsioa, hau da, helburutzat hezkuntza komunitatea bera finkatzea eta hari koherentzia ematea duena, eta bestetik, kanpoko dimentsioa, komunitate hori kokatua dagoen testuingurura begira dagoena; testuinguru horrekin bizi eta eraiki behar du, hain zuzen ere, gizarte mailako guztien ongiaren alde.

8.1.1. Hezkuntza komunitate dialogikoen finkatzeari dagokion behar-gakoa

— Ikastoletako kolektibo guztietan (zuzendaritza taldea, irakasleak, ez-irakasleak, gurasoak...) hezkuntza eragile guztien funtzioak indartu, xede komuna lortzeko asmoz.

- Hezkuntza eragile bakoitzak dagokion kolektiboarekin eta, hortik abiatuta, ikastolako hezkuntza proiektu komunarekin bat egitea sustatu.
- Kolektibo guztien eraikitzea erraztu eta bultzatzea, bakoitzaren barruan ikastolarekin lan egin eta kolaboratzen duten pertsonak eta profesionalak sartuz.
- Kolektibo bakoitzaren asmoa eta erantzukizuna definitu eta zehaztea, ikastolaren proiektu komunaren barruan bete behar duen hezkuntza ekintzari dagokionez.
- Kolektiboen arteko guneak sortu eta gogoeta prozesuak laguntzea, beren ekin-tzen hezkuntza helburu komuna, hezkuntza, alegia, eraiki edo berraztertzearen.
- Kolektibo bakoitzak egiten duenari hezkuntza mailako zentzua eman eta gai-nontzeko taldeekin banatzea.
- Kolektiboen arteko hezkuntza proiektuak abian jartzea, bakoitzak duen hezkun-tza gaitasuna onartzetik abiatuta.
- Ikastolan jarraitu beharreko hezkuntza ildoari buruz –instituzio dinamika guz-tien oinarrian dauden asmo, printzipio eta baloreak– kolektibo guztien arteko hausnarketa prozesu komuna sustatzea, hezkuntza proiektua eraikitzaera edo berraztertzaera eramango duena, hain zuzen ere.
- Hezkuntza proiektua etengabeko berraztertze tresna gisa erabiltzea, ikastola aurrez adostutako asmoaren eta praktika errearen arabera kokatu edo birkoka-tzearen.
- Hezkuntza proiektua ikastoletako eguneroko bizimoduan garatzea ahalbidetuko duten ekintza bideak gauzatzea, proiektuaren beraren filosofiarekin bat egingo duten barne arautegiaren bidez.
- Kolektibo bakoitzaren barruan hezkuntza eginkizunak eta hezkuntza proiektua-ren eta barne arautegiaren garapena daraman erantzukizuna sartzea.

8.1.2. Ingurunearekiko harremanen eraikitzaeri dagokion behar-gakoa

- Ikastolak hurbileko ingurunearekin (auzoa, herria...) eta ingurune ertainarekin (Euskal Herria) duen eta eraiki nahi duen harremanari buruz gogoeta prozesuak laguntzea.
- Ikastolak Euskal Kulturaren garapen eta sustapenean bete behar duen funtzioa aztertzea.
- Ingurunearen hezkuntza gaitasuna aztertu eta hura ikastolako hezkuntza proiektura ekartzea.



- Ingurunearekiko bi norantzako harremana ezarri eta finkatzea, elkarrenganako aberasgarri izango den lankidetzako lan dinamika abian jartzearen.

8.2. Hezkuntza ekintzaren eta honek ikastolan duen eraginari dagozkien beharrak

Asmo eta balore batzuek gidatzen dute hezkuntza ekintza oro. Haietatik hezkuntza kontzeptu bat eta jokabide zehatz bat sortzen dira. Eguneroko praktikari buruzko gogoeta sistematikoak oinarrian dauden baloreak antzematen eta eskuhartze horiek dituzten ondorio pertsonal eta sozialak ezagutzen laguntzen digu. Egiten ari garena aztertzen dugun bitartean, ebaluazio prozesuak jartzen ditugu abian, eta hauek, burutzen dugun hezkuntza ekintzari zentzua emateaz gain hura hobetzen eta eraldatzen laguntzen digute.

8.2.1. Hezkuntzaren teorizazioari dagokion behar-gakoa

- Kolektibo guztien eragileen hezkuntza praktikak gidatzen dituzten printzipio teorikoei buruz gogoeta egin.
- Kolektibo desberdinek ikastolan abian jartzen dituzten ekintzen oinarrian dauden baloreak aztertu.
- Kolektibo bakoitzetik ikastolaren xede komuna, hezkuntza, alegia, konzeptualizatzea, eta honek pertsonen eta gizartearen garapenean dituen ondorioak baloratzeta.
- Ikastolako talde guztiak (batzarraren eta komisioen guraso ordezkariak, koordinatzaileak, orientatzaileak, irakasleak, tutoreak, etab) ordezkatzan dituzten hezkuntza eragileek bete behar dituzten funtzioei buruz teorizatzea.
- Ebaluazioaren funtzioari eta kolektiboek hura gauzatzeko burutzen duten praktikari buruz gogoeta egitea.

8.2.2. Hezkuntza praktikari dagokion behar-gakoa

- Teoria eta praktika uztartuko dituzten eta ikastolan lankidetzako eta partaidetzako lana lagunduko duten gogoeta prozesuak laguntzea.
- Hezkuntza ekintzen analisia lagunduko duten prozesuak abian jartzea, kolektibo bakoitzean eta kolektiboaren artean lankidetzazko ekintza lortzearen.
- Kolektiboaren artean taldekako lana sustatu eta taldeen barne dinamika lagunduko duten estrategiak ezagutzea.

- Kolektibo guztiak osatzen dituzten eragileen partehartze gogotsua eta ardurakidea lagunduko duten metodologiak erabiltzea.
- Kolektiboen artean, gaitasun kritikoaren garapena eta elkartasuna, erantzukizuna, justizia, begirunea, etab. sortaraziko dituzten jarrerak lagunduko dituzten ekintzak bultzatzea.

8.2.3. Ebaluazioari dagokion behar-gakoa

- Kolektibo bakoitzaren barruan berak burutzen duen hezkuntza ekintzari zentzua emango dion ebaluazio kultura garatzea.
- Ebaluazio estrategiak sustatzea; hauek hezkuntza ekintzen edukia edo eragina ikasleen errendimendutik edota programa, plan edo proiektuetatik baloratu ez ezik, prozesu desberdinetan parte hartzen duten aldagai guztiak hartuko dituzte kontutan.
- Ebaluazio estrategiak abian jartzea; hauek lagundu behar digute ikastolan kolektibo bakoitzaren hezkuntza mailako eskuhartzeari dagozkion beharrak antzematzen edota behar horien gainean lehenetsunak ezartzen.
- Ebaluazio prozesuak abian jartzea; hauek ikastolaren hezkuntza ekintza orokorrari zentzua emango diote eta kolektibo guztietatik abiatu behar dira.

8.3. Antolaketa, kudeaketa eta komunikaziotik abiatutako horizontaltasuna edo binorantzatasuna eraikitzeari dagozkion beharrak

Aurreko atalen ildoari jarraiki, antolaketaren alderdi estatiko eta dinamikoek dagozkien kolektiboen beharrak bilduko ditugu oraingoan. Alderdi estatikoek plangintzari eta abian jartzeari dagozkien ekintzak hartzen dituzte barne, helburutzat hezkuntza proiektuaren garapena sustatzea dutenak, hain zuzen ere, kudeaketa eta antolaketa esparruak, alegia. Alderdi dinamikoak, bestalde, ikastolako komunikazioari dagokio, bere barruan harreman eta klima fluxua laguntzen duena, hain zuzen ere.

Analisi honetan lau gakotan sailkatu ditugu beharrak. Hain zuzen ere:

8.3.1. Instituzio klima ezartzeari dagokion behar-gakoa

- Harremana eta taldekako lana lagunduko duen instituzio klimaren sortzea sustatzea, bai kolektibo bakoitzean bai kolektibo guztien artean.



- Kolektibo guztietan instituzio gatazken analisisian sartzea ahalbidetuko duten dinamikak lagundu eta baterako erabaki bideak bilatzea.

8.3.2. Antolaketari dagokion behar-gakoa

- Ikastoletan kolektibo guztien hezkuntza eragileen funtzioen plangintza hobe ahalbidetuko duten ekintza moduak abian jartzea.
- Ikastoletako kolektiboen instituzio bizitzan oinarritzat egiten denari buruzko gogoeta sistematikoa izango duten jarrerak eta jokabideak sortzea.
- Kolektiboetan guztien helburuaren aldeko koordinazio bertikal eta horizontaleko prozesuak uztartzea.
- Denbora modu egokian antolatu eta kudeatzeko estrategiak diseinatu eta abian jartzea.
- Ikastolako kolektiboetan eta kolektiboen artean partaidetzako eta arduakidetasuneko kulturaren garapena bultzatzea.
- Horizontaltasun eta orokortasun prozesuak hobetuko dituzten egiturak garatzea, kolektibo guztiek parte hartuko duten proiektu komun bidez.
- Erabakiak hartzeko prozesuak aztertzea, ardurakidetasuna errealitate bihurtuko duten deszentralizazio eta gizarteratze handiagoa laguntzeko asmoz.
- Testuinguruari egokitutako planak diseinatzea, hezkuntza proiektuaren garapenean modu errealista, ireki eta dinamikoan lagunduko dutenak.

8.3.3. Gizarteratzeari lotutako behar-gakoa. Orokortasun eta horizontaltasun ikuspegia

- Kolektibo guztien funtzioak definitu eta, behar denean, berraztertzea, horizontaltasunaren eta globaltasunaren gakoak erantsiz.
- Zentroaren egituraren eta funtzionamenduan hezkuntza ekintzaren ardurakidetasunaren printzipioa eta talde guztiek hura onartzea laguntzea.
- Kolektiboetan eta kolektiboen arteko egiaztatze eta komunikazio guneen antolaketaren sustatzea, pedagogi irizpideetatik abiatuta eta lankidetzazko lana azpimarratuz.

8.3.4. Komunikazioari dagokion behar-gakoa. Informaziotik komunikaziora

- Kolektibo guztietan ikastolaren egoera orokorra aztertzea, informazio edota komunikazio gakoetatik abiatuta.

- Kolektibo guztien artean komunikazio fluxuak laguntzea, antolaketa dinamika eta ikastolaren instituzio klima bizkortzearen.
- Hezkuntza eragileen eskuhartzeari zuzenean lotutako hezkuntza gaiei buruz gogoeta guneak abian jartzea.
- Kolektibo guztietan eta organo kolegiatuetan ikastolaren hezkuntza ekintzari buruzko egiaztatzea sustatzea, binorantzasuna eta baterako partaidetza laguntzearen.

8.4. Aldaketa eta garapen pertsonal, profesional eta instituzionalari dagozkien beharrak

Ikastola ez da denboran eta espazioan geldirik dagoen organizazioa, berezko bizi-tza eta ondorioz mugimendua duen erakunde dinamikoa baizik. Ekintza sistematikoen proposamen gisa aurkeztutako berriztatze proiektuek aldaketak sortarazten dituzte kolektibo guztien praktikan eta hau garatzen den testuinguruetan, eta garapen pertsonal, profesional eta instituzionala laguntzen dute aldi berean.

8.4.1. Ikastolaren dinamizazioari dagokion behar-gakoa

- Kolektibo desberdinek abiarazten dituzten berriztatze proiektuek duten hezkuntza zentzuari buruz gogoeta egitea.
- Beharrak antzemateko estrategiak abian jartzea, aldaketak sortaraziko dituzten berriztatze proiektuetatik abiatuta hel dakizkienak.
- Kolektiboetan eta kolektiboen artean berriztatze proiektuak diseinatu eta abian jartzea, hezkuntza praktiken hobetzea eta eraldatzea laguntzearen.
- Ikastolako kolektiboetatik edo ikastola kanpotik proposaturiko berriztatze proiektuak sartzeko eta beraietan lehentasunak ezartzen lagunduko duten hezkuntza irizpideak ezartzea.
- Hezkuntza politika orokorra ezartzea lagunduko duten berriztatze prozesuak sortzea; honek ikastola barruko garapen pertsonal, profesional eta instituzionala lagunduko du.
- Kolektibo bakoitzean ikastolaren garapen politikatik ondorioztatutako diren prestakuntza ekintzen dinamizatzailerik izango diren hezkuntza eragileak hezteak.



8.4.2. Aldaketaren instituzionalizazioari dagokion behar-gakoa

- Berriztatze proiektuen analisia lagunduko duten eta kolektiboetan eta kolektiboen artean ekintza komun batera eramango duten prozesuak abian jartzea.
- Kolektibo bakoitzean eta kolektibo guztien artean berriztatze proiektuen komunikaziorako eta gizarteratzeko bideak finkatzea.
- Kolektiboen hezkuntza eragile bakoitzak egiten duen eskuhartzearen barruan berriztatze proiektuen hezkuntza gaitasuna sartzea.
- Talde bakoitzaren barruan irizpideak eta estrategiak ezartzea, berriztatze proiektuak eta beren garapena eta eragina ebaluatzearen, beti ere ikastolako xede komunari begira.

9. *Ikastoletan etengabeko prestakuntzarako programak garatzeko ildo nagusiak*

Azterlan honetan garatu dugun ikerkuntza-prestakuntza ildoak markatu du nolabait ikastoletan kolaboratu eta lan egiten duten hezkuntza eragileen etengabeko prestakuntza gidatu behar lukeen bidea. Beharrak antzemateko azterlan honetatik ondorioztatzen den Ekintza Planak barne hartu beharko lituzkeen ezaugarriarik adierazkorrenak deskribatuko ditugu jarraian.

Etengabeko prestakuntzak hezkuntza eragileen garapen pertsonal eta profesionala sustatu behar du, alegia, prozesu bat abian jarri behar du, eta prozesu horren bidez bere ekintzaren asmoa aintzat hartu, bere hezkuntza praktikan modu kritikoago eta eraginkorrago batean esku hartu ahal izateko. Beraz, norberaren esperientziaren azterketatik abiatutako hausnarketak erantzunak bilatzera eramane behar gaitu, hezkuntza eragileek ikastolan aurre egin behar dieten egoerak hobetu eta eraldatzearren.

Garapen pertsonal eta profesional hori ezin da bakarkakoa izan; aitzitik, ikastolaren garapen instituzionalari lotua egon behar du. Ikuspegi horren arabera, ikastola bertan edo ikastolatik kanpo burutzen diren prestakuntza ekintza guztien ardatz antolatzailea da. Ildo horretan, hezkuntza eragile guztiek burutuko dituzten prestakuntza ekintza guztiek ikastolaren bizitzan ezezik bere hezkuntza proiektuan ere eragin behar dutela nabarmentzen da.

Helburutzat garapen pertsonal, profesional eta instituzionala duen etengabeko prestakuntza honek hiru ezaugarri nagusi ditu gutxienez, etengabeko prestakuntzaren programen ildo nagusitzat hartu behar direnak, hain zuzen ere: a) hezkuntza eragileak bere prestakuntzaren protagonistatzat hartzea; b) hezkuntza ezagutzaren finkatzea, eta c) teoria eta praktika uztartuko dituen lan metodo bat proposatzea.

a) Hezkuntza eragileak bere prestakuntzaren protagonista gisa

Hezkuntza praktika ekintza gogoetatsu, kritiko eta ikertzailetzat hartu behar da. Ikuspegi honen arabera, hezkuntza eragileak ikastolan ardurakidetasunaz jardun eta parte hartzen duten pertsonak dira. Hezkuntza eragileak, beraz, edozein prestakuntza ekintzaren ardatz bihurtuko dira, beren hezkuntza praktika ulertzeko moduek ikastolako esparru desberdinetan ezarriko diren aldaketak baldintzatuko dituzten heinean.

Planteamendu horrek prestakuntza eskuhartze guztietan agertu behar duten zenbait gogoetara eramaten gaitu: pertsonaren osoko garapena lortzearren eduki kon-

tzeptualen biltze hutsetik harantzago doazen hezkuntza xedeak; komunikazio prozesua bi noranzko dituen prozesutzat hartzea, zeinak ezagutzaren berreraikitzea lehenesten duen; eta hezkuntza eragileek ikaste prozesuan duten eginkizuna, beren pertsonaren osoko garapena lortzearren beraiek gogotsu eta aktiboki parte hartzea eskatzen duena, hain zuzen ere.

b) Hezkuntza ezagutza

Prestakuntzaren helburuak hezkuntza eragileek ikastolan garatzen dituzten lanak ekintza moralak direla onartu behar du, hezkuntza xedei lotuta dauden heinean. Horrek hezkuntza praktika zalantzazko ekintza berezia dela esan nahi du, eta, ondorioz, prestakuntzak ezagutza teoriko-praktikoa lagundu behar du, hezkuntza ekintza inguratzen duten mundu konplexu, aldakor eta gatazkatsuei egokitua.

Horrek esan nahi du hezkuntza praktikaren hobetzea helburu duten prestakuntzaren edukiek zenbait alderdi hartu behar dituztela aintzat, alegia, zientzi edukia, pedagogi helburua eta ezagutza hori kokatzen den marko historiko-soziala, eta horiek, aldi berean, behar den moduan antolatu beharra dagoela.

Era berean, ikastolaren hobetzea sustatu nahi duten prestakuntza programek, ikastolaren beraren ezagutza orokorra bultzatzeaz gain, partaidetzazko eta lankidetzazko kulturen garapena eta hezkuntza xede komunak ezartzea kontutan hartuko dituzten prozesuen abian jartze eta garapenean jarri behar dute arreta.

Programa horien edukiak, beraz, hezkuntza eta gizarte errealitatearen alderdi guztien bategitea lortu behar du.

c) Lanerako metodoa: gizarte-hezkuntza praktikaren azterketa

Aurrez azaldutako helburuak lortzearren, prestakuntza eskuhartze guztiak gidatuko dituen lanerako metodo zehatz bat izan behar dugu, zeinak ikuskatze eta egiaztatze prozesu egoki batzuetatik sortutako gogoetaren bidez hezkuntza praktikaren azterketa sustatuko duen, hain zuzen ere.

Gogoetak hezkuntza ekintzari buruzko azterketa sistematikoa eskatzen du, hura sakonean ulertzeko eta garatzen den hurbileko errealitatearekin batera eraldatu ahal izateko. Hezkuntza eragileek ere hezkuntza ekintza aldatzeko borondatea azaldu behar dute aldi berean. Horrela, pertsonak gogoeta kritikoaren subjektu eta objektu bihurtzen dira.

Kasu horretan, hezkuntza eragileek bizi dituzten hezkuntza egoerak beren esperientzietatik jasotako ikaste berriak berreraikitze prozesutzat hartzen dira. Hori ikasten duen edonork egin beharreko prozesua denez, (buru) jarduerak berebiziko garrantzia hartzen du, eta ikasteko modu hori oinarritzeko baldintzetako bat izango da hemendik aurrera.



Azterlan honetan burutu dugun ikerkuntza-prestakuntza ere gidatu duten prestakuntza ildo horiek bai Ikastolen Elkarte/Partaidek bai ikastolek berek landuko duten Etengabeko Prestakuntzarako Ekintza Planean antolatuko diren prestakuntza modalitate desberdinak abian jartzeko moduan islatuko dira.

Azkenik, zenbait *prestakuntza modalitate* proposatzen ditugu, haiek etengabeko prestakuntza programetan garatuko diren moduarekin batera.

— *Ikastetxean ardazturiko prestakuntza*

Hezkuntza instituzioetan partaidetzazko kulturak garatzeko eta prestakuntzaren autogestioa sustatzeko modalitatearik garrantzitsuenetakoa da. Komunitatearen hezkuntza eragile guztien partehartzea eskatzearekin batera, ikastolako barne harremanetan aldaketak sustatu, ikastola aurrez azaldutako aldaketak gidatuko dituen edozein prestakuntza ekintzaren antolaketan konprometitu beharra azaldu eta hark dituen arazoak konpontzeko konpromisoak bultzatzen ditu, eta arazo horiek konpontzen lagun dezake.

Horrek eskatzen du ikastola prestakuntzaren lehentasunezko elementutzat hartzea. Ikastetxean ardazturiko prestakuntza ikastolaren beharrei buruzko azterketa batetik abiatzen da, eta ondoren behar horiez hezkuntza komunitate osoaren proiektu komuna antolatu eta irtenbideak bilatzeko konpromisoak azaltzen dira. Horrek zentzuzko erantzun baten egituraketa ahalbidetuko du, zeinak, aurrez adierazi den bezala, hezkuntza eragileen hezkuntza praktikaren eta hura burutzen den testuinguruen kalitatea duen helburutzat.

Azaldu dugun hori lortu nahi ditugun helburuak lortzearen dagoen modalitatearik sendoenetarikoa dela jakinda ere, garapen pertsonal, profesional eta instituzionala lagun dezaketen beste batzuetan ere parte hartu behar dugu. Haatik, beroriek garatzeko proposatuko den metodoak aurrez azaldutako ildo nagusiei jarraitu behar die derrigor.

— *Ikerketa-ekintza taldeak*

Beren hezkuntza praktikaren hobetzeari lotutako kezka baten inguruan biltzen diren pertsona taldeek osatzen dituzte ikerketa-ekintza taldeak. Prestakuntza modalitate honi lotutako lan metodoak taldearen partaideen esperientziatik abiatuta sistematikoki hausnartzea eskatzen du. Hausnarketak esperientzian sakontzea suposatzen du, taldekideekin eta dokumentuekin esperientzia hori egiaztatzea eta praktikari buruz teorizatzea, gure ekintza hobetu eta eraldatzearen ezagutza berriak jasotzeko asmoz. Zentzu horretan, ekintzari estu loturik dago prestakuntza modalitate hori.

— *Hezkuntza Proiektua egin edo berriztatzeako proiektuak*

Proiektu horiek pertsona askoren eta instituzioaren taldeen ordezkarien beharra dute. Gainera, beren garrantzia eta erantzukizunak kontutan hartuta, Hezkun-

tza Komunitatea helburu hori lortzearren antolatutako berriazko aldiak, erantzukizunak eta metodologiak erabaki behar dira. Kanpo eragileek aholkularitza lana egin dezakete honelako proiektuen mesederako.

— *Lan taldeak*

Prestakuntza modalitate honek autonomia mailarik altuena bermatzen du, eta kezka berdina dituzten hezkuntza eragileei, zentro batekoak zein zentro batzuetakoak direla, hezkuntza maila berdina edo desberdinekoak, zuzentzen zaie. Lan horien burutzeak proiektu argia behar du eta kanpo eragileek lagun dezakete. Hainbat testuingurutatik datozen hezkuntza eragileak biltzen dira modalitate honetan, eta truke pertsonal eta profesionalerako aukerak sortarazten ditu.

— *Mintegiak*

Pertsona kopuru txiki batek osatzen ditu mintegiak; hauek aldi batez biltzen dira aurrez ezarritako lan plan bati jarraiki. Beren partaideen lan gogotsua eskatzen du eta orokorrean material eta dokumentuen garapena du xede; ondoren, beste hezkuntza eragile batzuegana eramaten dira, hauek beren ekintza esparruetan eztabaidatu eta gero abian jar ditzaten.

— *Berriztatze proiektuak*

Ikastetxearentzat interesgarri gerta litezkeen curriculum, antolaketa, etab. alderdiak aztertzeke aukera ematen dio hezkuntza eragile talde bati; horrezaz gain, metodologi arloan zein ikastetxearen bizitzan eragin nabarmena izan lezaketen beste edozein arlotan ere berriztatzeak abian jartzea ahalbidetzen du.

— *Esperientzia trukea*

Hezkuntza eragileen arteko prestakuntza modalitate hau ikastetxe desberdinetakoak izan arren interes komunak dituzten pertsonen arteko komunikazioaz arduratzen da; hauek bere berritasun edo interesagatik curriculum, metodologi, antolaketa, etab. alderdiak garatzen saiatzen dira, dagozkien zentroetan, eta, ondorioz, hezkuntza sistemari orokorrean, eragin positiboa izan dezaketelakoan. Helburu hirukoitza du esperientzia trukeak: informatzea, trukatea eta hezteak.

— *Informazio saioak*

Gai zehatz bati buruz hausnartze eta sakontze prozesua bideratuko duten oinarriko elementuak ekartzeko erabiltzen dira. Adituek burutzen dituzte.

— *Aholkularitza saio puntualak*

Aholkulariek burutzen dituzte, eta gehienbat egiten dira hezkuntza eragile talde batek, proiektu bat burutzeko prozesuan, berez ezin konpon ditzakeen zalantza zein arazoaren aurrean aurkitzen den bakoitzean.



— *Iraupen luzeko ikastaroak: Graduondokoak eta Masterrak*

Programa hauek gaitze prozesuei lotuta daude bereziki. Unibertsitate esparruari lotuta daude gehienbat. Graduondokoek 250 ordu iraun behar dute gutxienez, eta Masterrek 500 ordu. Hori dela eta, zenbait kasutan, Masterretan batez ere, hainbat urtetarako planei lotuta egon behar dute.

Ekintzok zentzurik izango badute ikastetxeetako proiektuei estu loturik egon behar dute ezinbestean. Gainera, ikastaroen edukiak bi maila hartu behar lituzke barne, teoriko-paktikoa bata, eta praktikoa bestea; azken hori zentroetan burutuko litzateke aholkularien laguntzaz.

— *Ikastaroak*

Ikastaroetan hainbat testuingururi dagozkien hezkuntza eragileak biltzen dira, eta truke pertsonal eta profesionalerako aukera ematen dute beraz. Hezkuntza eragileek beren lagunekin batera landu dutena banatu eta horren berri eman behar dute ikastarootan, era horretan beren ikastolen garapena suspertuz eta sendotuz. Eredu hau baliabide garrantzitsua izan daiteke garapen instituzionale-rako. Azkenik, garrantzitsua da hezkuntza eragileek parte hartzen duten ikastaroen beraiek dituzten beharrei erantzutea.

10. Bibliografía

- APPLE, (1996). *Política cultural y educación*. Madril: Morata.
- ARANDIA, M. (1999). *El proceso de incorporación profesional al campo de la Educación de Personas Adultas*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- BORDA, F. (1986). *Conocimiento y poder popular*. Bogota: Siglo XXI.
- CARR, W. (1990). *Hacia una ciencia crítica de la educación*. Bartzelona: Laertes.
- CARR, W. eta KEMMIS, S. (1988). *Teoría crítica de la enseñanza. La investigación-acción en la formación del profesorado*. Bartzelona: Martínez Roca.
- CONTRERAS DOMINGO, J. (1999). El sentido educativo de la investigación. In: PÉREZ GÓMEZ, A., BARQUÍN RUIZ, J., ANGULO RASCO, J.F. (Ed.). *Desarrollo profesional del docente, política, investigación y práctica*. Madril: Akal. 448-463 orr.
- FREIRE, P. (1997). *A la sombra de este árbol*. Bartzelona: El Roure.
- GOODMAN, J. (2000). Educación para una democracia crítica. *Kikiriki*, 55/56 zkia. 55-73 orr.
- KIKIRIKI (2000). *Democracia, Educación y Participación en las instituciones educativas*. 55-56. zkia, monografikoa.
- PÉREZ GÓMEZ, A., BARQUÍN RUIZ, J., ANGULO RASCO, J.F. (Ed.). *Desarrollo profesional del docente, política, investigación y práctica*. Madril: Akal.
- POPKEWITZ, Th.S. (1988). *Paradigma e ideología en investigación educativa. Las funciones sociales del intelectual*. Madril: Mondadori.
- RUIZ DE GAUNA, P. (1996). Una valoración de los programas de formación en centro desde la investigación-acción crítica. In: VILLA, A. (Koord.). *Evaluación de experiencias y tendencias en la formación del profesorado*. Bilbo: Mensajero argitaletxea.
- RUIZ DE GAUNA, P. (1997). *Más allá de la formación continua: el desarrollo profesional docente*. Deustuko Unibertsitatean aurkeztutako doktore tesia.

11. Eranskina

1. *Ikastoletako testuinguruak ezagutu eta ulertzea helburu duen tresna: ikastetxeen autorretraturako gida*
2. *Ikastoletako ikerketa proiektuaren sortzearen eta gizarteratzearen azterketa helburu duen tresna: autotxostena*
3. *Talde zabalaren saioetan ikerketaren azterketa errazten duten tresnak: informazioaren biltze eta azterketarako koadroak*
4. *Diskurtsoaren aztertze eta eraikitze teorikoa laguntzeko materialak:*
 - *Azterketa dimentsioak eta gaikako adierazleak*
 - *Diskurtso azterketa eta sortzerako galdera koadroa*
5. *Ikastola bakoitzaren kasu azterketaren interpretazioarako tresna: ikastola bakoitzaren kasu txostena eraikitzeko pausuak*
6. *Ikerketa komunikatzeko material lagungarriak*

11.1. Ikastetxeetako testuinguruak ezagutu eta ulertzea helburu duen tresna

Ikastetxeen autorretraturako gida

Azaldu den moduan, Ikastetxeen Autorretraturako Gida tresna deskribatzailea da, eta proiektuan parte hartzen duten zentru guztien profila, ezaugarri orokorrak azaldu nahi ditu. Prozesuan erabili den lehenengo tresna da eta hauxe lortu nahi du:

- Ikastetxe bakoitzari buruz oinarritzko informazioa laburbiltzea, partehartzaile guztiek besteen testuinguruen berri izan dezaten.
- Idazkuntza eta narratiba idatzia eraikitzearen ildoan lanean hastea. Ikerketa mota honetan idatziaren erregistroa autoanalisirako talde dinamikekin batera gertatzen da, aurrez eztabaidatu, egiaztatu eta adostu eta gero.

Ikastetxearen autorretraturako gida

Nork erabiliko?: Ikastolaren zuzendari eta ikerlariek erabiliko dute tresna hau eta komunean jarriko dute lehenengo lan saioan.

Helburua: zentroen errealitatean, hauek proiektuaren aurrean duten abiapuntuan eta beren funtzionamenduan sakontzea, aukerak, sentimenduak eta balizko berriemaileak, hala nola lan ordutegiaren barruan informazioa jasotzeko eta lortzen ditugun txostenak itzuli edo komunikatzeko egokiak diren egoerak zeintzuk diren jakiteko asmoz.

Bere erabileran hartu beharreko jarrera: ikastolak proiektuarekiko eta honek sortarazten dituen aukerekiko hartzen duen konpromisoa berraztertu eta baloratzea suposatzen du.

a. Jarrerak argitzen

- Zein arrazoik eraman gaitu parte hartzera?
- Zer espero dugu proiektu honetatik?
- Nola sentitzen gara proiektu honen burutzearen aurrean?

b. Talde bakoitzaren ikastola barruko funtzionamendua

- **Irakasleak:** Zikloak, mailak, irakasle kopurua, erantzukizunak dituzten pertsonak (koordinatzaileak...), nola eta non biltzen diren, gaiak azaldu eta eztabaidatzeko unerik egokienak (klaustroan, aroka...)
- **Zuzendaritza taldea:** Erantzukizunak, bilerak (momentuak...).
- **Gurasoak:** gurasoen bileraren funtzionamendua (momentuak, edukiak), gurasoen komunikazioa ziklo eta maileri dagokienez (nola, noiz...), erabiltzen diren komunikazio bide/erak eraginkorrak.
- **Administrazioko eta zerbitzueta langile eta irakasle laguntzaileak:** Erabiltzen den komunikazio sistema, burutzen diren bilerak, beraiekin harremanetan jartzeko modu egokiak.
- **Ikasleak:** Erabiltzen duten partehartze sistema (ordezkariak, ikasleen kontseilua, burutzen dituzten bilerak...).



11.2. Ikastoletako ikerketa proiektuaren sortze eta gizarteratzearen azterketa helburu duen tresna

Autotxostena

Aurrekoa bezala, tresna honek ikerketan erabiltzen diren lehenengo materialak da, baina helburu desberdinak ditu. Txosten honetan zehar, ikastolako taldeen partaide guztien *konpromisoari ematen diogun garrantzia* nabarmentzen da; horrela, beren partehartzea sustatu nahi dugu, *beren ahotsak erabakiak hartzeko garaian indarra eta garrantzia har dezaten*

Autotxostenak gaia zentro bakoitzean izan duen harreraren berri ematen digu, alegia, informazio biltzea da, proiektua zenbateraino gizarteratu den, zeintzuengan bai eta zeintzuengan ez...etab. argituko diguna, hain zuzen ere. Galdetegia da, eta gainera partehartze gune zabaletan, komunikazio gune berritan pentsatzen hasteko beharrari buruz ideiak ematen saiatzen da.

Autotxostena

Nork erabiliko?: Ikastoletako partaide talde desberdinei proiektuaren hasierako aurkezpena egiteko arduradunek (zentroko ikerlariek eta zuzendariek) erabiliko dute tresna hau.

Helburua: Proiektua nola aurkeztu den, ikastola bakoitzean burutu den proiektua komunikatzeko prozesua eta partaide talde bakoitzean izan duen harrera ezagutzea.

Bere erabileran hartu beharreko jarrera: proiektua hartu eta zabaltzeko erabili diren mekanismoak, ikusitako erreakzioak, partaide taldeekiko komunikazioa... gogoratu eta azaltzea eskatzen du.

LANDU BEHARREKO GIDA-GALDERAK:

- Nola hartu du ikastolak proiektua aurreneko aldian? (komunikazio mekanismoak eta komunikatu duten pertsonak, eta proiektu motari buruzko iritzi pertsonala –pertsonarengan izan duen eragina– erreferentziazat zentroa eta bere ezaugarriak hartuta).
- Nola aurkeztu zaie proiektua aurreneko aldiz partaide taldeei proiektuan partehartzeko erabakia har dezaten? (erabilitako hedatze mekanismoak: gutuna, bilera, beste batzuk...)
- Nola hartu du proiektua zentroaren talde bakoitzak?
- Nolako giroa sumatzen duzu une honetan ikastolan proiektuari dagokionez?
- Zer beharko zenuten? zerbait behar al duzue une honetan?

11.3. Talde zabalaren saiotean ikerketaren azterketa errezten duten tresnak

Informazioaren biltze eta azterketarako koadroak

Ikerkuntza-prestakuntzaren bigarren zirkuluan hamabost egunean behin garatzen joan diren gainbegiratze dinamikak zentroko ikerlariak eta ikerlari laguntzaileak kasu bakoitzean sortzen ziren kezak, gogoetak, sentimenduak, zalantzak, etab. taldeari jakinaraztea eskatu dute. Ekarpen horiek antolatzearen koadro bat prestatu zen, bai landa oharrak jasotzeko bai partehartzaileen ideiak ordenatzeko asmotan. Beraz, argitzeko eta sailkatzeko asmoa dute, eta ezagutza eta emozio edukiz gainezka zeuden saiotean lagungarri gerta zaizkigu. Eduki horiek, bestalde, ikerketaren oinarria osatzen dute, alegia, haien gainean eraiki, teorizatu eta berrebaluatu da ikerketa osoa.

JARREREN EREMUA

	ZAILTASUNAK	PROZEDURAK	ALDE ONAK	IKERKETARI EGINDAKO EKARPENAK
Nola bizi dute prozesua partaide talde desberdinek?	Zeintzuk konpondu dira eta zeintzuk ez?	Nola konpondu dugu?	Zeintzuk dira bere alde positiboak?	Ikerketa prozesuaren eta bere diseinu eta garapenaren ulertzea. Zentroetan prozesua birplanteatzea eta ezaugarri horien arabera zer egin daitekeen eta zer ez erabakitzea.

KONTZEPTUEN EREMUA

	ZAILTASUNAK	PROZEDURAK	ALDE ONAK	IKERKETARI EGINDAKO EKARPENAK
Edukiaren ikuspuntutik, zer nabarmenduko genuke?	Zeintzuk konpondu dira eta zeintzuk ez?	Nola konpondu dugu?	Zeintzuk dira bere alde positiboak?	Ikerketa prozesuaren eta bere diseinu eta garapenaren ulertzea. Zentroetan prozesua birplanteatzea eta ezaugarri horien arabera zer egin daitekeen eta zer ez erabakitzea.



11.4. Diskurtsoaren aztertze eta eraikitze teorikorako material lagungarriak

Azterketa dimentsioen dokumentua eta gaikako adierazleak Diskurtso azterketa eta sortzerako galdera koadroa

Azterketa dimentsioek, ikuspegi kritikotik hezkuntza eredu bat erakitzeke oinarritzkoak diren zenbait puntu teoriko garrantzitsu biltzen dituzten heinean, ikerketa honen *analisi bizkarrezurra* osatzen dute. Egitura teoriko horrek errealitatearen analisi bat zirriborratzen du, izatea eta izan behar izatea, hala nola bien arteko aldea islatzen dituen, hain zuzen ere, arrazoizko eta zentzuzko irizpideen arabera prestakuntza beharrak adierazteko asmotan.

Material hauek, planteamenduaren ildoaren arabera, helburuok dituzte:

- Alde batetik, eztabaida taldeetan abian jartzen den *azterketan sakondu* nahi dute, eta, zentzu horretan, talde horiek gidatzen eta informazioa biltzen laguntzen duten tresna gisa erabiltzen dira.
- Beste alde batetik, garrantzi handiko kontzeptu teorikoak (hezkuntza komunitatea, komunikazio prozesuak, hezkuntza proiektua...) sartuz errealitatearen azterketa bideratzen duten heinean, *heziketa balio handia* dute, bai zentroko ikerlari eta ikerlari laguntzaileentzat bai partaide taldeentzat. Kontzeptu horiek, gainera, bai ideien argitzea bai guztien ondorioak eta prestakuntza beharrak adieraztea bezalako erronka garrantzitsuak dituen taldearen barruko komunikazioa errazten dute.
- Azkenik, gaikako dimentsio horiek *interpretazio fasearen oinarritzko irizpidea* izan dira. Izan ere irizpide gisa erabili dira:
 - dimentsioen txosten partzialen informazioa kategorizatu eta kodifikatzeko.
 - itzultze txosten partzialak lantzeko.
 - analisiaren irakurketa eta triangulaketa ahalbidetu diguten informazio huste orokorrak burutzeko. Prozedura honek azken interpretazio txostenaren egituraketa ahalbidetzen du.

11.4.1. Azterketa dimentsioak eta gaikako adierazleak

a. Ikastola-gizartea fluxua (ikastolaren eta bere hurbileko eta urruneko inguru-nearen arteko harremanak. Bi noranzkotasuna partehartzean, material eta giza baliabideen erabileran, ezagutzan, azpiegituran)

- a.1. Ikastolak bere inguruekiko ezartzen duen harreman mota eta bere dinamika (erakundeen, instituzioen eta beren dinamiken bidez)
- a.2. Ingurunearen eta bere hezkuntza gaitasunaren ezagutza.
- a.3. Inguruarekiko harremanak hasi eta sendotzeko prozesuak (sortutako edo sortu behar diren egiturak, foroak...)
- a.4. Ikastola-gizartea fluxuak ikastolan eta bere hezkuntza dinamikan duen eragina.

b. Hezkuntza berrikuntzako prozesuak (ikastolaren alor eta talde desberdinetan aldaketak eragiten dituzten ekintzak).

- b.1. Berrikuntza proiektuen sortzea (nork proposatzen dituen, nola gauzatzen diren, nola ezagutarazten diren).
- b.2. Berrikuntza prozesuek taldeen garapen pertsonal eta profesionalean duten eragina (Prozesuaren ezagutza, segimendua eta ebaluazioa).
- b.3. Berrikuntza proiektuen gizarteratzea (beste talde batzuekin partekatu, taldeen partehartze mota).
- b.4. Prestakuntza eta honek hezkuntza ekintzarekin duen harremana.

c. Hezkuntza Komunitatea (Ikastola osotasun gisa) (ikastolan lan egin eta guztien hezkuntza proiektu baten garapenaren alde beren jarduera zuzentzen duten taldeak)

- c.1. Talde bakoitzak hezkuntza proiektuaren garapenean jokatzen duen papera (funtzioak).
- c.2. Kolektibo desberdinek hezkuntza proiektuari buruz duten ezagutza maila (nork landu duen, nola zabaldu eta negoziatu den, zein helburu eta xede dituen).
- c.3. Taldearen jokabidea hezkuntza proiektua garatzeko (ekintzak, estrategiak).

d. Kudeaketa eta antolaketa (Ikastolako, erakunde gisa, plangintza orokorraren gauzatze eta kudeaketarekin nahiz kolektibo bakoitzeko funtzionamenduari zerikusia duten ekintzak dira. Ekintzok, jakina, hezkuntza jarduera bera erraztu edo oztopatzen dezaketelarik)



d.1. Ikastolaren antolaketa ereduaren ezaugarriak eta horrek hezkuntza ekintzak errazteko dituen aukerak edo mugak (egituren eta funtzioen, beren ezagutzaren, koordinazioaren ezaugarrien organigrama)

d.2. Giro instituzionala (gatazkak instituzioan eta taldeetan, haiek bai instituzio mailan bai talde bakoitzaren barruan konpontzeko moduak, instituzioetan eta taldeetan giroa garatzeko ekintzak).

d.3. Instituzio mailako eta talde bakoitzaren jardueretako kudeaketa administratibo-ekonomikoaren eta pedagogikoaren ezaugarriak.

d.4. Talde bakoitzaren funtzionamendua (nola antolatzen den taldeari ikastola barruan zentzua emateko).

e. Komunikazio prozesuak (komunikazio moduei, komunikazio prozesuen eta eragileen aurreko jarrerari eta komunikazioa sortzen duten egiturei lotutako komunikazio ekintza).

e.1. Erabakiak hartzeko prozesua (nola hartzen diren erabakiak bai ikastolan bai talde bakoitzean)

e.2. Komunikazioaren fluxua (bideak, argitasuna, irekitasun maila, berehalakotasuna-berandutzea).

e.3. Ikastola hobetzeko gune eta egituren erabilerak (edukiak –administrazio–, pedagogi-, prestakuntza- eta ebaluazio-mailetan, aldiak)

e.4. Komunikazio prozesuen gidaritzak eta lidergoa (nork gidatzen duen, nola egiten duten, zein ekintzaren bidez).

f. Hezkuntza Ekintza (talde bakoitzak hezkuntza proiektua garatzearren burutzen dituen gizarte eta hezkuntza eskuhartze prozesuei lotua).

f.1. Hezkuntza Ekintzaren Kontzeptua (talde bakoitzaren hezkuntza asmoa eta hezkuntza eskuhartzea).

f.2. Taldearen eskuhartze prozesuak hezkuntza ekintzaren garapenerako (helburuak, edukiak, metodologia, garapena)

f.3. Hezkuntza ekintzaren ebaluazioa (helburuak, nortzuk, nola, zerez, eragina)

11.4.2. Diskurtso azterketa eta sortzerako galdera koadroa

TALDE MISTOAN ADOSTUTAKO DEFINIZIOAK	EZTABAIDA TALDEAN LANTZEKO GAIAK	AZTERTU ETA INTERPRETATZEKO HELBURU OROKORRA	GALDERAK (Letra etzanez dauden galderak ikasleen taldeari dagozkio)
IKASTOLA	Ikastola-gizartea fluxua	<p>— Zertarako jarri nahi dugu harremanetan (asmoa)?</p> <p>— Ikastola bezala, zer eraikitzen dugu ingurunean hezkuntza mailan?</p>	<p>— Zer ekartzen dugu eta zer ekartzen digute?</p> <p>— Dugun guztia ezagutzen dugu, eta ezagutzen gaituzte gu eta gure gaitasuna?</p> <p>— Zergatik sartzen gara harremanetan batzuekin eta beste batzuekin ez?</p> <p>— Zer lortu nahi dugu ingurunearekin?</p> <hr/> <p><i>Nolako jarduerak abiarazten dituzte gurasoek, irakasleek, zuzendaritza taldeek eta ez irakasleek auzoan, herrian eta Euskal herrian?</i></p> <p><i>Zer gustatzen zaizue eta zer ez? Zergatik? Zer gustatuko litzaizueke?</i></p>
HEZKUNTZA	Hezkuntza-Berrikuntza	<p>— Nola sortzen diren, zein eragin duten eta nola gizarteratzen diren azaltzea.</p> <p>— Gizarteratze maila ezagutu eta proiektu kontraesankorrik dagoen ala ez jakitea.</p> <p>— Garatzen ari diren proiektuek zentroaren hezkuntza proiektuaren barruan dituzten helburuak aztertzea.</p>	<p>— Zer egiten dugu berriztatzeko, zergatik, nola eta zertarako egiten dugu?</p> <hr/> <p><i>— Zer ari dira egiten irakasleak, gurasoak, ez irakasleak eta zuzendaritza taldeak Ikastola berriztatzeko, zertarako?</i></p> <p><i>— Zer gustatzen zaizue eta zer ez? Zergatik? Zer gustatuko litzaizueke?</i></p>



TALDE MISTOAN ADOSTUTAKO DEFINIZIOAK	EZTABAIDA TALDEAN LANTZEKO GAIAK	AZTERTU ETA INTERPRETATZEKO HELBURU OROKORRA	GALDERAK (Letra etzanez dauden galderak ikasleen taldeari dagozkio)
HEZKUNTZA KOMUNITATEA ETA HEZKUNTZA ERAGILEAK	Hezkuntza Komunitatea	<p>— Komunitateaz dugun pertzepzioa eta denok pertzepzio bera ote dugun aztertzea.</p> <p>— Talde guztiak sentitzen al dira hezkuntza eragile?</p> <p>— Arduraz hartzen al ditugu hezkuntza eragile izateagatik dagozkigun funtzioak?</p>	<p>Guztien hezkuntza helburu baten alde lan egiten duten talde batzuek osatzen dute ikastola.</p> <p>Zuen ikuspuntutik, nola laguntzen dio zuen taldeak ikastoletako hezkuntza proiektuari?</p> <hr/> <p>— <i>Zer egiten dute irakasleek, gurasoek, ez irakasleek eta zuzendaritza taldeek ikastolaren proiektua garatzeko?</i></p> <p>— <i>Zer gustatzen zaizue eta zer ez? Zergatik? zer gustatuko litzaizueke?</i></p>
	Kudeaketa eta antolaketa	<p>— Ikastolaren funtzionamendua eta hura sostengatzen duen giroa zein den azaltzea.</p> <p>— Ba al dakigu hezkuntza ekintza orok antolaketa-, kudeaketa- eta pedagogi- atalak izan behar dituela? (Pertsonak hiru sektore horien arabera hezi ote diren berrestea)</p>	<p>— Nolakoa da zuen ikastolaren barne funtzionamendua?</p> <hr/> <p><i>Zer gustatzen zaizue eta zer ez? Zergatik? Zer gustatuko litzaizueke?</i></p>

TALDE MISTOAN ADOSTUTAKO DEFINIZIOAK	EZTABAIDA TALDEAN LANTZEKO GAIAK	AZTERTU ETA INTERPRETATZEKO HELBURU OROKORRA	GALDERAK (Letra etzanez dauden galderak ikasleen taldeari dagozkio)
KOMUNIKAZIOA	Komunikazio prozesuak	<p>— Nori entzuten zaio ikastolan?</p> <p>— Nork hitz egiten du, nork entzun, nork erabakitzen du talde horretan?</p> <p>— Nola entzun eta interpretatzen dira isiluneak (oinazeen sartzea, arduragabekeria...)?</p> <p>— Zertarako komunikatzen dugu? (bideak, guneak, komunikazioaren edukia eta komunikazioaren balioa...)</p>	<p>Pertsona eta talde desberdin askok hartzen du parte ikastolaren instituzioan. Nolakoak dira ikastola barruko komunikazio harremanak eta zein da talde bakoitzaren ahotsaren garrantzia?</p> <hr/> <p>— Zer deritzezue ikastolan eta taldeetan ematen diren komunikazio harremanei?</p> <hr/> <p>— Zer gustatzen zaizue eta zer ez? Zergatik? Zer gustatuko litzaizueke?</p>
	Hezkuntza ekintza	<p>Beharrezkoa da irakasleek adierazpenak egitea, modu horretan gela barruko hezkuntza ekintzari lotutako beharrak antzeman ahal izateko.</p> <p>— Zein da planifikatzeko, kudeatzeko, abian jartzeko, ebaluatzeko eta hobetze prozesuei ekiteko modua?</p> <p>— Hezkuntza eragile guztiek betetzen al dituzte lan guzti horiek?</p>	<p>Hezkuntza ideia honetatik abiatuta:</p> <p><i>“Pertsonaren garapen eta hobetzerako prozesua, besteekiko elkarrekintzan, bere autoerrealizazioa eta gizartearekiko eta euskal kulturarekiko bere konpromiso kritiko, aktibo eta arduratsua errazten duena, eta beste gizarte eta kulturekiko harremanetan».</i></p> <p>Nola erraztu ala oztopatzen du hezkuntza ideia horren garapena zure taldearen hezkuntza ekintzak?</p> <hr/> <p><i>Nola hezten zaituztete irakasleek, gurasoek, ez irakasleek eta zuzendaritza taldeek? Zer gustatzen zaizue eta zer ez? zergatik? zer gustatuko litzaizueke?</i></p>



Zein modutan aurre egin diezaiekegu nabarmendutako beharrei prestakuntzaren bidez?

	PRESTAKUNTZA AUKERAK
Prestakuntza moduak	<ul style="list-style-type: none"> — IKASTARO LUZE ETA LABURRAK (espezializazioa, eguneratzea) — IKASTETXEETAN ARDAZTURIKO PRESTAKUNTZA — MINTEGIAK — BERRIKUNTZA PROIEKTUAK — TRUKERAKO FOROAK — BERDINEN ARTEKO TOPAKETA — HITZALDI ZIKLOAK — JARDUNALDI ETA BILTZARRAK — KERKETA TALDEAK
Prestakuntza Estrategiak	<ul style="list-style-type: none"> — Taldekako lana edota banakako lana edota eztabaida kritikorako taldeak. — Simulazioak — Kasuen azterketak, ereduak, biografia profesionalak, dokumentuak, ikasleen lanaren deskribapenak. — Proiektuak: lantze eta abian jartzea. — Elkarrizketa profesionala — Eztabaida saioak — Berdinen arteko behaketa — Irakasleen saiakerak, azterketa eta gogoetarako egoerak aurkezten dituenak. — Beste entitate batzuekiko harremanak.

11.5. Ikastola bakoitzaren kasu azterketaren interpretaziorako tresna

Tresna honek zentroko ikerlariak eta ikerlari laguntzaileak bere ikastolaren kasu azterketaren analisisian eta interpretazioan orientatzea du xede, talde mistoak bururiko itzultze txosten partzialetatik abiatuta.

Gainera, kasu azterketaren txostena eraikitzea ahalbidetzen du; horrek, talde mistoak egindako txosten orokorra egiaztatu ezezik, entzule taldeei eta hezkuntza elkarte osoari ikerketa itzultzeko estrategia osoa prestatzeko oinarriak ezartzen ditu.

Ikastola bakoitzaren kasu txostena eraikitzeko pausuak.

- Partaide talde bakoitzari dagokion luzerako azterketa egin (talde bakoitzak bere eztabaida saio guztietan zehar sorturikoa), konstanteak eta berariazko alderdiak seinalatuz, eta horren argudiaturiko arrazoiak emanez.
- Zeharkako azterketa egin (partaide taldeen artean dimentsio bakoitzean sorturikoa) konstanteak eta pertzepzio kontrajarriak zehaztuz, eta horren argudiaturiko arrazoiak azalduz.
- Ikastola sostengatzen duten baloreak adierazi.
- Partaide talde guztietan agertzen diren prestakuntza beharren gako komunak hala nola soilik talde bakoitzari dagozkionak seinalatu.
- Kasua itzultzeko eta prestakuntza proposamena gauzatzen hasteko dinamika bat sortzeaz pentsatu. Kasua gizarteratu eta ulertzeko eta ikastola gisa bilakera ildoak hartzeko pauso garrantzitsua da.

11.6. Ikerketa komunikatzeko material lagungarriak

Material hauek erabiltzen dira ikerketaren oinarriak diren interpretazio ardatzak modu argi, txukun eta sintetikoan aurkezteko. Ikerketa talde mistotik talde zabale-
ra komunikatzeko saioan laguntza material gisa aurkezten dira, eta zentroetako
ikerlariak ikastola bakoitzari komunikatzeko prozesua eraikitzeke ere baliagarri
dira.

IKASTOLA BERE OSOTASUNEAN HEZKUNTZA KOMUNITATE DIALOGIKOEN GARAPENA LAGUNDUZ

- Hezkuntza eragile izatetik hezkuntza komunitatea izatera (taldea izatetik hezkuntza eragilea eta hezkuntza komunitatea izatera igarotzea).
- Ingurunean eta ingurunearekin eraikiz.

Galdera: Nola lagun dezakegu, hezkuntza eragile garen neurrian, hezkuntza komunitatearen eraikitzean?

Inplikazio teorikoa: Demokrazia hezkuntza instituzioetan

- Informazioaren gizarteratzea
- Horizontaltasuna sortzea
- Elkarte kritikoaren eraikitzea, guztien ongiaren alde.

Ondorioak

- Talde guztiek hezkuntza eragiletzat hartzen dute beren burua, baina hezkuntza komunitatetzat ez. Zergatik? Denok adostutako eta ezagututako guztien ongia sor lezakeen helburu baten alde lan egin ez delako.
- Talde guztiek, ikastolaren partaide direlako ustetan, ez dute ez antolatatu ez kohesionatu komunitatea sortzea ahalbidetuko liekeen egitura.
- Euskalduntzea eta euskal kulturaren garapena dira talde guztiek adierazi eta gizaratearekiko fluxua orientatzen duten guztien helburuak, eta diskurtsoan hezigarriaren balioa galtzen da.
- Hezkuntza elkartearen araberako hezkuntza proiektua ez da oraindik definitu edo birdefinitu ikastoletan.

Prestakuntza beharren gakoak.

1. Hezkuntza komunitate dialogikoen finkatzeari dagozkion behar gakoak.
2. Ingurunearekiko harremanak eraikitzeari dagozkion behar gakoak.

HEZKUNTZA EKINTZA ETA HONEK IKASTOLAN DUEN ERAGINA AZTERTUZ.

- Hezkuntza kontzeptua eta bere asmoa aintzat hartuz.
- Hezkuntza praktika aztertuz eta hura estaltzen duten baloreak agerian utziz.
- Hezkuntza ekintzari esanahia emanez.

(Erreferentziak: hezkuntza ekintza)

Galdera: Nola erraztu ala oztopatzen du hezkuntza ekintzak guztien proiektuaren garapena?

Implikazio teorikoa

- Ikuspegi kritikotik abiatutako hezkuntza kontzeptua.
- Hezkuntza praktika gogoetatsua.
- Hezkuntza praktiken eraldatzea.

Ondorioak

- Taldeek guztien proiektu baten garapena lagun dezaketen hezkuntza eragiletzat hartzen dute beren burua, baina talde guztietan ez dira behar bezala zehaztu kontzeptu horren arabera bete beharko lituzketen funtzioak. Gurasoak eta irakasleak dira ikastolan hezkuntza mailan esku hartzeko beren tokia gutxien zehaztua dutenak.
- Talde guztietan alde handia dago hezkuntza kontzeptua eta bere implikazioak onartze teorikoaren eta talde bakoitzari dagokion hezkuntza ekintzaren artean.
- Teoria eta praktikaren arteko alde hori nabarmentzen da, esate baterako, taldeek beren hezkuntza ekintzan instrumentala hezigarriari nagusitzen zaiola onartzen dutenean. Hezigarria, haien esanetan, intuizioaren menpe gelditzen da. Ebaluazioa talde zuzentzaileen zenbait funtzioiara eta ikasleen errendimendura mugatzen da, eta ebaluazio prozesuek ekar lezaketen heziketa mailako eta garapen pertsonal, profesional eta instituzional mailako gaitasuna txikiagotzen da.

Prestakuntza beharren gakoak.

1. Hezkuntzaren teorizazioari dagozkion behar gakoak.
2. Hezkuntza praktikari dagozkion behar gakoak.
3. Ebaluazioari dagozkion behar gakoak.

**ANTOLAKETATIK HORIZONTALTASUNA EDO BI NORANZKOTASUNA ERAIKIZ,
KUDEAKETA ETA KOMUNIKAZIOA**

- Hezkuntza plangintza, bi antolaketa profilen oinarria.
- Ibilbide desberdinak baina oztopo berdinak.
- Informazioa ala komunikazioa?
(erreferentziak: antolaketa, kudeaketa eta komunikazio prozesuak))

Galdera: Zein antolaketa estilok eta zein komunikazio motak lagunduko lituzkete partaidetzazko dinamikak hezkuntza instituzioetan?

- Implikazio teorikoa**
- Antolaketa hezkuntza elkartearen eta bere proiektuaren zerbitzuan.
 - Horizontaltasuna.
 - Komunikazio ekintza.

Ondorioak

- Ikastolak, bere berezko historia eta kokatzen diren testuinguru zehatza direla eta, garapen momentu desberdinetan dauden instituzioak dira. Hala ere, zailtasun berdinak aurkezten dituzte organizazioaren alderdi estatikoetan (antolaketa egiturak) eta alderdi dinamikoetan (komunikazioa).
- Antolaketari lotutako zailtasunak plangintzari, koordinazioari, informazioaren zabaltzeari eta erabakiak hartzeari dagozkie gehienbat, hala nola egitura honetan denon pizgarriak izan behar luketen komunikazio alderdiei.
- Zailtasunak zailtasun, ikastolek gehiegitan uzten dituzte informazioa eta erabakiak zenbait organoren esku (talde zuzentzaileak, batzorde zuzentzaileak...). Horrek urruntze pertzepzioa eragiten du gainerako taldeetan eta ez du ez instituzio garapena ez hezkuntza proiektua laguntzen.
- Ikastoletan ezartzen den komunikazio mota informazioaren bidaltzeari dagozkie soilik, eta hori, hasierako maila izanda ere, ez da nahikoa bi noranzkotasuna eta talde guztiak guztien proiektuaren garapenean partehartzea laguntzeko.

Heziketa beharren gakoak.

1. Giro instituzionala ezartzeari dagozkion behar gakoak.
2. Antolaketari dagozkion behar gakoak.
3. Gizarteratzeari dagozkion behar gakoak. Orokotasun eta horizontaltasun ikuspuntua.
4. Komunikazioari dagozkion behar gakoak: Informaziotik komunikaziora.

**GARAPEN PERTSONAL, PROFESIONAL ETA INSTITUZIONALA ERRAZTUZ
ETA TESTUINGURUAK ERALDATUZ.**

- Berriztatze prozesuak abian jartzeko arrazoiak.
- Berriztatze proiektuen sartzea, gizarteratzea, segimendua eta balorazioa.
- Pertsonen garapen pertsonal eta profesionalaren alde.

(Erreferentziak: hezkuntza berriztatzea)

Galdera: Nola laguntzen dute berriztatze proiektuek guztien ongiaren aldeko mugimendu instituzionala?

Implikazio teorikoa — Aldaketa eta garapenerako prozesuak

Ondorioak

- Taldeek ongi dakite zein garrantzitsuak diren berriztatze proiektuak eguneroko hezkuntza praktikaren hobetzerako.
- Berriztatze proiektuak kudeatu eta garatzeko irizpiderik ez dago, eta horrek oztopatzen du proiektu horiek ikastolaren orokortasunean zentzua izatea.
- Presio sozialak baldintzatzen du berriztatze proiektuen hautaketa, ikastolako benetako beharrek baino gehiago.
- Berriztatze proiektuak gizarteratzeko zailtasunak daude.
- Aldaketa eguneroko hezkuntza praktikan integratzen ez denez, berau instituzionalizatze zailtasunak daude.
- Instituzioan heziketa politikarik ez dagoenez, nor bere aldetik heltzen da heziketara, eta, ondorioz, ekintza horren heziketa gaitasuna ez da ikasleletan integratzen.

Prestakuntza beharren gakoak.

1. Ikastolaren mobilizazioari dagozkion behar gakoak.
2. Aldaketaren instituzionalizazioari dagozkion behar gakoak.





Egileak

MAITE ARANDIA LOROÑO, Galdakaon (Bizkaia) jaioa. Pedagogian doktorea eta UPV/EHUko Didaktika eta Hezkuntza Antolaketa saileko irakaslea. Helduen hezkuntzan, gizarte hezitzaileen lanbide garapenean eta Hezkuntza Komunitate Dialogikoen eraikuntzan garatu du nagusiki bere ikerkuntza jarduera. Artikulu ezberdinak argitaratu ditu helduen hezitzaileen prestakuntza, bideratze kritikoa eta kultura ezberdinek parte hartzen duten ikerkuntza-prestakuntza prozesuak bezalako gaiak jorratuz.

IDOIA FERNANDEZ FERNANDEZ, Portugaleten (Bizkaia) jaioa. Pedagogian doktorea eta UPV/EHUko Hezkuntzen Teoria eta Historia saileko irakaslea. Bere lana euskal hezkuntzaren historian, hezitzaileen prestakuntzan eta Hezkuntza Komunitate Dialogikoen eraikuntzan garatu du bereziki, metodologia kualitatiboak erabili eta sakon ezagutzen dituelarik. Argitalpen ezberdinetan partehartzaile eta “Oroime-naren hitza. Ikastolen mugimenduaren historia 1960-1975” liburuaren egilea dugu. UEUko kidea.

PILAR RUIZ DE GAUNA BAHILLO, Bilbon jaioa. Pedagogian doktorea eta UPV/EHUko Hezkuntzen Teoria eta Historia saileko irakaslea. Bere ikerkuntza lana irakasleriaren lanbide garapenean, ikerketa-ekintza kritikoan eta Hezkuntza Komunitate Dialogikoen eraikuntzan garatu du nagusiki. Idatzitako artikuluen artean “Teoriak eta praktika irakasleen etengabeko prestakuntzan” eta “Ikastetxeko prestakuntza programak ikerketa-ekintza kritikoaren ikuspegitik” aipatu daitezke, besteak beste.

JOSE LUIS MARAÑON OLARRA, Donostian jaioa. Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan (Psikologia) lizentziatua. Irakasle, Gipuzkoako lurraldeko Hezkuntza Berezi-ko eta Ikastolen Elkarteko prestakuntza arduraduna izana. Bere lana irakasleen prestakuntza, antolamenduan eta hezkuntza sozio-afektiboan garatu du bereziki.

JUAN JOSE GOMEZ SENANDE, Getarian (Gipuzkoa) jaioa. Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan (Pedagogia) lizentziatua. Usurbilgo Udarregi ikastolako irakasle izana eta egun Ikastolen Elkartea/partaideko ebaluazio arduraduna. Bere lana euskararen erabileran, elkarbizitzan eta ikastetxeen ebaluazioan garatu du.

BILDUMA HONETAKO BESTE ZENBAKIAK

- 1. La actitud emprendedora en la CAPV**
Kualitate Lantaldea
- 2. Institucionalización política y reencantamiento de la socialidad. Las transformaciones en el mundo nacionalista**
Begoña Abad, Javier Cerrato, Gabriel Gatti, Iñaki Martínez de Albeniz, Alfonso Pérez-Agote, Benjamín Tejerina
- 3. La cultura del trabajo y la actitud emprendedora en el ámbito profesional de la CAPV**
Miguel Ayerbe, Esther Buenetxea
- 4. La población vasca ante el periodo de tregua de ETA 1998-1999**
Gabinete de Prospección Sociológica
- 5. Ikastola edo eskola publikoa: euskal nazionalismoaren hautua**
Txoli Mateos
- 6. Análisis postelectoral de Elecciones Autonómicas 2001**
Gabinete de Prospección Sociológica
Belén Castro Iñigo, Miguel Angel García Montoya, Amaya Zárraga Castro
- 7. Acción colectiva y sociedad de movimientos. El movimiento antimilitarista contemporáneo en el País Vasco-Navarro**
Jesus Casquete
- 8. El sector de la Cooperación al Desarrollo en la CAPV en el bienio 1999-2000**
Varios autores

Ikerketa oro bere zentzu eta esanahi osoa hartzen dituen berariazko izaera eta bizitzako eszenatoki batean kokatzen da. Gurea iragana eta oraina dituen ikastolen mundua da. Beronek helburu zehatz batzuk ditu hezkuntzari, euskalduntzearen garapenari eta berriztatze prozesuei dagokienez.

Ikerketa honen zergatiak bi ardatz nagusi ditu, ikastoletako eguneroko bizitza, alde batetik, eta egile-hezitzaileek beren jarduerak eta hauek garatzen diren testuinguru sozial eta instituzionalaren hobekuntzaren kezka, bestetik.

Ekintza komunikatiboa eta teoria kritikoaren printzipioak dira bere erreferente nagusiak. Egiten duen ekarpenik nagusienetarikoa bat bere planteamendu metodologikoa da. Hori isladatzen da prozesuan inplikaturako egile hezitzaile guztiak, barrukoak nahiz kanpokoak, horizontaltasuna, elkarriketa eta elkarerantzukizunaren printzipioetan oinarritutako ikerketa-prestakuntza prozesu baten sormenean.

Horrela, "konturatze" prozesua bultzatu da, eta horrekin batera, egile guztien mobilizazioa (gurasoak, irakasleak, zuzendaritza taldeak, ikasleak eta gainontzeko pertsonak). Horren bitartez, bide bat abian jarri da, kolektibo desberdinek dituzten prestakuntza beharren azterketan jatorria duena eta autogestio hezitzailearen sendotze eta garapenerantz orientatzen dena.